

Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen Historia

Alternatiba solidarioak lurraldetik eraikiz

Sareen Sarea Euskadiko Gizartekintzarako Hirugarren Sektorea
eta Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren Taldea



Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen Historia

Alternatiba solidarioak lurraldetik eraikiz

Red de Redes – Sareen Sarea
Tercer Sector de Acción Social de Euskadi
Euskadiko Gizartekintzako Hirugarren sektorea

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren Taldea

2012ko abendua

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



Dokumentua parte hartu duten pertsonen ekarpenez landu da, eta beraren egileak hauexek izan dira:
Zuriñe Romeo, Rafael López-Arostegui, Raúl Castillo eta Itziar Fernández.

Itzulpena: Koldo Morales

Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea

Behatokiaren webgunean – www.3sbizkaia.net – dokumentu hau eta Behatokiaren gainerako argitalpenak eskura daitezke eta dohainik deskargatu.

Haien bidez, Hirugarren Sektorearen hobekuntzari lagundu nahi diogu; horregatik, eskertzen dugu dokumentazioa ahalik eta gehien hedatzea eta haien banketa, kopia eta birbanaketa baimentzen ditugu, betiere irabazi-asmorik gabe egiten bada eta egilea nor den aitortzen bada.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
Helburuak, metodologia eta parte hartu duten erakundeak.....	7
1. Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen erakundeen jatorria	12
1.1. Erakundeak (edo ekimenak) sortzeko arrazoiak.....	13
1.2. Erakundea hasieran abiatu eta osatzen duten eragileak	18
1.3. Pertsonak erakundearekin lotzera eta lotura hori gero mantentzera bultzatzen dituzten arrazoiak	20
1.4. Erakundeen jatorriari buruzko gogoeta batzuk	24
2. Erakundeen funtzionamendua beren hasieran	32
2.1. Gauzatzen zituzten jarduerak eta garai hartako lankidetzak	32
2.2. Hasierako garaiaren zailtasunak eta alderdi positiboak.....	39
3. Bizkaiko GEHSaren erakundeen bilakaera	47
3.1. Erakundeetan iraun duten, eraldatu diren eta eraldatu beharko liratekeen alderdiak	47
3.1.1. Iraun duten alderdiak.....	47
3.1.2. Eraldatu diren alderdiak.....	49
3.1.3. Eraldatu beharko liratekeen alderdiak	60
3.2. Bizkaiko GEHSaren historiako mugarriak eta etapak	62
3.2.1. Mugarriak (testuinguruaren funtsezko elementuak)	63
3.2.2. Erakundeen bilakaeren funtsezko elementuak	69
3.2.3. Bizkaiko GEHSaren historiako etapak	74
3.3. Erakundeen ibilbidea itxuratu duten eta beren garrantziagatik mantendu behar diren hamabi gako.....	79
4. Erakundeen ekarpen soziala	87
4.1. Pertsona hartzaileei egindako ekarpena.....	87
4.2. Bizkaiko gizarteari egindako ekarpena	91
4.3. Erakundea osatzen duten pertsonen egindako ekarpena.....	94
Eranskina: Informatzaile garrantzitsuekin izandako elkarriketaren gidoia	97

Aurkezpena

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia informazio eta dokumentazio, ikerketa aplikatu eta sustapen zentro bat da, Hirugarren Sektorean Espezializatua, irabazi-asmorik gabekoa eta independentea; beraren helburua da Hirugarren Sektorea indartzea eta Bizkaiko erakundeen esku-hartze eta kudeaketaren berrikuntza eta hobekuntza bultzatzea.

“3S Ikerketa” bildumak Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen errealitateari eta beren ekarpenari buruzko ezagutza sakonagoa eskaini nahi die Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareei eta Sektoreagatik interesatzen diren gainerako eragileei.

Halaber, azterketarako gakoak eskaini nahi ditu, bizkaitar gizarte parte-hartzailerik eta solidarioa sustatzera zuzendutako proposamenak helarazteaz batera; izan ere, konbentzituta gaude Hirugarren Sektorea ezinbesteko eragile eta aktiboa izan dela, badela eta izaten jarraitu behar duela Bizkaiko gizartearentzat.

Hain zuzen ere, konbentzimendu hori izan da hemen aurkezten dugun ikerketa-proiektu kualitatiboaren eragilea; ikerketa honek, gainera, oraingo uneak Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearentzat duen garrantzi bereziaz dugun kontzientziari ere erantzuten dio.

Euskadiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea¹ berebiziko garrantzia duen une batean dago gaur egun; denboraren joanak eskaintzen duen ikuspegiak ahalbidetzen du bi etapa esanguratsu bereiztea beraren historiako azken bi hamarkadotan, alegia, besteak beste ezaugarri hauek dituzten bi etapa:

- erakundeek parte hartu dute lehendik ere eskaintzen ari ziren eta denbora aurrera joan ahala erantzukizun publikoko zerbitzu bezala finkatu diren zerbitzu batzuen hornikuntzan;

1 “*Hirugarren Sektore Sozialaz*” edo “*Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreaz*” eman dezakegun definizioaren arabera, sektore hori osatzen duten erakundeek pertsonen sustapen eta inklusio sozialaren alde dihardute, hirugarren sektorearen baitan, eta, horri begira, “eremu, sistema edo politika sozialekin” zerikusia duten jarduerak garatzen dituzte, eskubide sozialen erabilera erreala errazteko eta pertsonen gizarte ongizatea eskuratzen laguntzeko, bazterketa edo ahulezia egoeran daudenei arreta berezia eskainiz”.

BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostika. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 4. orr. Definizio honetan sakondu nahi izanez gero, argitalpena kontsulta daiteke.

Hirugarren Sektore Sozialari dagokionez, lan honetan ez dira kontsideratu alor zibikoan diharduten erakundeak, zeren ez baitaude lotuta, modu espezifikoan, gizarte zerbitzuen sektorearekin. Arrazoi berberagatik, ez dira kontsideratu gaixotasun bati erantzun nahi dioten eta beren jarduna osasunaren alorrean zentratzen duten erakundeak (hirugarren sektore sanitarioa). Desgaitasunen alorra, aldiz, bai hartu da kontuan, zeren gizarte zerbitzuen eremuko jarduerak gauzatzen baitituzte, modu trinkoan, beste batzuk gauzatzeaz gain.

Horrenbestez, Lan hau Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorean zentratzen da, Hirugarren Sektore Sozialaren baitan, edo, hala nahiago bada, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorean, zentzu zorrotzean.

- erakundeek hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboa izan dute, eta oreka bilatu dute zerbitzuen prestazioaren eta berez dagozkien beste eginkizun sozial batzuen artean -kontuan hartuta zerbitzuen prestazioak gora egin duen eginkizun bat dela-;
- Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea gero eta gehiago egituratu da, eta Red de Redes-Sareen Sarea prozesu horren adierazle nagusia da; gainera, erakundeen eta sareen interlokuzio gaitasunak ere gora egin du, hala sektore publikoarekin (elkarrizketa zibila) nola beste eragile batzuekin.

Testuinguru orokor horren barruan, **erakundeek garapen** etapa bat izan dute aurrena: erakundeek hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboa izan dute, esku-hartzea eta kudeaketa formalizatu dituzte eta barneko egituraketa gauzatu dute; horren osteko etapan, berriz, esan genezake **“autokontzientzia” eta egituraketa handiagoak lortu direla, “sektore” bezala.**

Eta horretan, bizi izandako esperientziak eta oraingo krisi egoerak bultzatuta, erakundeek kontzientzia handiagoa hartu dute arrisku jakin batzuez: mendetatsuna, merkantilizazioa, babes-sistemen ahultzea...

Eta, halaber, konturatu dira beharrezkoa dela besteekin elkartzea, aliantzak eratzea eta beste eragile batzuekiko elkarrizketa indartzea, bai eskubide sozialei eusteko eta bai erakundeen autonomia, eginkizunen oreka, zerbitzuen prestazioari erantzen dioten balioa eta gizarteari egiten dioten ekarpen orokorra iraunarazteko.

Testuinguru horretan, bereziki esanguratsua da Red de Redes - Sareen Sareak proiektu honetan kolaboratu izana, zeren elkargune bilakatu baita Euskadiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea osatzen duten alorrentzat.

Proiektu honek izaera kualitatiboa du, eta Behatokiak ikuspegi kuantitatiboagoaz egin dituen beste ikerketa-proiektu batzuk osatzen ditu; bere asmoa da Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen historiari buruzko ikuspegi bat eskaintzea, beraren protagonisten ² ikuspuntutik. Horrekin batera, beren garrantziagatik etorkizunean mantendu beharko liratekeen gakoak ere azaltzen ditu.

Bizkaian kontzentratzen bada ere, proiektu hau erabilgarria izan daiteke beste erakunde batzuentzat -beren testuingurua antzekoa izanez gero-, eta sektorearen oraingo egoeraren eta erronken deskribapena osatzen du.

Erakundeok gure historiaren kontzientzia hartu behar dugu, jakin behar dugu geure burua hor aurkitzen; horrekin batera, egindako ibilbidea baloratu behar dugu, eta etorkizuna modu koherente, aktibo eta kontzientean proiektatu, historiaren irakaspenak kontuan hartuta.

Gainera, aitortza, balorapen, proiektzio eta ikasketa hori kolektiboa izatea oso garrantzitsua da Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen eraikuntza eta egituraketarako.

² Dena dela, ikuspegi hori beste batzuek osatu lezakete etorkizunean, hau da, hirugarrenen ekarpenez osatu ahal izango da etorkizunean.

Helburuak, metodologia eta parte hartu duten erakundeak

Ikerketa-proiektu hau 2011 urtean hasi genuen, Red de Redes - Sareen Sarearen lankidetzarekin, helburu hauek lortzeki begira:

- a) Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea (GEHS) sakonago ezagutzea eta beraren ekarpena nabarmentzea.
- b) Etapaz etapa egin duen ekarpen sozialaren balioa aitortzea.
- c) GEHSak Bizkaian izan duen bilakaeraren atzerako ikuspegi bat izatea, trantsizio demokratikoaz geroztik, bere oraingo egoerari buruz ditugun datu kuantitatiboak osatzeko.³
- d) Historian agertzen diren eta etorkizunerako esanguratsuak diren gakoak identifikatzea, beren garrantziagatik belaunaldi berriei eta gizarte eragileei helarazi behar baitzaizkie.

Helburu horiei erantzun nahi izan die lan honek; horri begira:

- Elkarriketa sakonak egin ditugu⁴ eta bideo bat grabatu dugu⁵, elkarriketaren osatean, funtsezko gai batzuen inguruan, parte hartu duen erakunde bakoitzarekin.

Elkarriketak erakundearen pertsona bat, bi edo hiturekin egin ziren. Pertsona hori/horiek erakundeak aukeratu zuen/zituen, guztien artean edo bakoitzak bere aldetik erakundearen eta sektorearen ibilbideari buruzko ikuspegia zutela bermatuta.

Funtsezko puntuak bideoan jaso ziren, elkarriketaren amaieran, eta bi galdera konkreturi erantzuten diete. *Zein izan da eta bada, zure ustez, erakundearen ekarpen soziala?; zure iritziz, zein dira erakundearen ibilbidea itxuratu duten eta etorkizunerako -beren garrantziagatik- iraunarazi behar diren gakoak?*

- Horren ostean:
 - a) Bideoak editatu ziren eta elkarriketen transkripzioa egin zen; gero, transkripzioa elkarriketatutako pertsonen bidali zitzairen, beren berrikuspenerako.

Zuzenketa egin ostean, elkarriketetan jasotako informazioa sistematizatu zen eta “hausnarketarako funtsezko gakoak” izeneko txosten zabal

³ Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria (2007), Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urteakaria (2010) eta Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Diagnostika (2010). Aurrerantzean, eta lan honetan jorratzen dugunari begira, “sektoreaz” hitz egiten dugunean Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektoreaz edo Hirugarren Sektore Sozialaz hitz egiten dugula hartu beharko da kontuan.

⁴ Elkarriketaren gidoia eranskinean kontsulta daiteke.

⁵ Bideoak esteka honetan ikus daitezke: www.youtube.com/OTSBizkaia

batean bildu zen. Hori egindakoan, txosten hori parte hartu zuten erakundeei bidali zitzaien.

- b) Horren ostean, lehenengo tailerra dinamizatu zen elkarriketetan ⁶ parte hartu zuten erakundeekin; horren asmoa zen aztergai izandako alderdiak adostea eta Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen deskribapenean sakontzea, gai garrantzitsuenak bereziki landuz: erakundearen ekarpen soziala, bere historiako etapak eta etorkizunerako gakoak.

Tailer horretan, elkarriketen sistematizazioa aurkeztu zen, jasotako ekarpenak laburbiltzen zituzten panelen bitartez.

Gainera, parte hartu pertsonak aukera izan zuten gako interesgarrienei buruz hausnartzeko eta Hirugarren Sektorearen historiaren azterketak barne hartuko beharko zituen ideia nagusiak hierarkizatzen.

- Lehenengo tailer hori egin ostean, eta bertan egindako ekarpenekin, behin betiko txostenaren zirriborroa prestatu zen.

Txostena elkarriketetan parte hartu zuten erakundeei bidali zitzaien eta bigarren tailer bat dinamizatu zen, dokumentuari egin nahi zizkieten ekarpenak jasotzeko eta dokumentua balidatzeko.

Bigarren tailer horretan, gainera, egindako lanaren hedapenerako orientabideak ezarri ziren, zenbait alternatiba aztertuz (argitalpena, bideoa, erakusketa...).

Azken batean, horrekin guztiarekin nahi izan duguna izan da Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen historiari buruzko **kontakizun konpartitu bat eraiki, modu kolektiboan**, batez ere trantsizioaz geroztik, historia horren protagonisten ikuspegitik.

⁶ Tailer horretan, elkarriketatuko pertsonak parte hartu zezaketen, eta baita erakundearen zuzendaritza edo kudeaketa taldeko pertsona batek ere, baldin eta elkarriketatuko pertsonen artean ez bazegoen talde horietako partaiderik.

PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK



Proiektuan parte hartu duten erakundeak eta sareak 14 izan dira.

Horiek guztiak hasieran definitutako profila betetzen dute. Beraz, irabazi-asmo-rik gabeko erakundeak dira, ezaugarri hauek dituztenak:

- beren jarduera gizarte zerbitzuen alorrean garatzen dute - eta agian bes-teren batean ere- eta gutxienez 25 urtez aritu dira zeregin horretan;
- Bizkaiko gizartetik sortu dira eta Bizkaian jarduten dute (Bizkaiko herri-tarren ekimen solidarioaren adierazpen antolatuak dira, eta Bizkian bizi diren pertsonengana zuzentzen dira).⁷

Deialdia egin zen unean, Bizkaiko hirugarren sektorearen Direktorioan guztira zeuden eta irizpide horiek betetzen zituzten erakunde edo sareak 32 ziren guz-tira, gizarte ekintzaren eremuan.

Beste alde batetik, saiatu gara askotariko eremuetako erakundeak ordezkatuta egotea (mendetasuna, desgaitasunak, bazterketa eta babesgabetasuna), hala elizaren eremukoak (6 erakunde) nola eremu zibilekoak (8 erakunde).

Izaera zibileko ekimenen protagonistak hauexek dira: a) ukitutako pertsonen eta beren senideen talde bat; b) edo kolektibo profesional eta/edo boluntario bat, komunitate edo lurralde bati atxikia, edo hirugarren pertsonengan eragina duten egoerekin sentsibilizatua (lan egiteko aukerarik gabekoak, presoak...).

Eliza-izaerakoak kongregazio erlijiosoen eta/edo Bizkaiko Elizaren parrokia-ko-munitateek bultzatuak dira, eta normalean erakunde irekiak izaten dira, hau da, kristau komunitatearekin lotuta ez dauden pertsonak ere kolaboratzen dute eu-rekin.

⁷ Ez dira kontuan hartu beren egoitza eta jarduera Bizkaian kokatuta izan arren bizkaitar gizartetik sortu ez diren erakundeak, ezta jatorriz bertan sortu arren Bizkaian jarduten ez dutenak. Ezta beste erakunde batzuetatik sortutako erakundeak ere, euren berek ibilbidearen irizpidea betetzen ez badute.

ERAKUNDEA EDO SAREA	EREMUA ⁸	EKIMENA	PARTE-HARTZAILEAK
1. LARES-Euskadi.	Mendetasuna	Zibila eta elizarena	Manuel Merino eta Sergio Villa.
2. Fekoor.	Desgaitasunak	Zibila	Juan Carlos Sola.
3. Sartu Federazioa.	Bazterketa	Zibila	Nando Consuegra.
4. Gazteleku komunitatearen garapenerako elkarte.	Desgaitasunak	Zibila	Miguel Angel Gómez eta Arantza Gutierrez.
5. Gorabide Elkarte.	Desgaitasunak	Zibila	Pablo González.
6. Bizitegi Elkarte.	Bazterketa	Zibila eta elizarena	Pablo Ruiz, Ricardo Oficialdegi eta Felix Oronoz.
7. Agintzari, gizarte ekimeneko kooperatiba.	Desgaitasunak	Zibila	Josu Gago eta Lander Arteta
8. Salhaketa.	Bazterketa	Zibila	César Manzanos.
9. Bilboko Elizbarrutiaren Cáritas.	Bazterketa	Elizarena	Mikel Ruiz.
10. EDE Fundazioa.	Sustapen erakundea (ez zuzeneko ekintzakoa)	Elizarena	José Puyo eta José Alberto Vicente.
11. San Jose Artesano Zabaloetxe, gazteen integrazioarako elkarte	Desgaitasunak	Elizarena	Carlos Sagardoy eta Jose Antonio Fernández.
12. Stella Maris.	Desgaitasunak	Elizarena	Marta Giraud eta Mónica Cerezo.
13. Apnabi.	Desgaitasunak	Zibila	Natxo Ruiz, Eguzkiñe Etxabe eta Emilio Arizaga.
14. Avifes.	Desgaitasunak	Zibila	Itziar Ceballos eta Felisa Herrera.

Jarraian, egindako lanaren konklusioak aurkeztuko ditugu, kontuan hartuta zein diren ardatz nagusiak: erakundeen ekarpen sozial historikoa eta oraingoa, erakundeen eboluzioa eta etorkizunean iraunarazi behar diren gakoak.

Lehenik, erakundeen **jatorria** deskribatuko dugu, eta bigarrenik beren **hasieran izandako funtzionamendua**.

⁸ Se trata del ámbito en el que la entidad desarrolla la totalidad de su actividad o en el que se centra. En ocasiones, las entidades desarrollan su actividad en más de un ámbito.

Hori egin ondoren, hauxe identifikatuko dugu:

- urtez urte erakundeetan **egonkor** mantendu diren **alderdiak, eta**, bestetik, **eraldatu direnak edo eraldatu beharko liratekeenak**;
- beren ibilbidean erakundeentzat esanguratsuak izan diren **testuinguruko elementuak** (testuinguru soziala, instituzionala...), eta, horiei lotuta, beren historiako **mugarriak** eta **etapak**;
- erakundeen historian aurkitzen ditugun eta beren garrantziagatik etorkizunean iraunarazi behar diren **gakoak**.

Bukatzeko, erakundeen **ekarpen sozialaren** sistematizazioa aurkeztuko dugu.

1. **Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen erakundeen jatorria⁹**

Erakundeen jatorrian beti aurkitzen dugu gizarteratzearekin zerikusia duten behar konkretuei modu antolatatu eta solidarioan erantzuteko borondatea.

Erakundeen jatorrian, pertsonen kolektibo baten borondatea aurkitzen dugu beti: bazterketa, babesgabetasun, mendetasun edo arrisku egoerak pairatzen dituzten pertsona, familia, talde eta komunitateen inklusio sozialarekin zerikusia duten behar konkretuei modu antolatuan eta solidarioan erantzuteko borondatea.

Erakundeak, edo haien aurreko ekimen informalak, pertsona talde baten lankidetzatik sortzen dira beti; izan ere, pertsona horiek modu altruista eta solidarioan konprometitzen dira, arazo edo behar konkretu bati erantzuteko.

Ekimen horiek ukitutako pertsonen eta familiek bultzatzen dituzte batzuetan, eta normalean haien parte-hartzea inplikatzeko dute. Hirugarren pertsonen hartutako konpromiso solidario baten emaitza dira, eta konpromiso horrek esan nahi du konprometitzen diren pertsonen beren denbora, gaitasun eta baliabideen zati bat jartzen dutela erakundearen esku.

Beste batzuetan, pertsona konkretuak dira, beren sentsibilizazioagatik edo profil profesionalagatik kausa jakin batzuekin konprometitzen direnak eta kolektibo jakin batzuen beharrari erantzun nahi dieten ekimenak abiatzen dituztenak.

Erakunde gehienak boluntarioen erakundeak ziren, eta horrela izaten jarraitzen dute.

Orientazio eraldatzaileak duten erakundeak dira, eta orientazio hori zerbitzuen prestazioa eta eragina izateko jarduerak uztartuz bideratzen dute.

Eta arreta berezia zuzendu die, betiere, zailtasun handienak pairatzen dituztenei.

GEHSaren erakunde gehienak, beren jatorrian, boluntarioz soilik edo gehienbat boluntarioz osatutako erakundeak ziren, eta gaur egun horrela jarraitzen dute izaten. Boluntarioak eta elkarrenganako laguntza funtsezko dimentsioak dira erakunde askorentzat. Eta erakundeen baitan profesional gisa lan egiteak ere dimentsio solidarioa eta bokaziozkoa izan ohi du.

Bestalde, beren sorreratik beretik, erakundeek bi ildo uztartzen dituzte: alde batetik, pertsonen behar konkretu eta berehalakoei erantzutea; bestetik, pertsonen eskubideak sustatzera eta horien erabilera errealerako aukerak sortzera zuzendutako ekintzak gauzatzea, zerbitzuak eskaintzearen bidez eta eragina izateko jardueren bidez: sentsibilizazioa; salaketa; interlokuzioa administrazio publikoekin; arauak lantzeko prozesuetan parte hartzea...

Kontua da elkartasuna eta justizia erakundeen jardunaren bi funtsezko zutabe direla. Batak bestea exijitzen du.

9 Lan honetan, trantsizio demokratikoaren mugarrak aukeratu dugu kontakizun konpartituaren eraikuntzaren erreferentziatzat; dena dela, ibilbide luzeagoko erakundeen ikuspegia ere txertatu dugu kontakizunean.

Beraz, erakundeen jatorriaz hitz egiterakoan, hizpide dugun testuinguruaren ezaugarriak dira prekarietate ekonomikoa, parte-hartze soziala (boluntarioek eta elkarrenganako laguntzak pisu handia dute, soldatiko pertsonalaren aurrean) eta ardura publikoaren garapen eskasa; garai horretan, politika sozial aurreratuen garapenaren eta ongizate sistemaren oinarriak jartzen ari ziren.

Horregatik, beren sorreratik beretik, erakundeek sustatu eta bideratu dituzte bai pertsona eta familien konpromiso solidarioa eta bai erantzukizun publikoa. Iza-tez, denborarekin erantzukizun publikoko katalogoetan sartu diren zerbitzu sozial gehienak bete izan dituzte.

Beste alde batetik, beren jardunean, erakundeek arreta berezia zuzendu diete beti zailtasun handienak pairatzen dituztenei.

Eta ibilbide historiko luzeagoa duten erakundeek ikuspegi prebentibo eta sustatzailea hartu dute geroago, gero eta neurri handiagoan, jatorrizko erakunde-
deen kulturaren eta haien testuinguru kulturalaren berezko ikuspegi asistentzialistak gaindituz.

Hala, 70eko hamarkada eta trantsizio demokratikoa funtsezkoak dira ikuspegiaren aldaketa horretarako, alegia, ongintzaren ikuspegitik eta “ongilearen” protagonismotik gizarte zibilaren parte-hartze antolatuaren ikuspegira pasatzeko, behar sozialei eta desberdintasunari erantzuteari begira.

Horiek guztiak dira erakundeen jatorrian aurkitzen ditugun gakoak, eta, GEHSA-ren erakundeak garen aldetik, funtsezkoa da etorkizunean ere mantentzea, *“antzeko bidaia egin nahi dugulako eta elkarrekin egin nahi dugulako”*.

1.1. ERAKUNDEAK (edo ekimenak) SORTZEKO ARRAZOIAK

Batzuetan, ekimenak sortzen dira aurrena, maila informalean, eta geroago zerbitzuak formalizatzen dira eta/edo erakundeak eratzen dira: elkarteak, fundazioak,...

Erakundeak arrazoi berberetatik eratzen dira beti: beharrezkoa da taldeak eratzea eta antolatzea lurralde jakin bati (auzoa, udalerria, eskualdea, lurralde historikoa) lotutako pertsona eta familien egoera konkretuentzako (beharrak, arazoak...) erantzunak eskaini edo sortzeko, dela erantzun propioak dela hirugarrenenak.

Horrenbestez, erakundeak sortzen dira egoera horiei erantzuten laguntzeko, jarduerak gauzatzearen eta zerbitzuak eta/edo zentroak sortzearen bidez, eta, aldi berean, sentsibilizatuz, salatuz eta eskubideen aitortza erreala sustatuz.

Hala, erakundeak sortzera daramaten arrazoi nagusiak hauexek dira:

- Modu espontaneoan aurretik abiatuta zeuden jarduerak formalizatzea.
- Pertsonak biltzea eta antolatzea, kolektibo baten beharrentzako erantzunak eskaintzeko eta sortzeko, lurralde baten baitan.
- Bete gabe dauden beharrei eta/edo eskariei erantzuten laguntzea, zerbitzuak eta/edo zentroak sortzearen bidez.
- Sentsibilizatzea, salatzea eta eskubideak sustatzea.

“Bete gabeko beharrez konturatzea, eskubidearen kontzientzia hartzearen hazi edo aurretiko fase bezala, eta sumatzea behar horiei hobeto erantzuten zaiela elkarlanean” (GORABIDE).

Jarraian, arrazoi horietako bakoitza deskribatuko dugu, Bizkaiko GEHSaren erakundeek ekarpena, identitatea eta ikuspegia zehaztea ahalbidetzen diguten funtsezko alderdi batzuk azpimarratuz.

- 1- Modu “espontaneoan” **aurretik abiatutako jarduerak formalizatzea**. Jarraian horiek elkarrenganako laguntzaren eta boluntariotzaren bidez abiatu ziren, behar, gertaera edo egoera konkretuei erantzuteko.

Ekimenen formalizazioa (zerbitzuak abiatzea, edo elkarteak, fundazioak, gizarte ekimeneko kooperatibak eta gisa berekoak eratzea):

- Batzuetan, hasieratik beretik gertatzen da. Beste kasu askotan, berriz, formalizazioa poliki-poliki egiten da, hasierako ekintza espontaneoek ostean.
- Helburu batzuk lotzera zuzentzen da: ahaleginak koordinatzea, administrazioaren betekizun edo eskakizunetara egokitzea (administrazioak ekimenen formalizazioa eskatzen du, lankidetzaz ezartzeko), ekimena indartzea (esku-hartzea gauzatzeko baldintzak hobetzea, boluntarioak antolatzeko, zerbitzuak profesionalizatzea,...), eta abar.

Gizarte ekimenetik sortzen diren esku-hartzeen ezaugarri bat da bazirela ekimenak zerbitzuak formalizatu baino lehen, edo erakundeak berak sortu baino lehen.

Ekimenak zerbitzuen formalizazioaren aurretik existitzea -edo erakundeak berak eratu baino lehen existitzea- “gizarte ekimenetik” sortzen diren esku-hartzeen ezaugarri bat da (batez ere elkarteek kasuan)¹⁰ eta hirugarren sektorearen ekintza bereizten du beste eragile batzuen ekintzatik (administrazio publikoak, enpresak, eta abar).

- 2- **Taldean biltzea eta antolatzea, kolektibo baten beharrentzako erantzunak eskaini eta sortzeko, lurralde baten baitan.**

- Ekimenak salatu eta konpondu nahi ziren gertaeretatik abiatu dira, edo, sarriagotan, kolektibo jakin bat lurralde batean ukitzen duten egoera konkretuen eraginez (beharrak, arazoak...).

Gertaera edo egoera horiek kolektiboak berak hauteman zituen (adibidez: desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familiek) eta/edo hirugarren pertsonen (adibidez: babesgabekotasun egoeran dauden adingabeen edo presoek errealitatearekin sentsibilizatzeko pertsona talde batek...), taldean biltzea eta antolatzea erabaki baitzuten, alternatibak sortzeko.

Abiapuntua zeinahi delarik ere, eta ekimenaren eragilea zeinahi delarik ere, asmoa berbera izan da beti, alegia: alternatiba konkretuak bilatzea pertsona eta familia konkretuengan eta antzeko egoerak pairatu ditzaketen pertsonengan eragina duten egoerentzat, lurralde jakin baten baitan.

¹⁰ Fundazioen kasuan, ekimenak “kausa” jakin batera bideratu nahi diren baliabideen eskuragarritasunetik ere sor daitezke. Horrelakoetan, aurreko fundazioa eratuko da, eta hurrena ekimen konkretuak abiatuko dira.

Pertsona eta familia horiek badute aurpegia, eta baita ahotsa ere, eta modu batean edo bestean, intentsitate handiagoz edo txikiagoz, eragina izaten dute erakundearen ekimenetan eta parte hartzen dute ekimen horien orientazioan, burutzapenean eta ebaluazioan. Zenbait kasutan, gainera, “ukitutako” pertsonak eta beren familiek -edo “komunitate” edo auzo jakin batean bizi diren edo berarekin lotzen diren pertsona eta familiek- gidatutako ekimenak izaten dira, eta pertsona edo familia horiek izaten dira gobernu organoen partaideak

Erakunde batzuk kolektibo konkretu bati erantzuteko xedez sortzen dira, antzeko kolektiboetatik bereiziz eta beraren espezifikotasuna identifikatuz.

- Egoera eta gertaera konkretuei hasieran ematen zaien erantzunetik abiatuta, normalean gertatzen dena da erakundeak saiatzen direla erantzun gero eta “oro-korragoak” ematen pertsona eta familien beharrei (gizarte zerbitzuen eremutik harago joanez), eta baita haien eboluzioari ere; era horretan, arreta integrala eta -beharrezkoa denean- iraunkorra eskaintzen saiatzen dira (batzuetan, bizitza osoan).

Denboraren joanarekin, *arreta integral eta iraunkorra erakunde askoren ezaugarri bilakatu da.*

Hori desgaitasunen eremuan gertatu da gehienbat, baina beste eremu batzuetan ere bai; bertan, erakundeek dimentsio hori (arreta integral eta iraunkorra) garatu dute, arretaren beste eremu eta sistema batzuekin kolaboratuz (hezkuntza, osasuna...), edo pertsonari lagunduz hasieran aurreikusitako denbora-tartetik harago.

Babesgabetasunaren eremuko adibide batzuk hauexek izango lirateke: gizar-tearen eta hezkuntzaren eremuan esku hartzeko proiektuak konbinatzea enplegurako trebakuntza proiektuekin; edo babes sarearen zentroetan sartuta egon diren gazteei laguntzea beren emantzipazio prozesuan.

Bazterketaren eremuan ere gauza bera planteatu daiteke, pairatzen duten egoeratik akonpainamendu integral eta iraunkorra -neurri handiagoan edo txikiagoan- behar duten pertsonen kasuan (adibidez: bazterketa egoeran dauden pertsonak, sostengu egonkorra eta alternatibak -bizilekua, jarduera, aisialdia...- behar dituztenak). Edo adineko pertsonari egoitzetan ematen zaien arretaren eremuan; adibidez: adineko pertsonarekin eta beraren familiarekin egoteko prozesu bat -akonpainamendua- hasten bada, aldi baterako egonaldia aurreneko aldiz erabiltzen dutenetik aurrera.

- 3- **Bete gabe dauden behar eta/edo eskariei erantzuten laguntzea, zerbitzuak eta/edo zentroak sortuz** (baliabide eta ekipamendu asistentzialak, prestakuntzakoak, hezkuntzakoak, lanekoak, eta abar), **aukera gutxien dituztenen alde eginez eta sustapena eta prebentzioa gero eta gehiago azpimarratuz, ikuspegi moduan.**

- *Erakunde bakoitzaren hasieratik edo lehenengo etapetatik, zerbitzuak eta/edo zentroak sortzen dira, bete gabe dauden behar eta/edo eskariei erantzuteko.*

Erakundeak saiatu dira gero eta erantzun globalagoak eskaintzen beharrei eta haien bilakaerari, arreta integrala eta -beharrezkoa denean- iraunkorra bilatuz.

Zerbitzuen prestazioa da erakundeen misioa osatzen duten eginkizunetako bat, haien sorreratik beretik.

Garrantzitsua da azpimarratzea, beraz, zerbitzuen prestazioa dela GEHSaren erakundeen misioaren eginkizun nagusietako bat, hasieratik beretik.

Egoeren kausak aldatzen saiatzeaz batera, GEHSaren erakundeak pertsona, familia, talde eta komunitateen berehalako beharrei erantzuten saiatu izan dira beti.

Erakundeak ekintzara orientatzen dira bereziki, hau da, lehentasuna da beren jardunaren xede diren pertsona, familia, talde eta komunitateen beharrei erantzutea.

Eta, neurri batean, ekintza eraldatzailea bera “erantzuna emateko” ekintza horrekin dago lotuta, bere testuinguruan: zerbitzu gutxi daude eta erantzukizun publikoa ez dago oraindik ere garatuta.

Historikoki prestazioak eta zerbitzuak abiatzen lagundu izana, eta erantzukizun publikoko prestazio eta zerbitzutzat aitortzen lagundu izana, ekintza eraldatzaile garrantzitsu bat da berez.

Erakundeek kudeatzen dituzten alternatiben proposamena eta kudeaketa dira erantzukizun publikoaren jatorria; gainera, alor horretan eta beste alor batzuetan, salaketa eta eskubideen sustapena ekarri dituzte berekin. Halaber, sarri askotan, bestelako esku-hartze eredu bat (desinstituzionalizazioa, esku-hartze komunitarioa, ikuspegi sustatzailea...) posible zela erakutsi dute modu ezin hobean.

Prestazioak eta zerbitzuak abiatzen eta finkatzen historikoki lagundu izana, eta erantzukizun publikoko prestazio eta zerbitzutzat aitortzen lagundu izana, ekintza eraldatzaile garrantzitsua da berez.

Edonola ere, zerbitzuen prestazioaren eta erakundeen beste eginkizun sozial batzuen arteko oreka zaintzea GEHSaren erakundeen identitatearen berezko erronketako bat da. Eta oreka horren bilaketak presentzia izan du beraren historia osoan.

Zerbitzuen prestazioa ez da, bera bakarrik, GEHSaren erakundeen berezko elementu bat, ez badago lotuta beste eginkizun batzuekin (sentsibilizazioa, salaketa, eskubideen sustapena, boluntariotzaren eta elkarrenganako laguntzaren egituraketa) eta balio jakin batzuekin (hala nola, lotura solidarioa ekintzaren xede diren pertsona, familia, talde eta komunitateekin).

- *Arreta berezia eskaintzen zaie aukera gutxien dituztenei eta bestelako alternatibarik ez dutenei.*

Alderdi hori ere konstante bat da GEHSaren erakunde askotan, zeren eta, hasieratik beretik, sentikortasun berezia erakutsi baitute egoera zailagoak pairatzen dituzten pertsonen aurrean, haiengana hurbiltzen saiatuz eta baliabideetara iristen lagunduz.

Horri dagokionez, erakundeen kezka nagusietako bat da zerbitzu eta zentrozen gaineko erantzukizun publikoak kanpo utz ditzakeela orain arte

atenditzen ziren pertsona batzuk, administrazioak ezartzen dituen betekizun edo estandarrak betetzen ez dituztelako.

- *Asistentzialismoa gainditzeko ari da, arian-arian, eta horren ordean ikuspegi sustatzaile eta prebentiboa gailentzen ari da:*
 - *“ikuspegi sustatzailea”, pertsonen gaitasun, jarrera eta balioen garapena lehenesten duena, bizi-kaliterako eta gizarte inklusiora orientatua, ahalik eta autonomiarik handienarekin; ildo horretatik, beraren esku-hartzeak gero eta terapeutikoagoak dira, errehabilitazioa bilatzen dute, prestakuntza, hezkuntza, jarduerak, lana eta gisa bereko alderdiak bultzatuz...*
 - *eta “ikuspegi prebentiboa”, beraren esku-hartze eta proiektuetan islatzen den bezala: detekzio eta arreta goiztiarra; arrisku egoeretan esku hartzea; esku-hartze komunitarioa, eta abar.*

Ikuspegi hauek gero eta indar handiagoa hartu dute, eremu batzuetan beste batzuetan baino lehenago, baina eremu guztietan garatu egin dira, bai zerbitzuetan eta bai zentroetan.

Azken 25 urteotako ibilbideak desinstituzionalizazioa ekarri du eta asistentzialismoa gainditzera eraman du, gero eta neurri handiagoan, arretaren testuinguru guztietan eta kolektibo hartzaile guztiekin (erakundeek jardunaren xede diren kolektiboak): adingabeak, desgaitasunak dituzten pertsonak, adineko pertsonak, buru-gaixotasunak dituzten pertsonak, eta abar.

Desinstituzionalizazioa eta ikuspegi prebentibo eta sustatzailearen garapena konpartitutako ibilbide bat da, eta etorkizunean ere beharrezkoa hortik aurrera egiten jarraitzea.

Beste alde batetik, norabide horretan aurrera egin bada ere, bide hori ibili beharrezkoa da oraindik ere.

4- Sentsibilizatzea, salatzea eta eskubideak sustatzea.

- Zerbitzuen prestazioarekin eta behar konkretuetara zuzendutako berehalako arretarekin batera, GEHSaren erakundeek sentsibilizaziorako, salaketarako eta eskubideen sustapenerako ekintzak ere gauzatu dituzte hasieratik beretik, *“errealitate sozialari begiratuz, sistema sozialean txarto dagoena, kirrinka egiten duena eta bidezkoa ez dena detektatuz”*.

Izatez, erakundeek jatorrian, zerbitzuen prestazioa eta eragina izatera zuzendutako ekintzak (sentsibilizazioa, salaketa, interlokuzioa, prozesu arautzaileetan parte hartzea...) elkarrekin lotutako bi eginkizun izan dira, kasu askotan.

Adibidez, trantsizioaren garaian, jarrera sozial eta politiko irekien ondoan, oso planteamendu atzerakoiak zeuden egoera zailean zeuden adingabeei buruzko ikuspegian: hala, *“egoera horiei erantzun jakin batzuk ematea kuestionamendu eta salaketa ekintza bat izan zen, berez”*.

Erakundeek ekarpena lagungarria izan da -eta izaten jarraitzen du- erantzukizun publikoaren zabalkuntza eta garapenerako, funtsezko eskubideen sorrerarako eta haien erabilera errealerako.

Era horretan, normalean, erakunde edo ekimenen abiapuntua egoera jakin bat (beharra, gabezia, arazoa...) bistaratzea izaten da, eta horri lotuta:

- alternatibak sortzen dituzte (sortu eta batzuetan kudeatu ere egiten dituzte) aurkitzen duten errealitatearen aurrean;
- errealitate horri lotutako egoera eta gertaera konkretuak salatzen dituzte;
- eskubideak sustatzen dituzte, horien aldeko arauak egitera bultzatuz (legeak, dekretuak...), eta eskubideen erabilera bermatzen saiatzen dira, sortutako baliabideen bitartez, haien aitortza lortu aurretik ere.

Horri dagokionez, *garrantzitsua da azpimarratzea GEHSaren erakundeak lagungarriak izan direla -eta izaten jarraitzen dutela- erantzukizun publikoaren hazkunde eta garapenerako, funtsezko eskubideen sorrerarako -konstituzioan eta autonomia estatutuan jasoak- eta haien erabilera errealerako.*

Eta, esan berri dugun bezala, zerbitzuen prestazioak berak *badu dimentsio eraldatzailea ere*, baldin eta, adibidez, ikuspegi sustatzailez gauzatzen bada edo lagungarria bada eskubideen garapen eta erabilerarako.

Hala, erantzukizun publikoa oraindik ere garatu ez denean, edo aitortu ere egin ez denean, administrazioa gero eta gehiago inplikatzeko duten alternatiben sorrera eraldaketa sozialaren eta eskubideen sustapenaren tresna nagusietako bat da.

Izatez, arauak (legeak, dekretuak,...) geroago egin ohi dira eta, neurri handi batean, administrazioek erantzukizuna gero eta neurri handiagoan bereganatzeko prozesu horren ondorioz. Prozesu horretan, erakundeek berek ere parte hartzen dute, modu proaktiboan, arauen garapenari lagunduz.

1.2. ERAKUNDEA HASIERAN ABIATU ETA OSATZEN DUTEN ERAGILEAK

Ekimenen hasieran aurkitu ditzakegun eta lehenengo etapa horretan erakundeak osatzen dituzten eragileen artean, honako hauek azpimarratu ditzakegu:

- 1- Beren beharrei eta egoera berean dauden hirugarren pertsonen beharrei erantzuteko elkartzen diren pertsonak.**
 - Desgaitasunak dituzten pertsonak, hala nola, desgaitasun fisiko edo sensoriala dutenak; edo gaixotasunen batek jota dauden pertsonak.
 - *Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonak eta familiak; adibidez: desgaitasun intelektuala duten pertsonak eta beren familiak, edo buru-gaixotasuna duten pertsonak eta beren familiak.*
- 2- Hirugarren pertsonen beharrei erantzuteko elkartzen diren pertsona edo erakundeak.**
 - *Elizaren erakundeak:* kongregazio erlijiosoa, Caritas eta Elizbarrutiaren beste erakunde batzuk.

- *Esku-hartzearen eremu eta ikuspegi baten inguruan biltzen diren erakundeak* (esku-hartze soziolaborala, hezkuntza-aisialdia...).
- *Pertsona karismatikoak, ekimen bat gidatzen dutenak kezka berbera duten eta ekimena abiatzeko eta garatzeko lanean kolaboratzen duten beste pertsona batzuekin.*
- Beste pertsona batzuen egoeraren inguruko kezka konpartitu, gabeziak identifikatu eta ekimenak abiatzen dituzten pertsonak.
- *Estatus sozioekonomikoa duten pertsonak, errealitate baen inguruan sentsibilizatuta daudenak.*

3- Ekimen mistoak, ukitutako pertsonak eta hirugarren pertsonen beharrei erantzun nahi dieten pertsona edo erakundeek osatuak eta bultzatuak.

- *Komunitate batekin (auzo batekin) lotutako pertsona eta erakundeak:* erakundeak (kongregazio erlijiosoak ...), auzokide konprometituak, urrakortasun edo bazterketa egoeran dauden pertsonak, eta abar.
- *Arazo edo egoera jakin bat (adibidez: espetxean egotea) konpartitu duten eta errealitate horri erantzun nahi dioten pertsonak, eta ekimenari geroago atxikitzen zaizkion pertsonak eta erakundeak.*

Ikus daitekeenez, ekimen eta erakundeen hasierako bultzatzaile edo eragileak mota askotakoak dira, eta ez dira beti izaten hirugarren pertsonen aldeko jarduerak boluntarioen bat garatzen duten pertsonak.

Ekimenen liderrak ukitutako pertsonak izan daitezke, edo kolektibo baten egoerarekin sentsibilizatutako pertsona profesionalak, esku-hartze konkretu bat bultzatu nahi dutenak, eta abar. Eta badira erakundeak, beren izaeragatik eta/edo jardueragatik soldatako pertsonala eskatzen dutenak gehienbat.

Edonola ere, “ekintzaile sozialak” dira, gauzak eraldatzeko kezka dutenak -berrehalako beharrak asetzetik harago doan kezka- eta konprometituta daudenak lagundu nahi duten pertsona eta komunitatearekin.

Gainera, gizarte ekimeneko erakunde askok boluntarioengan, elkarrenganako laguntzan eta erakundean parte hartzen zutenen baliabideetan oinarritzen zuten beren jardunaren zati handi bat, gutxienez hasieran; izan ere, pertsona horiek beren denbora eta beren dirua eskaintzen zuten, eta baita beren etxebizitzak ere, erakundearen egoitza bezala eta/edo maileguak eskuratzeko abal bezala.

Azken urteotan, eragile edo kolektibo bakoitzaren pisua (ukitutako pertsonak, senideak eta beste laguntzaile boluntario batzuk, soldatako pertsonala...) aldatuz joan da, bat baino gehiago duten erakundeetan.

Hala, dagoen inpresioa da boluntariotzak eta elkarrenganako laguntzak pisu handiagoa zutela hasieran orain baino, eta hori ukitutako pertsonen erakundeetan ere gertatzen dela. Izan ere, denboraren joanarekin, soldatako pertsonalak gero eta pisu handiagoa hartu du erakundeen esku-hartzean eta kudeaketan; kasu askotan, dena dela, pertsona horiek boluntario gisa aritu izan dira iraganean, bokazio-ikuspegiarekin.

Soldatako pertsonalaren eta kudeaketa taldeen pisua hazi egin da erakunde batzuetan. Dena dela, boluntarioek funtsezko atala jarraitzen dute izaten erakunde gehienentzat.

Ilido beretik, erakundeen gobernu eta kudeaketari dagokienez, badirudi kudeaketa taldeek pisu handiagoa hartu dutela gobernu organoen aldean (batzordeak), eta azken horiek ere gora egin dutela “profesionaltasun” eta operatibotasun aldetik.

Dena dela, beste mugimendu batzuk ere gertatu dira; adibidez: pertsona hartzaileak pasatu dira boluntarioen ekintzaren hartzaile izatetik erakundearen jardunaren subjektu izatera (adibidez: desgaitasun fisikoa duten pertsonen erakundeetan).

Azken batean, gizarte ekimena ez da boluntarioen kontua soilik; izan ere, badira boluntariorik gabe funtzionatzen duten gizarte ekimeneko erakundeak (gobernu-karguak borondatez betetzeari dagokionez izan ezik).

Nolanahi ere, dimentsio kuantitatibotik harago (pertsona boluntarioen kopurua eta proportzioa, erakunde bakoitzean), GEHSaren erakundeentzat garrantzitsua da boluntarioak eta haien kultura iraunaraztea eta zaintzea, haien parte-hartzea bultzatuz bai erakundeen esku-hartzean eta bai haien gobernuan.

Izatez, aipatu dugun bezala, boluntarioek funtsezko atala jarraitzen dute izaten erakunde gehienentzat. Eta erakunde ugari boluntarioak ziren eta izaten jarraitzen dute eraketa aldetik: “*boluntarioen erakundeak*” edo “*boluntarioak dituzten erakundeak*”, hau da, gehienbat edo osorik pertsona boluntarioz osatuak daude (bazkideak, zuzendaritzako kideak, laguntzaileak...).

1.3. PERTSONAK ERAKUNDEAREKIN LOTZERA ETA LOTURA HORI GERO MANTENTZERA BULTZATZEN DITUZTEN ARRAZOIAK

Pertsonak erakundeekin lotzera bultzatzen dituzten arrazoiak asko eta askotariokoak dira, eta denborarekin eboluzionatzen dute, eraldatuz eta aberastuz.

Pertsonak erakundeekin lotzera eta lotura hori mantentzera bultzatzen dituzten arrazoi batzuk, erakundeek berek eta elkarriketatutako pertsonak adierazi duten bezala, honako hauek dira:

- 1- Beste pertsona batzuekin konpartitutako egoera baten eraginpean egotea -ukituta egotea-, zuzenean edo zeharka.** Eta, zehazki:
 - Egoera horretatik ondorioztatzen diren **behar konpartituak** eta behar horiei erantzuteko baliabiderik ez izatea; eta, horrekin batera, alternatibak sortzeko borondatea, elkarrenganako laguntza eskaintzea eta ukitutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.
 - Eta ukituta dauden beste pertsona batzuekin (**bizipenak...**) konpartitzeko **beharra**.
- 2- Hirugarren pertsonengatik interesatzea,** (haurrak, gazteak, desgaitasunak dituzten pertsonak, auzo bateko bizilagunak...), beren beharrei erantzuteagatik, alternatibak sortzeagatik eta haien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeagatik, erantzunetan modu aktiboan parte hartuz.

- 3- **Egoera txarragoan dauden pertsonen aldeko sentsibiltatea eta orientazio solidarioa.**
- 4- **Elkartzeak dakarren balio erantsiaz konturatzea.**
- 5- **Zerbait eraldatzeko borondatea: egoera edo gertaera konkretu bat, instituzio bat, auzo bat, arreta eredu bat edo gizartea** (gizarte eredu konkretu bat, balio eta jokabide pertsonal eta instituzionalak, eta abar), eta **eskubideen aitortza.**
- 6- **Pertsonen arteko harremana**, pertsonen arteko harreman egokiak, hurbilak ezartzea... gurekin lan egiten duten pertsonekin eta gure lanaren hartzaile diren pertsonekin. Gainera, gure lanaren xede diren pertsonen aldetik jasotzen diren aitortza eta esker ona faktore esanguratsuak izaten dira ekintza boluntarioa garatzen jarraitzeko.
- 7- **Pertsona karismatiko bat (edo pertsona talde bat)**, erreferente pertsonal bilakatzen dena eta beste pertsona batzuk erakundera erakartzen dituen.
- 8- **Konpromiso pertsonala** (pertsonekin, ideiekin, balioekin, sinesmenekin...).
- 9- **Ideiak.**
- 10- **Faktore erlijiosoa.**
- 11- **Balio konpartituen bizipena eta sustapena** (giza balioak, kristau balioak...).
- 12- **Esku-hartze jakin bat bultzatzeko** (hezkuntza aisialdian, esku-hartze soziolaborala...) **eta esperientzia hori konpartitzeko**, esku-hartze eredu jakin bat sakonduz.
- 13- **Jarduera.**
- 14- **Une jakin batean sortutako ilusioa**, trantsizioan bezala, orduan **“gauza asko baitzeuden egiteko”.**

Laburpen gisa, eta nolabaiteko hierarkia ezarriz pertsonak erakundeekin lotzera bultzatzen dituzten arrazoietan, honako hauek nabarmendu ditzakegu lehen esandakoen artean:

- a) *beste pertsona batzuekin konpartitutako egoera baten **eraginpean egotea -ukituta egotea-**, zuzenean edo zeharka;*
- b) ***hirugarren pertsonen egoera hobetzeko interesa**, pertsona bera nolabait inplikatur, **ikuspegi solidario batetik**;*
- c) ***eraldaketa eta justizia soziala lortzeko nahia.***

Hala, erakunde batekin lotzen direnek, garrantzitsutzat jotzen dute beste batzuekin elkartzea eta *erantzunetan modu aktiboan parte hartzea*, sostengua eta elkarrenganako laguntza eskainiz...

Uste dute, halaber, posible dela *eragina izatea, modu kolektibo eta antolatuan, pertsonak ukitzen dituzten egoeren eraldaketan*; horrekin batera, *uste dute eragina izan dezaketela haien eskubideen aitortzan eta eskubide horiek benetan erabiltzea ahalbidetzen duten aukeren sorreran, horren bitartez gizartea eraldatzeko.*

Aipatu dugun bezala, *elkartasuna eta justizia* GEHSaren erakundeen eta haien partaideen berezko balioak dira. Balio horiek elkar exijitzen dute.

Ez da ulargarria GEHSaren erakunde batek erantzukizun publikoko zerbitzuak soilik betetzea, erantzun solidariorik bideratu gabe.

Gisa berean, ez da ulargarria erantzukizun publikoaren garapena ez bilatzea, ezta eskubideen aitortza eta erabilera errealare ez bilatzea.

Ezin uler daiteke GEHSaren erakunde batek erantzukizun publikoko zerbitzuak soilik betetzea, erantzun solidariorik bideratu gabe; Gisa berean, ulertezina da erantzukizun publikoaren garapena eta eskubideen aitortza eta erabilera errealare ez bilatzea.

Parte-hartzea bultzatu eta erakundeekiko lotura iraunarazten duten beste faktore esanguratsu batzuk hauexek dira:

- **Beste balio eta sinesmen konpartitu** batzuk existitzea, elkartasunaz eta justiziaz gain, eta balio horiek jardueraren bidez adierazteko eta sustatzeko aukera.

Hala, erakunde batekin hartutako konpromiso pertsonalaren sustraiak dira, besteak beste, norberaren ideiak, sinesmenak edo uste sendoak adierazteko beharra, edo berarekin konpartitzen diren balio batzuk sustatzeko eta beraren baitan bizitzeko interesa.

- **Jarduerak berak** sortzen duen interesa: hezkuntza-aisialdia, adingabeen babesa, esku-hartze soziorabazala, jarduera konkretu bat, eta abar.
- Beste pertsona batzuekin sortzen diren **harremanak** (jardueraren xede diren pertsonekin, erakundeko kideekin, ekimenak hasieran gidatzen zituzten edo oraindik ere gidatzen dituzten pertsona karismatikoekin) motibatzaileak izan daitezke eta erakundearekin dagoen lotura sendotu dezakete, baina baita ahuldu ere.

Beste alde batetik, lehenengo tailerrean bi funtsezko gogoeta planteatu ziren, arrazoiei dagokienez.

Historikoki pertsonak erakundeekin lotzera bultzatu dituzten arrazoi askok oraindik ere dira eta, izatez, aurrerantzean ere iraun beharko lukete, eraldatuz, aberastuz eta egoera berrietara egokituz.

Hala, adibidez, hirugarren pertsonen egoera hobetzeko interesa ukitutako pertsonak eta familiak beren erakundeekin duten lotura iraunarazten duten arrazoietakoa bat da, eta erakundearen jardueretan parte hartuz adierazten da: gobernu-zereginak, elkarrenganako laguntza, eragina, eta abar.

Pertsonak berak duen inplikazioa eta pertsonak erakundeekin lotzera historikoki bultzatu dituzten arrazoi asko mantendu egin dira, aberastuta eta egoera berriei egokituta.

Parte-hartze hori, une historiko bakoitzean duen adierazpidea zeinahi delarik ere, zerbitzuen erabiltzaile gisa pertsonak erakundearekin sortzen duten loturatik harago doa; izan ere, parte-hartzerik gabe erakundeak ezin har daitezke ukitutako pertsonen eta beren familien erakundetzat.

Pertsonaren inplikazioa soldatako pertsonalak erakundearekin duen loturari eusten dioten motibazioetako bat izan da eta izaten jarraitu behar du, hau da, motibazio hori ez da ukitutako pertsonena edo boluntarioena soilik izan behar.

Soldatako pertsonalaren kasuan, pertsonak berak duen inplikazioa zenbait alderditan islatu da historikoki, hala nola: aurretik boluntario sozial bezala aritu izana, batzuetan beste erakunderen batean.

Eta, orobat, lanbidea bokazio bezala bizi izatea geroago, eta pertsona hartzaileen egoera hobetzera zuzendutako beste ekintza batzuetan parte hartzea (errebindikazioa, sentsibilizazioa...), zuzeneko esku-hartzetik harago, eta nola-baiteko koherentzia izatea bizitza pertsonalaren eta konpromiso profesionalaren artean.

1.4. ERAKUNDEEN JATORRIARI BURUZKO GOGOETA BATZUK

Lehenengo tailerraren testuinguruan, eta elkarrizketetan jasotako informazioa abiapuntutzat hartuta, erakundeen jatorriarekin zerikusia duten bi gai garrantzitsuri buruz hausnartzea proposatu zitzaizen pertsona parte-hartzaileei:

- a) sustrai desberdinak identifikatu ote daitezke erakundeen jatorrian?, eta zer lotura egon dira haien artean?;
- b) ea hirurogeita hamarreko hamarkada funtsezko unea ote den, benetan, erakundeen historian, eta zein izan den hori baino lehen eratu ziren erakunde parte hartzaileen ibilbidea.

1.4.1. Eliza-tradizioa eta tradizio zibila duten erakundeen arteko harremanak eta konbergentzia: gizarte ekintzako hirugarren sektorearen “gorakada” 70eko hamarkadatik aurrera.

Elkarri lotutako
hiru tradizio
egotea.

Azkenean Bizkaiko “gizarte ekintzako hirugarren sektore” deitu den sektorean, hiru sustrai edo tradizio nagusi identifikatu daitezke, bertan elkartzen diren eragileen ikuspuntutik: elizako sustrai edo tradizioa duten erakundeak, sustrai edo tradizio zibila dutenak eta, horien barneko kasu partikular bezala, “ukitutako” pertsonen berek eta -batzuetan- haien familiek eratutako erakundeak.

Edonola ere, elkarri lotutako errealitateak dira, “ontzi komunikatuekin”; lotura horiek pertsonalak izaten dira gehienbat -hau da, pertsonen sortu dituzte-, lotura instituzionalak edo bestelakoak baino neurri handiagoan.

Faktore erlijiosoak hirugarren sektorearen sorreran duen presentzia agerikoa da, baina sustrai edo tradizio zibila ere oso garrantzitsua da.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da gizarte ekintzaren alorrean diharduten eta Eliza katolikoarekin lotuta daudenak (Elizaren erakundeak, Elizakoak, edo Eliza katolikoari lotutako pertsona, komunitate edo erakundeen parte-hartzea dutenak):

- Elkartasun antolatua bide nagusia izan zirela diktaduraren garaian eta trantsizioaren hasieran, eta batzuetan bide bakarra. Eta bertan parte hartzen duten pertsonen, fededunek zein laikoek, humanismoaren alderdi sakonenekin konektatzen duten balioak konpartitzen dituztela erakundeekin, hau da, ez erlijio bati (kristautasuna) ez eliza partikular bati (katolikoa) soilik ezin egotzi dakizkikeen balioak.
- Eta eraldaketa sozialera orientatutako erakunde irekiak direla, edo norabide horretan eboluzionatu dutela, Elizaren presentzia sozialeko estilo jakin batekin bat etorritik (irekia, errealitatean txertatua, oinarritik...); estilo horrek ezaugarritu du, neurri handi batean, Elizaren erakundeek gizarte ekintzaren alorrean izan duten jarduna, eta, beraz, mantendu egin beharko litzateke.¹¹

¹¹ Hala, adibidez, Bizitegi lotuta dago auzoarekin eta bertan presentzia zuen kongregazio batekin, alegia, pertsonen baldintzak hobetzeko xedez beste batzuekin kolaboratzen zuen kongregazio batekin.

Beraz, hiru sustrai edo tradizio horiei begiratzean, ez genuke hartu behar atal isolatuen tipologiatzat. Parte hartzen duten pertsonen begirada askoz ere ka-leidoskopikoagoa da.

Ez dute tradizio edo eremu bereizirik ikusten, baizik eta pertsona eta erakundeak, elkarerraginean eta lankidetzan aritu eta balio horien inguruan biltzen direnak, hasieratik eta batez ere hasierako etapa horietan; balio horiek humanismoarekin dute zerikusia, eta beren muina da pertsonaren alde baldintzarik gabe aritzea: pertsonaren eskubideen alde borrokatzea eta beraren gaitasun eta ahalbideetan sinestea, beraren izaera edo egoera zeinahi delarik ere.

Eta, horrenbestez, gizartearen eraldaketa bilatzen dute, konpromisotik abiatuta, pertsona guztiek beren eskubideak erabili ahal izan ditzaten eta beren bizi-proiektua garatzeko aukera izan dezaten.

Begirada horretan sakontzen saiatuko gara, konklusio orokor batzuk atereaz, kasu partikular batzuen azterketatik abiatuta.

Bizitegi auzo batean txertatutako komunitate erlijioso batetik sortzen da, eta bere kasuan presentzia handia izan du, hasieratik beretik, eremu komunitarioarekiko lankidetzak; horrekin batera, konexioak garatu dira askotariko elkarte eta mugimendu sozialekin.

«Asmoa zen auzoko bizitzaren baitan egotea, beste edozein eragile bezala, eta «era guztietako» pertsonekin (politikoa, soziala, erlijiosoa...) kolaboratzen zen, eta baita askotariko erakundeekin ere (Caritas, Oinarrian, Salhaketa, eta abar.). Kontua zen ikuspegia aberastea, hainbat ikuspuntu uztartuz, eta garrantzitsua ez zen nork protagonizatzen zituen ekimenak, baizik eta beharrei erantzutea ».

Beste alde batetik, **Gazteleku** moduko elkarteak Errekaldeko familien elkartetik sortu ziren, gazte talde baten ekimena bideratzeko, hots, aisialdirako alternatibak pertsona gazteentzat sortzeko.

“Auzoko testuinguruan, bazegoen sareko lan garrantzitsua hainbat erakunderen artean (auzoko elkarteak, eskaut taldeak, Eliza eta abar), zeren konpromisoa eta gizartearen eraldaketa konpartitzen baitzituzten balio komun bezala”.

Bizitegi eta Gaztelekuren moduko esperientziei dagokienez, azpimarratu behar da bizitza komunitarioak garrantzi handia duela eskubideen aldeko ekimenen sorrerarako.

Halaber, desgaitasunak dituzten pertsonen eta beren familien erakunde askotan diharduten boluntarioen jatorria parrokia-komunitateekin edo karisma partikularrekin lotutako gazte taldeak izan dira.

Eta LARES, EAPN eta Gizardartz moduko sareak osatzen dituzten erakundeak ekimen zibilekoak eta eliza-ekimenekoak dira, balioak konpartitzen dituztenak eta gizarte eredu berberaren aldeko defentsan elkartzen direnak.

Horrenbestez, kontuan hartu behar da ekimen zibilen eta eliza-ekimenen artean “ontzi komunikatuak” egon direla eta badaudela.

Eremu komunitarioaren garrantzia eta lurraldearekiko konexioa.

Bilboko Errekalde eta Otxarkoaga auzoak -bertan sortu ziren esperientzia horiek- oso komunitate biziak ziren, ekimen handikoak, eta faktore hori funtsezkoa izan da esperientzia horien jatorrian, zeren testuinguru horretatik sortzen baitziren erakundeak gidatzen zituzten eta bertan parte hartzen zuten pertsonak.

Auzoetako bizitza komunitario hori edo erakundeek berarekin duten konexioa galtzeko arriskua erronka handia da hirugarren sektorearentzat, batez ere auzo edo lurralde konkretu bati lotutako erakundeentzat, zeren ikusten baitute komunitatearekin duten lotura ahuldu egiten dela, eta batzuetan tentsioak ere sortzen direla.

**Pertsonak
ukitzen dituzten
egoerei buruzko
sentikortasuna
eta gizarte
eraldatzeko
konpromisoa.**

Beste alde batetik, ideologia eta sinesmenetatik harago... erakundeekin inplikatzaren diren sentsibilitatea konpartitzen dute pertsona hartzaileek pairatzen dituzten egoera konkretuen inguruan (normalean, kolektibo jakin bat edo auzo bateko biztanleak); konpartitzen dituzte, halaber, pertsonen aldeko apustua eta gizarte eraldatzeko konpromisoa, bereziki beren ingurune hurbila.

Agintzariren kasuan, funtsezkoa da erlijioso baten rola, zeren Bilbora ekarri baitzuten “Promesa” Elkarteak Madrilén aurretik izandako esperientzia; hala, pertsona talde bat bildu zuen, eta baldintzek ahalbidetu zutenean talde hori profesionalizatu zen eta, azkenean, gizarte ekimeneko kooperatiba bat eratu zuen.

Pertsona horiek, normalean, boluntario gisa aritu izan dira aurretik zenbait erakundetan (aisialdi taldeak, eskaut taldeak...) eta kezka bat konpartitzen dute, alegia, arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden haur, nerabe eta gazteen egoera hobetzea, jarduera profesionalaren bitartez.

**Gizarte
ekintzailtzak
eta bokaziozko
konpromisoak
duten garrantzia.**

Beste alde batetik, garai hartan ohikoa zen “*ekintzaile sozialaren*” figura. Bokazioa eta karisma uztartzen zituzten pertsonak izaten ziren, eta, beste alderdi batzuen artean, ezaugarri hauek izaten zituzten: inplikazioa eta konpromiso pertsonala, beste pertsona batzuk erakartzeko eta inplikatzeko gaitasuna, eta zerreginerako orientazioa, egoera konkretuetara zuzendutako alternatibak bilatuz.

Sartu Federazioaren kasuan ere hainbat tradizio elkartzen dira, historia pertsonalen bitartez, ekimen komun batean: bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen aldeko konpromiso profesionala. Horrek eskatzen du zerbitzuaren presazio hutsetik harago doan lotura bat ezartzea, kalitatezko parametroen arabera.

Gaur egun, kudeaketak eta teknologiak liluratuta bizi gara, baina erakundeen jatorrian bada oraindik ere existitzen den eta originala izaten jarraitzen duen zerbait: arazoei bestelako modu batez begiratzeko eta erantzuteko modu bat, kalitatearekin, berotasunarekin eta -azken batean- pertsonetikiko harremanarekin lotuta dagoena.

**Pertsonetikiko
“kontratua”.**

«Erakundeen jatorrian dagoena pertsona hartzaileekin dagoen «kontratua» da, zerbait pairatzen duten edo beharizan bat duten pertsonekin sortzen den lotura solidarioa... Hor bada ikusmolde jakin bat beste pertsonarekin dagoen loturaren inguruan, eta uste dut ikusmolde hori zaindu behar dela, uste dut berezia dela, hau da, baditu elementu batzuk, beharizan horiei erantzuteko dauden beste forma sozial

batzuetatik bereizten dutenak; hau da, elementu horiek bereizten dute hirugarren sektorea ez diren, bestelako gakoak dituzten eta pertsonengana eta errealtatera bestelako modu batean hurbiltzen diren forma sozialetatik. Gure sorreraren eragileak, gaur hemen egotearen arrazoiak, pertsonekin hartutako konpromisoa da. Garrantzitsua giza loturaren kalitatea da, bestearen beharrianaren aurrean, eta berdin da hori tradizio laiko edo erlijiosotik etortzea».

GEHSaren erakunde guztien jardura nagusiak, erakundeen lanaren xede den eremu edo kolektibotik harago, pertsonak pertsonekin dituzten harremanetan oinarritzen dira batik bat.

Eta garrantzitsua izango litzateke dimentsio komun hori lantzea eta planteamenduak eta irizpideak konpartitzea eta lantzea erakundeen loturaren inguruan, hots, erakundeek eta erakundeak osatzen dituzten pertsonak pertsona hartzaileekin duten loturaren inguruan; halaber, komenigarria izango litzateke jorratzea pertsonetako harremana eta tratua, bokazioa eta konpromisoa...

Alde horretatik, funtsezkoa da:

- balioen inguruko hausnarketa prozesuak sortzea erakundeetan;
- erakundeen historian presentzia izan duten eta gorde beharrekoak diren balioak eta gakoak esplizitatzea eta helaraztea erakundera sartzen diren pertsonen, balio eta gako horiek eguneratuz, zeren hirugarren sektorearen ezaugarri bat baitira, beraren identitatearen osagaia izateaz batera.
- eta horrelako alderdiak kudeaketa planetan txertatzea.

“Garrantzitsua da berreskuratzea eta ez galtzea hirugarren sektoreko erakunde bihurtzen gaituzten gakoak, geure burua hor ikustea ahalbidetzen diguten gakoak. Gainera, erakunde bakoitzak badu “bokaziozko” ñabardura bat, zentzua ematen dion misio bat -horretarako sortu baita-, pertsona konkretuekin lotzen dituen eta haiekin hartutako konpromisoaren indarra esplikatzeko duena”.

Beste alde batetik, **ukitako familia eta pertsonen erakundeek** nolabaiteko laguntza edo sinpatia soziala sortzen dute hasieratik.

“Juridikoki familien erakundeak gara, eta sozialki askoz ere gehiagorenak. Hala, sortzetik beretik, lidergo sozialaz jantzitako pertsona eta familiak egon dira (une bakoitzean pertsona desberdinak egon dira), eta gero komunitateko beste pertsona batzuk gehitu zaizkie eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuek -zibilak eta elizarenak- haiekin kolaboratu dute. Gorabideren garapena ezin esplikatu daiteke beste erakunde sozial batzuen laguntzarik gabe, edo Eliza katolikoak lokalak utzi gabe, zeren beronek egitura antolatua baitzuen aurretik, Gorabidek ez bezala”.

Elkarrenganako laguntza eta ukitutako pertsonen antolaketa, beren beharrei erantzuteko eta beren eskubideak sustatzeko.

Orokorrean, historian zehar, harreman naturalak eta elkarrenganako laguntzazko loturak egon dira mugimenduen eta erakundeen artean: auzo-mugimenduak, ukitutako pertsona eta familien erakundeak, elizaren erakundeak, eta abar.

Erakundeen jatorriaz hitz egiterakoan, ezin dugu tradizio erlijiosoa edo elizaren tradizioa soilik edo bereziki kontsideratu, horrek historia desitxuratu lu-

Humanismoa eta giza eskubideak, konpartitutako erreferente bezala.

keelako; hala, tradizio horrez gain beste adierazpide batzuk ere egon dira, hala nola, elizaren erakundeetan elkartasuna, parte-hartze soziala eta beste balio konpartitu batzuk - balio horiek zuzenean konektatzen dute humanismoaren esentzia eta muinarekin, beraren jatorria kristaua izan zein ez izan- adierazteko bidea aurkitu duten zenbait pertsonaren ekarpen historikoa edo oraingoa.

“Gakoa da elkarrekin lan egitea balio komunengandik, giza eskubideen ikuspegitik”; ildo horretatik, gako hori ez da erakundearen arteko lankidetzan soilik islatu behar, baizik eta erakundearen barnean era bai.

EDE Fundazioaren (“Escuela Diocesana de Educadores” -fundazio kanoniko autonomo bat-) moduko erakundeek beren sorreratik integratzen dituzte esku-hartze sozialarekin lotutako pertsonak (gizarte ekintza, gizarte- eta hezkuntza-ekin-tza...), ikuspegi eraldatzaileaz lan egiten dutenak eta Bizkaiko elkarte-sarearekin konprometitutak daudenak.

Fundazioaren ardatza, printzipioz, prestakuntza jarduerak dira, eta zeregin hori prestakuntza eredu jakin batetik gauzatzen du: bertan, prestakuntza ematen dutenak esku-hartze sozialaren eremuko erakundeetan aktiboki diharduten pertsonak dira (boluntarioak, soldatukoak), eta erakunde horiek edozein motatakoak izan daitezke, alegia, laikoak, elizarenak (katolikoak edo ez), eta abar.

Herrialde aukera eta langile-mugimendua.

Erakundearen jatorrian dauden beste bultzada batzuk estu lotuta daude trantsizioaren garaian eta bertara daraman prozesuaren bi funtsezko ezaugarriekin:

- **“Herrialde aukera”:** beronek, ideia nazionalistetatik harago, funtsezko ezaugarri batzuk berreskuratu nahi zituen, hala nola, euskara eta euskal kulturaren beste funtsezko adierazpide batzuk, instituzio propioak, eta abar.
- **Langileen mugimendua**, batez ere ezkerreko aldean: mugimendu horrek elkartasun proiektuak abiatu zituen, batez ere eremu horretan (irakaskuntza kooperatibak, kontsumo kooperatibak, baliabide sozialak...); geroago, seguruenera, mugimendu sindikal-politikoetara eta/edo hirugarren sektoreko erakundeetara pasatu da.

“Bi arima” horiek presentzia handia izan dute Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundearen historian, bai eremu zibilean eta bai elizaren eremuan.

Bukatzeko, bada bere garrantziagatik azpimarratu behar da gurean beste alderdi bat, alegia, hiru tradizioak eta erakunde guztiak identitate komun batean elkartu direla; hau da, gaur egun, gizarte ekintzako hirugarren sektoreko erakunde kontsideratzen dira eta horrela kontsideratzen dituzte besteek.

“Tradizio edo hazi desberdinetatik sortzen diren erakundeak landare baten adar bilakatzen dira amaieran, ez baziren horrelakoak izan hasieran”.

Hala, berehala ikusiko ditugun beste alderdi batzuen artean, erakunde guztiak:

- herritarren elkartasun eta konpromisoaren adierazpide antolatua dira, autonomoak dira beste eragile batzuek baino, ez dute dirua irabazteko

asmorik, eta gizartea eraldatzera orientatzen dira, eta, hortaz, eskubi-deen aitortza lortzera eta haien erabilera errealerako aukerak sortzera, askotariko eginkizunetatik, hala nola: sentsibilizazioa, salaketa, boluntariotzaren eta elkarrenganako laguntzaren sustapena, zerbitzuen pres-tazioa, eta abar;

- modu aktiboan parte hartu dute eta parte hartzen dute erantzukizun publi-koko sistemen eraikuntzan eta finkapenean, eta esku-hartze eredu pertso-nalizatu eta integral bat sustatzen dute, gaitasunen aitortza eta garapenera eta testuinguruaren eraldaketara orientatua.

Profesionalizazio prozesua ere erakundeek konpartitzen duten beste alderdi bat da; besteak beste, horrek soldatako pertsonalaren parte-hartzea eta/edo gaita-sun eta prozedura teknikoen garapena dakartza berekin.

Ezaugarri horiek guztiak aurkitzen ditugu ibilbide luzeagoa duten eta, hortaz, beste etapa eta testuinguru historiko batzuen berezko testuinguru eta arreta-e-redu desberdinetatik abiatu ziren erakundeetan.

Erakunde horien artean Caritas aipatu dezakegu, edo LARES-Euskadi osatzen du-ten erakundeak (adinekoen arretarako egoitza eta zerbitzuen euskal elkartea - sektore solidarioa), eta baita Gorabide ere; izan ere, 60ko hamarkadan sortua, oso eboluzio sakona izan du arreta ereduaren aldetik.

“Nire sentsazioa da, nolabait, ibilbidea hasi genuen pertsonok eskura genituen baliabideez joan garela bidea urratzen. Esploratzaileak izan ginen, eta gero bes-te pertsona batzuk etorri dira, deskubritutako lurraldea gurekin batera koloni-zatzera, ikuspegiak, helburuak eta tresnak zabalduz..., mundu berri bat eraiki-tzeko baldintzak izateak eskaintzen dituen aukerekin”.

1.4.2. 70eko hamarkadaren garrantzia, funtsezko une bezala, eta aurretik era-tuta zeuden erakundearen bilakaera.

Gaur egun bizirik dirauten erakunde horiek guztiek, beren ibilbidearen uneren batean, erakunde bezala “berrasmatu” dira eta arreta-ereduak eraldatu dituzte, eredu asistentzialistak edo ongintzako ereduak gaingituz.

Eta zenbaitetan, Caritas edo Gorabideren kasuan bezala, erakundeak aldaketa horien eragileak izan dira, arretari heltzeko moduari dagokionez eta, nolabait, erreferenteak izan dira geroago eratu ziren erakundeentzat.

Caritasen kasuan, prozesu hori 70eko hamarkadaz geroztik gertatu zen: “Aur-pegí berriko Caritas” ekarri zuen aldaketa eta eraldaketa garaia izan zen.

Esku-hartzea kausetara orientatzen da, ez ondorioak arintzera soilik; bilatzen dena da pertsonen gaitasunak garatzea (“arraina eman ez ezik, arrantza egiten ere irakastea”), aldaketak bultzatzea testuinguru sozialean, eta erantzukizun publikoa bultzatzea.

Trantsizioaren aurretik funtzionatzen zuten erakundeek beren burua berriz asmatzeari ekin diote, lehenago edo beranduago.

Hala, adibidez, Eusko Jaurlaritzan eragina izateko eta berarekin elkarriketatze-ko ekintzak hasi ziren garatzen, pobreziaren aurkako borrokari lotuta, eta ho-
rrek lehenengo lege eta planak sorraziko zituen alor horretan.

LARES-Euskadiren kasuan, eraldaketa geroago gertatu zen.

Adineko pertsonentzako egoitza-arretaren eremuan, erlijioaren munduak oso presentzia zabala zuen, batez ere emakumezkoen kongregazio erlijio-
soek, hainbestearaino non, garai hartan, asistentzia pentsaezina baitzen
mojen kudeaketarik gabe.

Hasierako etapetan, erakundeen kudeaketa profesionaltasun gutxikoa eta oso
boluntarista izaten zen. Gainera, erakunde horien kasuan, nagusitzen zen on-
gintza kontzeptua ez zegoen pobreziarekin lotuta, batez ere, baizik eta lagundu-
tako pertsonen abandonu edo babesgabetasun esperientziekin.

Une batetik aurrera, baina:

- Askotariko faktoreak hasi ziren agertzen, aldi berean. Barneko faktoreak, hala nola, erakundeen eta haien partaideen zahartzea, edo bokazio erlijio-
soen galera. Eta kanpokoak, hala nola, trantsizioari lotutako aldaketa sozia-
lak, eskubideen aitortza, hirugarren sektoreko edo beste sektore batzuetar-
ko erakundeek pertsona horiek atenditzea, eta abar.
- Eta, horren ondorioz, oso bestelako errealitatea itxuratu zen, arian-arian:
pertsonal laikoa sartu zen esku-hartzearen eta kudeaketaren alorretan;
kudeaketa profesionalizatu egin zen, patronatuko batzordeak eratu ziren,
ikuspegi estrategikoago batez; kalitate-sistemak sartu ziren arretaren ere-
muan; pertsona erabiltzaileen eskubideak formalizatu ziren, eta abar.

*“Hirugarren sektore bezala, LARESen jatorria da instituzioek (beraren partaide
diren erakundeek) beren jarreran, osaketan eta definizioan izandako aldaketa
drastikoa, gehienbat aldaketa sozialek eta instituzioaren gainbeherak eskatua.*

Eraldaketa erradikala izan da, poliki-poliki gertatu bada ere. Iraun duen gau-
za “bakarra” “erakundeen sustraitzea” eta elkartasunaren kultura dira. Horiek
guztiak (Calzada Fundazioa, Erruki Etxea, Aresti, eta abar) tokiko komunitate
konkretu bati lotutako erakundeak dira eta izaten jarraitzen dute. Komunitateak
estimatuta, kultura eta boluntarioen fluxua sortzen dituzte instituzioaren eta
berari lotutako komunitatearen artean.

Ukitutako pertsonen eta/edo haien senideen ekimenez sortutako erakundeen
kasuan, jauzi handia gertatu zen 60ko hamarkadatik (urte horietan sortu zen
Gorabidea) 80eko hamarkadara (**Apnabiren** hasiera), eta 80eko hamarkada-
ren inguruan sortu ziren erakundeen kasuan azkarragoa izan zen profesio-
nalizazioa.

Hori testuinguruaren aldaketengatik gertatu zen, nolabait, baina baita erakun-
deen orientazioagatik beragatik ere; izan ere, garai hartan, pertsonen erreha-

bilitazioa azpimarratzen zuten esku-hartzearen helburu bezala, hain zuzen ere arretaren paradigma aldatzen ari zen unean.

Arreta ukitutako pertsonen behar espezifikoetara egokitzea izan zen “Asociación Vizcaína Pro Subnormales” (orain Gorabide) elkartearen lokalean biltzen hasi ziren pertsonak Apnabi eratzera eraman zituzten arrazoietakoa bat.

Izan ere, tradizio horren baitan ibilbide luzeagoa duten erakundeetan ere oso eboluzio esanguratsua gertatu da esku-hartze eta antolaketa ereduetan, desgaitasun edo gaixotasun mentalaren inguruko ikusmoldean, eta ukitutako pertsonen eta gizarteak -haiei begira- dituzten itzaropen eta helburuetan.

Kasu batzuetan -adibidez: **Avifes-**, bazkideak aurkitzeko ahalegin nabariak egin behar izan ziren, batez ere hasieran.

Elkarteak familia talde txiki batek gidatuta edo pertsona karismatiko batzuek gidatuta sortu ziren, oraindik ere desagertu ez den estigmatizazio testuinguru batean, baliabide gutxiarekin eta familien arteko lotura txikiarekin.

Testuinguru horretan, beren ekintzaren helburu nagusia zen familiak biltzea, bi- zipenak konpartitzea eta beren senideen eskubideak errebindikatzeko. Baliabideak sortzeko lana eta profesionalizazioa, berriz, geroago abiatuko ziren.

Azken batean, beraz, 70eko hamarkadak ziklo edo paradigma aldaketa bat ekarri zuen erakunde guztientzat. Orduan hasi ziren gertatzen aldaketa batzuk, barnekoak zein kanpokoak, erakundeen esku-hartze eta antolaketa ereduak kualitatiboki eraldatuko zutenak, erakundeen hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboa esplikatuko eta haien bilakaera benetan ahalbidetu zuten faktoreak finkatu bezain laster -80eko hamarkadan zehar, eta baita 90eko ere-.

Horretara itzuliko gara gizarte ekintzako hirugarren sektorearen historiako etapak jorratzen ditugunean, 70eko hamarkadatik aurrera.

Erakunde horiek eboluzio garrantzitsua gauzatu eta -askotan- bultzatu dute esku-hartze ereduetan, eta, hortaz, sektorearen bultzatzaileak dira.

2. ERAKUNDEEN FUNTZIONAMENDUA BEREN HASIERAN

Aipatu dugun bezala, erakundeen hasierako testuingurua ilusio testuinguru bat zen; garai hartan, “guztia zegoen egiteko” eta aukera eta itxaropenak irekitzen ari ziren aldaketa sozialerako, gizartearen parte-hartzerako eta militantzarako.

Aldi berean, testuinguruaren beste ezaugarri batzuk dira baliabideen eskasia, lan baldintzen prekarietatea eta erantzukizun publikoaren eraikuntza edo zabalkuntza. Testuinguru horretan, tentsioak ere baziren sektore publikoarekin, zenbait alderdiren eraginez: erakundeen jardunaren aitortzarik eza, baliabideen urritasuna, administrazioek izan beharko zuketean erantzukizunaren inguruko pertzepzio desberdinak (pertzepzio handiagoa erakundeetan administrazio publikoetan beretan baino), edo egoerak heltzeari buruzko ikuspegi desberdinak.

“Eremu jakin batzuetan, trantsizioaren garaian bertan, erakundeek zailtasunak aurkitu dituzte eta zailtasun horiek salaketa bilakatu dira azkenean, zeren eta, administrazio publikoen eta beste eragile sozial batzuen aldetik, oso ikusmolde murriztaileak baitaude gai batzuen inguruan; adibidez: adingabeentzako arretaren inguruan”.

Testuinguru horretan, erakundeek hasieran izan zuten funtzionamenduarekin zerikusia duten hiru alderdi jorratuko ditugu: zer-nolako jarduerak gauzatzen zituzten eta norekin kolaboratzen zuten, zer zailtasun aurkitzen zituzten eta zein ziren hasierako etapa horren alderdi positiboak.

2.1. GAUZATZEN ZITUZTEN JARDUERAK ETA GARAI HARTAKO LANKIDETZAK

Jarduerak...

Aipatu dugun bezala, erakundeen abiapuntua da pertsona konkretuen behar konkretuei erantzutea.

Eta, sendotu eta beren gaitasunak garatzen zituzten neurrian, zerbitzuak dibertsifikatzen eta beste eginkizun eta jarduera batzuk indartzen hasi ziren, hala nola: pertsona hartzaileen beharrak detektatzea (erakundera iristen diren etatik harago); ikerkuntza; proiektu berritzaileak abiatzea; sentsibilizazioa; detektatzen ziren egoera konkretuak salatzea; eta eragina izatera zuzendutako beste ekintza batzuk, hala nola, arauak lantzeko prozesuetan parte hartzea; eta abar.

“GEHSaren erakundeetako funtzioen artean nukleartzat jo daitezkeen funtzio guztiek hasieratik izan dute presentzia erakunde askotan”.

Edonola ere, hasieratik beretik presentzia izan zuten funtsezkotzat jo daitezkeen eginkizun guztiek, hots, beharren detekzioa, sentsibilizazioa eta salaketa, boluntariotzaren eta elkarrenganako laguntzaren egituraketa, edo zerbitzuen prestazioa bera; azken hori erakundeen lanaren benetako muina zen garai hartan, zeren beharrak asetzea zuzendutako erantzun konkretuak bilatzera orientatzen baitzen.

“Gauza harrigarrienetako bat da funtsezkotzat jo daitezkeen jarduera guztiek presentzia izan dutela hasieratik beretik, jardueren benetako muina zerbitzuak direla eta, hasieraz geroztik, erantzukizun publikoko zerbitzu sozialen katalogoa gaur egun osatzen duten zerbitzu askok bazutela presentzia orduan ere, garai hartako eskalan”.

Hala, beren hasierako aldian, erakundeek jardunaren ardatzak ziren pertsona eta familientzako sostengua eta akonpainamendua, haien eskubideen errebin-dikazioa eta zerbitzu eta zentroen kudeaketa.

Jarduera horiek boluntarioek edo soldatako pertsonak gauzatzen zituzten, bai-na lehenengo etapetan garrantzi berezia zuten boluntarioek, elkarrenganako la-guntzak eta, oro har, beste pertsona batzuei modu altruistan laguntzeko gogoia zuten pertsonen ekarpenak.

Akonpainamenduak izaera integrala izaten zuen (pertsonala, soziala, juridiko eta administratiboa, sanitarioa...), eta beraren euskarri-tresnak diagnosi eta orientaziorako elkarriketak eta tutoretzak izaten ziren.

Beste alde batetik, esku-hartzeek izaera hezitzaile nabaria izaten zuten eta, ikuspegi sustatzailearekin bat etorritik, gero eta gehiago orientatzen ziren norbe-raren gaitasunen garapenera, gizarte inklusioari begira, autonomiarekin; hala-ber, prestakuntza, okupazioa eta enplegua hartzen zituzten helburutzat.

Estaldura aldetik zeuden gabeziak gorabehera, zerbitzuen eta gizarte zerbitzue-tako zentroen kudeaketak pisu handia zuen 70eko hamarkadan, zeren zerbi-tzuen espekto osoa hartzen baitzuten: alojamendu edo egoitzetatik (gehiene-tan, kudeatu ziren lehenengo zerbitzuak izan ziren) hasi eta etxearen testuin-guruan esku hartzera iritsiz: esku-hartze komunitarioko zerbitzuak, eguneko zerbitzuak eta zentroak, okupazio-zentroak, egoitza-zentroak, eta abar.

Kasu batzuetan, desgaitasun intelektualeko pertsonen eta haien senideen el-karteen kasuan bezala, erakundeek eremu bati baino gehiagori dagozkion zer-bitzuak betetzen zituzten: gizarte zerbitzuak, osasun, hezkuntza eta prestakun-tza zein enplegu zerbitzuak. Sarritan, gainera, aisialdiaren eremuko jarduerak ere gauzatzen ziren.

Hala, aipatutako jarduerak hauexek dira.

- 1- Sostengu eta akonpainamendu pertsonal eta familiarra:** akonpainamendu pertsonal eta familiarreko lanak, tutoretza, orientazio eta diagnosi proze-suak, espetxeak bisitatzea, eta abar.
- 2- Sostengu eta akonpainamendua alor juridiko eta administratiboan** (prozesu judizialak, laguntza ekonomikoen eskaria,...), **osasunaren alorrean** (ospitalee-tara laguntzea, desintoxikazioak eta ospitaleratze psikiatrikoak), eta abar.
- 3- Bizitzarako, elkarbizitzarako eta lanerako gaitasun, balio eta jarrerai buruz-ko heziketa eta prestakuntza:** hezkuntza-sostengua eta balioekin, okupa-zioarekin, moralarekin eta erlijioarekin lotutako heziketa, etxeko zeregine-tarako trebakuntza, eta abar.

“Gure tradizioan errotutako ideia bat eta gure ekarpen garrantzitsua da zentroak “etxe” bihurtzeko nahia: bizi-eremu bat, non beti egoten baita norbait, pertsona ezagun bat, erreferente bat; ludikoa ere den espazio bat, etxe giroan elkarrekin bizitzeko; eta heziketa-esparru bat, parte-hartze normalizatua bermatzen duena (komunitatean parte hartzea) eta heziketari eusten diona ikastorduetatik kanpo ere, hau da, etxeko denboran, balioak hor ere landuz”.
(STELLA MARIS)

- 4- **Hezkuntza-jarduerak**, erakundearen xede ziren pertsonentzat eta haien inguruko pertsonentzat/senideentzat.
- 5- **Sostengu eta akonpainamendua lan merkatuan sartzeko**: aholkularitza, lan-akonpainamendua, enplegua bilatzeko teknikei buruzko prestakuntza, kolektibo espezifiko batzuen kontrataziorako diru-laguntzen programak, lagundutako enplegua, eta abar.
- 6- **Zentroak eta egoitza-zerbitzuak**: egoitza-zentroak, etxe funtzionalak, alojamenduak, egonaldi luzeko etxebizitzak kudeaketa, baserri-eskolak, eta abar.
- 7- **Eguneko zentroak, okupazio-zentroak, enplegu-zentroak, haur eta gazteen-tzako lokalak gizarte eta hezkuntza mailan esku-hartzeko programetan.**
- 8- **Erakundeak xedetzat hartzen duen kolektiboaren arreta espezifikorako zerbitzuak, hainbat sistemari lotuta (hezkuntza, osasuna...)**: haur autiszentzako haurtzaindegia, unitate terapeutikoak, eta abar.
- 9- **Aisialdirako jarduerak, gehienbat hezkuntza izaerakoak**: koloniak, kanpamenduak, klubak eta aisialdiko taldeak, jarduerak astegunetan eta asteburuetan gauzatzen dituztenak, lanerako esparruak, gazteen arteko trukerako programak, eta abar. **Eta aisialdirako hezitzaileen prestakuntza.**
- 10- **Sostengu ekonomikoa** (familientzako laguntza poltsak) **oinarrizko beharrak asetzeko** (mantenua, adingabeentzako hezkuntza,...).
- 11- **Emergentzia edo larrialdi egoerei erantzutea**: sozialak, pertsonalak, familiarak eta/edo kolektiboak: uholdeak, informazioa eta laguntza premiazko eskariei erantzuteko, eta abar.
- 12- **Kolektibo jakin bateko pertsonak eta haien beharrak identifikatzea.**
- 13- **Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa (kontzientzia soziala, etikoa...).**
- 14- **Erakundearen jardunari eutsi behar dioten balioen inguruko hausnarketa.**

Lankidetz...

Jarduera horiek gauzatu ahal izateko, erakundeek administrazio publikoen eta hirugarren sektorearen beste erakunde batzuen sostengua eta lankidetzaren izan dituzte eta izaten jarraitzen dute.

“Beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin kolaboratzea, eta modu berezian administrazio publikoekin, GEHSaren identitatearen ezaugarrietako bat izan da hasieratik beretik”.

Beste erakunde eta eragile sozial batzuekin kolaboratzea, eta horien artean batez ere administrazio publikoekin, GEHSaren identitatearen ezaugarria izan da hasieratik beretik, salbuespen batzuetan izan ezik, hau da, erakundeak eragin sozialera soilik orientatu direnean (sentsibilizazioa eta salaketa, arau-aldaketak sustapena, eta abar).

Erakundearen helburua berehalako beharrei erantzutea eta eraldaketa soziala bilatzea denez, orientazio horrek behar konkretuei erantzuten laguntzea eskatzen du, erantzukizun publikoa bideratuz. Eta, aldi berean, ezinbesteko autonomia eta funtzioen oreka mantentzea: zerbitzuen prestazioa, sentsibilizazioa, salaketa, interlokuzioa... eskubideei eta haien erabilera errealarari dagokienez.

Erakunde batzuek betetzen dituzten gizarte zerbitzu gehienak erantzukizun publikoko zerbitzuak izatera pasatu dira, baina jokaleku aldaketa horrek ez luke funtzioen oreka aldatu beharko.

“Administrazio publikoekiko harremanek eboluzioa izan dute.

Hasieran, helburu nagusia administrazioak konbentzitzea izaten zen, erantzukizun publikoa edo eskubide batzuk exijitzera iritsi gabe; aitzitik, asmoa zen erakustea pertsonenganako arreta garrantzitsua eta beharrezkoa zela.

Geroago, lankidetzaren hasierako fasera pasatu ginen: administrazioaren planetan parte hartzen genuen, eta arau-aldaketak sustatzen genituen.

Hortik aurrera, harremanen formalizazio fasera pasatu ginen. Horren adierazpide bat hitzarmenak dira.

Eta, une honetan, fase berri batera pasatu gara, ezaugarri hauekin: erantzukizun publikoko sistema batean kokatutako zerbitzuak hornitzen ditugu, eta horrek arazo espezifikoak ekartzen ditu, hala nola, zerbitzuetara iristeko biderik gabe geratzen diren pertsonenganako arreta”.

Hala, harremanaren formak eta intentsitatea denboran zehar ¹² aldatu badira ere, esan daiteke hasieratik beretik:

- Estatuaren administrazio publikoen lau mailek (Udalak, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak, Estatuaren Administrazio orokorra) sostengua ematen dutela eta GEHSaren erakunde gehienekin kolaboratzen dutela, nahiz eta hasierako garaian sostenguak ezegonkorragoak edo unez unekoak izaten ziren.
- eta, batez ere, “gizarte ongizatearen” alorretatik, baina baita, arian-arian, beste sail batzuetatik ere, erakundeek beste eremu batzuetan jarduten dutela, gizarte zerbitzuen eremuan jarduteaz gain: hezkuntza, osasuna, enplegua eta prestakuntza, justizia, etxebizitza edo kultura (“gazteria eta ekintza komunitarioa”).

Azken hori koherentea da erakunde batzuek beren hasierako etapetatik gauzatu duten lanarekin, hau da, inklusio soziala erraztera zuzendutako esku-hartze integralak, askotariko beharrei erantzuteko: hezkuntza, prestakuntza, enplegua, etxebizitza, hezkuntza-aisialdia, eta abar.

Beste lankidetzak batzuk, buru-osasuneko zerbitzuekin edo sistema judizialarekin izandakoak, erakunde batzuek garatutako esku-hartze espezializatuen ondorio dira; adibidez: erakunde batzuek buru-gaixotasunak dituzten edo bazterketa egoeran edo espetxean dauden pertsonekin gauzatutako esku-hartze espezializatuen ondorio.

¹² Diru-laguntzetatik hitzarmenetara pasatzea, erantzukizun publikoko zerbitzuak izatera iristen diren zerbitzuen kasuan, “mugarri” bat da erakundeek eta hauek sektore publikoekin duten loturaren eboluzioa.

Hala, hasieran, administrazio publikoek egiten zutena zen, funtsean, laguntza eskaintzea erakundeek ekimenak sustatzeko ekintzen bitartez (diru-laguntzak), zeren kontsideratzen baitzen ekimen horien erantzukizuna erakundeena zela.

Horrenbestez, administrazioak bere nahiaren arabera ematen duen sostengu bat da, eta, hortaz, ezegonkorra da, nahiz eta praxian urtez urte mantentzen den eta eboluzio-natu egiten duen, erakundeek betetzen dituzten zerbitzu ugari dagokienez, lankidetzak forma egonkorragoetara pasatuz; eta, azkenean, azken etapa honetan, erakundeek parte hartzen dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoan sartutako gizarte zerbitzuen hornikuntzan.

“Hirugarren Sektoreak badaki ikuspegi kritikoari eta salaketari eusten, baina esku-hartze soziala gauzatzen du, arazo sozialak konpontzeko xedez, horiek interes orokorrekoak eta erantzukizun publikokoak izaten baitira beti. Administrazioaren eskutik egiten du, bere izaera eta rol propioa gordez, baina zerbitzu publikoa eskaintzeko bokazioarekin”.
(SARTU)

Administrazio publikoarekiko harremanaren ezaugarria tentsio positiboa da (lankidetzak, alde batetik, eta eskubideen sustapena eta salaketa, bestetik), hori berari atxikitako ezaugarri bat baita.

Tokiko mailan, azpimarratu beharko litzateke baliabide komunitario”deskontzentratuenekin” izandako harremanak, hala nola, oinarriko gizarte zerbitzuekin edo gizarte etxeekin izandakoak, eta udalen alor edo sail batzuekin izandakoak: etxebizitza, osasun publikoa...

Eta, halaber, sistema batzuen baliabide “komunitarioekin” izandakoak: osasun sistema (“buru-osasuneko zentroak”, “modulu psikosozialak”...), hezkuntza sistema (“orientazio pedagogikorako zentroak”...), prestakuntza - enplegua (“osabidezko eta laneratze ikastegiak”, “Helduen Hezkuntzarako zentroak”, INEMen bulegoak...), eta abar.

Hori koherentea da GEHSaren erakunde jardunaren izaerarekin, zeren hurbiltasuneko eta lurraldeari lotutako esku-hartzeak gauzatzen baitituzte beti, hau da, lurraldearekin dituzten loturen bidez; horren eraginez, erakundeek testuingurua ezagutzen dute, hurbil dauden beste baliabide batzuekin kolaboratzen dute, eta sarean lan egiten dute, nolabait, zeren hori beharrezkoa baita arretaren izaera integral eta koherentea bermatzeko.

Beste erakunde batzuekiko lankidetzari dagokionez:

Kasu honetan ere, ohikoa da ingurune hurbileko erakundeekin kolaboratzea: ikasleen gurasoen elkarteak, auzo elkarteak, langabeen elkarteak, emakumeen asanblada, mendi taldeak... eta erakundeak bere jarduera gauzatzen duen eremuan diharduten edo beren egoitza hor duten beste erakunde batzuk.

Lankidetzaren horiek bereziki trinkoak dira erakundeek komunitate batekin dituzten loturak estuak direnean, eta are gehiago eremu jakin bateko mugimendu komunitario indartsu batean sartuta daudenean.

Are arruntagoa da eremu bereko beste erakunde batzuekin kolaboratzea, edo pertsona berberengana zuzentzen diren erakundeekin kolaboratzea, dela lurralde historiko berekoak badira, dela beste lurralde historiko batzuetakoak edo estatukoak badira. Eta horren asmoa da bai sostengua eskaintzea eta bai alderdi jakin batean esperientzia handiagoa duten beste erakunde batzuetatik ikastea, dokumentazioa trukatzu, eremua bisitatzu, eta abar.

Zuzeneko esku-hartzea gauzatzen duten erakundeen arteko lankidetzaren horizontal hori GEHSaren erakunde ezaugarri bat da, alegia, galdu behar ez litzatekeen ezaugarri bat.

Hasierako garai horretan, erakunde batzuek garai hartan (70eko hamarkadan) sortzen ari ziren bigarren mailako erakundeetan ere parte hartzen zuten; sarritan, erakunde horiek “koordinakunde” forma hartzen zuten: auzoko koordinakundeak, presoekiko elkartasunerako koordinakunde estatala, eta abar.

Koordinakunde horiek funtzionamendu horizontal eta parte-hartzailea dute, baliabide askorik gabe mantentzen dira, eta garatzen dituzten eginkizun nagusiak dira errebindikazioa eta salaketa, kontrastea eta erakundeen arteko elkar laguntza.

**“Badira erakunde batzuk, irtetea eta loturak sortzea planteatu behar dutenak, baina hemen ez da hori gertatzen, loturak hasieratik beretik sortuta zeudelako... Guztioek ezagutzen genuen elkar, bagenekien zein ziren besteen beharrak, eta sortutako elkartasun loturak oso bestelakoak ziren (elkarren arteko ezagutza txikia duten taldeen artean sor daitezkeen loturekin alderatuta)”.
(Gazteleku)**

Zuzeneko esku-hartzearen alorreko erakundeen arteko lankidetzaren horizontal hori GEHSaren erakunde ezaugarri bat ere bada, hots, galdu beharko ez genukeen ezaugarri bat.

Beste alde batetik, Elizaren erakundeek ere euren artean kolaboratzen dute, beren jarduera eremu berberean edo kolektibo berberarentzat garatzen duten neurrian; adibidez: emakumezko kongregazio erlijiosoak, babesgabetasun egoeran dauden neska, nerabe eta gazteekin lan egiten dutenak.

Eta Elizaren erakunde batzuek sostengu tekniko, ekonomikoa eta bestelakoa eskaintzen diete Elizaren eremuko edo eremu zibileko beste erakunde batzuei. Hala, erakunde batzuek Caritasen laguntza dute (teknikoa, ekonomikoa...) edo kongregazio erlijiosoena, dela abiatzen diren unean dela geroago.

Gainera, sortuz doazen bigarren mailako erakundeak (FEVAS, Euskalherriko Eskautak...) eta EDEJaren moduko erakundeak (Elizbarrutiaren Gazteria Hezitzaileen Eskola) sostengu eta sustapen erreferentea dira esku-hartzearen alorreko erakunde askorentzat.

“Haiekin kolaboratuz”, EDEJek boluntarioengana eta soldatako pertsonalarengana zuzendutako ekintzak bultzatzen ditu, “profesionalizazioaren” lehenengo etapetan, batez ere “bazterketan espezializatutako hezitzaileentzat” eta “animatzailerako soziokulturalentzat”, gizarte heziketaren diplomaturarik ez zegoenean.

Azken batean, GEHSaren beste erakunde batzuekiko lankidetzak aberatsa izan zen hasieratik eta, agian modu berezian, erakundeek lehenengo etapetan, horiek sortzen ari zirenean eta esperientzia, baliabideak eta proiektuak konpartitu nahi eta behar zituztenean.

Agerian geratu denez, lehenengo etapa horietan ere lankidetzaren helburua hauxe zen:

- zuzeneko esku-hartzea erakundeek azkeneko hartzaileekin (esperientziak trukatzeko ibilbide luzeagoa zuten erakunde edo ekimenekin, prestakuntza, proiektu bateratuak egitea...);
- eragina izatea, instituzioengana zuzendutako eskari komunak eta estrategia antolatuak ezarri, dela kolektibo jakin bati begira -adibidez: desgaitasunak dituzten pertsonak- dela lurralde jakin bati begira (auzoa).

Lankidetzek izaera horizontala izaten zuten, eta, bereziki, esku-hartze erakundeek artean planteatzen ziren, eta baita ingurune hurbileko beste erakunde batzuekin ere (auzokoak...), edo hartzaile berberengana zuzentzen ziren erakundeekin.

Lankidetzak horien oinarria esperientzia, baliabideak, ekintza eta -batzuetan- pertsonak konpartitzea izaten zen. Alde horretatik, ohikoa izaten zen pertsona berberak erakunde batzuekin kolaboratzea aldi berean, alor hauetan: zuzeneko esku-hartzea, koordinazioa, prestakuntza, eta abar.

Beste alde batetik, helburuak lehenesten ziren “markaren” gainetik, edo, bestela esanda, erakunde bakoitzaren agerikotasun eta protagonismoaren gainetik.

“[...] sakristietan bildu ohi ziren, Caritasekoak zirela esanez. Esan dezakegu, nonbait, justizia eta askatasunaren alde borrokatzen bazara Caritasen ildoan zaudela”. (CARITAS)

Dena dela, logikoa denez, garai hartan ez zegoen aurreratuta gizarte ekintzako hirugarren sektorea egituratzeko prozesua, eta, hortaz, sareko lankidetzak -bigarren edo hirugarren mailako erakundeen bidez- urriak izaten ziren eta jardueraren eremu espezifiko batzuetan soilik gertatzen ziren.

Oraingo testuinguruan, lehen esan dugun bezala, komenigarria da horrelako lankidetzari eustea (lankidetzak horizontalak, zuzeneko esku-hartzearekin eta azkeneko hartzaileekin lotuta, erakundeen gaitasunak eta baliabideak konpartitzea eskatzen dutenak...).

Bukatzeko, ikuspegi hori osatzeko, kontuan hartu behar da lankidetzaz gain gatazkak ere gertatu izan direla:

Gatazkak gizarte eskubideen bidean aurrera egiteko tresna ere izan dira, eta baita erakunde bakoitzaren identitatean eta espazio propioan aurrera egiteko tresna ere.

- *Gatazkak administrazio publikoekin*; horien bitartez, eskubideen aitortza eta haien erabilera erreala lortu dira, eta baita erantzukizun publikoa bera ere handitzea.

“Gure historian, batez ere lehenengo urteetan, administrazioekiko harremanaren sustraia haiekin lotzeko beharra zen; beste alde batetik, baina, egin beharrekoaren inguruko ikuspegiaren esparru komuna ez zen asko konpartitzen. Administrazio Publikoekin izandako gatazka horrek bazuen lotura, halaber, salaketa funtzioaren garapenarekin (funtzio horrek presentzia handia izaten zuen garai hartan), horrek administrazio jakin batzuen aurrean jartzen baiktuen batzuetan, erantzun berriak eskatuz, bete gabekoak salatuz,... Egoera hori lehenengo urteetan gertatu zen gehienbat, goeko hamarkadara arte.”

- *Erakundeen arteko gatazkak*, batez ere batzuek “inbaditu” dutenean beste batzuek propietzat jotzen zuten espazioa, eta ez denean ulertu lankidetzaren harreman bat egon litekeela erakundeen artean, eta, aldi berean, nolabaiteko lehia egon denean eginkizun batzuen inguruan; adibidez: zerbitzuen prestazioaren inguruan.

Bestalde, horrelako gatazkek ahalbidetu dute argitzea zein den erakunde bakoitzari berez dagokion espazioa eta zer irizpide hartu behar diren kontuan hirugarren sektoreko erakundeen arteko harremanetan.

- *Barneko gatazkak*: zatiketak sortu dituzte, eta baita erakunde batzuen desagerpena ere; beste alde batetik, baina, hausnartzera bultzatu dituzte erakundeak, beren helburuak eta funtzionamendua eguneratu ditzaten... eta azkenean “beren lekua” aurkitu dezaten.

Erakundeen barneko gatazkei dagokienez, hauxe ere aipatzen da:

- Batzuetan, erakundeen euskarria pertsona sendoak dira, lidergorako gaitasun handia dutenak baina aldi berean oso bereziak direnak; horrek gatazkak sor ditzake liderren artean edo liderraren eta erakundearen artean.

- Barneko gatazken konponketan, eragina izan dezake erakunde bakoitzaren estatus juridikoak; hala, egoera ez da berdina elkarrekin eta nola-baiteko kanpo kontrola duten erakundeetan, hala nola fundazio batzuetan, horien babesleak eta zuzendariak hirugarren batek izendatzen baititu; horrelakoetan, aski izan daiteke erakundearen gobernuan eta/edo zuzendaritzan aldaketa bat sortzea kanpotik. Kasu batzuetan, berriz, ildo ofizialaren kontra zeuden pertsonak kaleratuz konpontzen zen arazoa.

Zatiketek kritikak sortu ohi dituzte, baina horrelako konponbideak ezin dira hobeak izan.

- Kasu batzuetan, zatiketa horiek erakundearen eboluzioa ekarri dute beren misioaren eremuan, tentsiorik gabe izan ez bada ere; beste batzuetan, zenbait pertsona edo talde erakundetik irten dira eta beren jarduna beste eremu batzuetara zuzendu dute, jatorrizko eremutik aldentuz.

Bi prozesu mota horiek gertatu dira, adibidez, hezkuntza formalaren eremuan presentzia duten kongregazio erlijiosoetan, gizarte ekintzaren alorreko ekimenak garatzearen inguruan.

2.2. HASIERAKO GARAIAREN ZAILTASUNAK ETA ALDERDI POSITIBOAK

2.2.1. Zailtasunak

Trantsizio demokratikoaren garaian eta beraren osteko urteetan, erakundearen jardun eta garapenaren testuinguruaren ezaugarri nagusiak izan ziren, neurri handi batean, baliabideen urritasuna -batez ere erakunde zibilen kasuan- eta administrazioaren aldetik jasotako sostengu mugatua.

Horren arrazoi bakarra ez zen izan erakundeei beren ekimenen erantzukizuna egotzen zitzaizela, baizik eta, horrez gain, sektore publikoa bera, eta batez ere tokiko eta autonomia erkidegoko administrazioa, eraikitze edo berreraikitze bidean zegoela, edo erakundearen eta sektore publikoaren arteko harremanak ez zirela tentsiorik gabekoak.¹³

¹³ Kasu batzuetan, tentsioen eragilea izan zen zerbitzu batzuen erantzukizun publikoa hartzea; tentsioak planteatu ziren, adibidez, pertsonak zerbitzuetara iristeko bideen inguruan (administrazioak ezarritako betekizunetatik kanpo geratzen ziren pertsonak), edo erakundeek etapa berri batean izan beharko zuten rola ulertzeko moduaren inguruan.

Beste kasu batzuetan, erakundearen jarrera kritikoaren eraginez -adibidez, espetxeetan esku hartzeko moduaren inguruan edo egoera jakin batzuen salaketa-, kanporatu egin zituzten eta haien rola sensibilizazio, salaketa eta alternatiben proposamenera mugatu zen.

Testuinguru hartan, beraz, ez zegoen eragile bakoitzaren erantzukizunak zehaztuko zituen marko legal edo administratiborik ¹⁴, baliabide sare nahikorik ez egoteagatik, ez ekimen publikorik ez sozialik ez egoteagatik, eta gehienek pairatzen zituzten muga ekonomiko eta materialengatik, eta, hortaz, pertsonalaren segurtasunik eza-gatik eta ezegonkortasunagatik.

Erakundeetan parte hartzen zuten pertsonak beren denboraren zati handi bat konprometitzen dute, eta batzuetan beren baliabide pertsonalak ere bai (“militantzia” garaia zen), baina gizarte zibilak ez zituen beti erakundeak babesten, eta horietako batzuek bazituzten zailtasunak era guztietako kanpo sostenguak lortzeko (pertsona boluntarioen parte-hartzea, sostengu ekonomikoa...).

Kontuan hartu behar da gizarte zibila plurala zela, bera ere eboluzionatzen ari zela, eta erakunde batzuk diktaduraren amaierako etapan edo trantsizioaren hasieran sortu zirela eta erregimenak egindakoari kontrajartzen zitzaizkiola; izan ere, erregimenak parte-hartze soziala indargabetu zuen eta, neurri batean, bere eragina mantentzen zuen balio, jokabide eta instituzioetan...¹⁵

Hala, une historiko eta sozialak berak zailtasun espezifikoak planteatu zizkien erakunde guztiei, baina zailtasun horiek handiagoak dira “erregimenaren” aurkako jarrera bat (“politikoa”, “kulturala”...) planteatzen dutenen artean.

Beste alde batetik, trantsizioaren garaian eboluzionatu ez zuten erakunde batzuek posizioak galdu zituzten, esku-hartzea testuinguru berrian orientatzeko eta aukerak identifikatzeko gai ez ziren pertsonak mantendu zituzten gobernu organoetan, esku-hartze eredu asistentzialei eutsi zieten... Horren eraginez, erakunde batzuek eraldatu eta eguneratu behar izan dute beren jarduna, eta hori, zenbait kasutan, orain dela gutxi bukatu da edo bukatu gabe dago oraindik ere.

Erakunde horiek eta beste batzuek zailtasunak izan zituzten lankidetzazko praktikak berenganatzeko eta ingurunera irekitzeko. Gainera, pertsona bakarreko lidergoek edo lidergo karismatikoek esplikatzten dute zergatik sortu ziren tentsio handiagoak erakundeen hasierako etapan, haien eragina handiagoa izaten baita sasoi horretan, edo zergatik egon ziren zatiketak erakunde batzuetan.

14 Arau legal eta administratiborik ez egotea eta erakundeak esklerotizatzen dituen esparru bat egotea elkar jotzen duten muturrak dira. Zerbait berria sortzen ari denean edo premiazko behar edo larrialdiari erantzun behar zaienean, erregulaziorik ezak eta erregulazio profil bigunak ere aukerak eskaintzen dituzte.

15 Izatez, diktaduraren aldian, pertsonak elizaren erakundeetan aurkitzen zituzten parte-hartzerako bideak; geroago, diktaduraren azken garaian eta trantsizioaren lehenengo urteetan, ekimen zibilak abiatu ziren -batez ere eremu zibikoan (auzo elkarteak, emakumeen elkarteak,...); horietako batzuk urte batzuk geroago desaktibatuko ziren, baina beste batzuek iraun egin zuten.

Testuinguru horretan, erakundeek hasierako etapan identifikatu zituzten zailtasun nagusiak hauexek dira:

1- Marko legal eta administratiborik ez egotea: legedirik ez egotea erakundeek lan egiten zuten eremuan, erantzukizun publikoaren irismen murrizta, eta erakundeen eta administrazio publikoen eginkizunen be-reizkuntzarik eza.

2- Zerbitzu eta prestazio sare zabal baten falta: horren ondorioak ziren, besteak beste, erakundeek arreta mugatua eskaintzen zutela eta kanpo-ko baliabideak falta zirela atxanditutako pertsonak bertara deribatze-ko.

3- Administrazio publikoen konpromisorik eta konbentzimendurik eza; izan ere, sarritan ez zuten erakundeek sostengua (gizarte ekimena sustatzeko ekintza bera, irabazi-asmorik gabekoa) beren erantzukizuneko eremutat hartzen, eta batzuetan uzkur agertzen ziren esku-hartze jakin batzuk abiatzeko eta kolektibo jakin batzuei laguntzeko, edo mesfidant-az ikusten zituzten erakundeak edo haien zeregina.¹⁶

Batzuetan, adibidez, zaila izan da administrazio publikoak konbentzitzea beren berehalako erantzukizun legeetik harago doazen esku-hartzeak gauzatzeko beharraz; esate baterako: babesgabetasunaren eremuan. Edo espetxeen eremuan, zeren erakundeek presentzia bera kuestionatu baita batzuetan.

Gainera, zaila izan da ikuspegi prebentiboak garatzea; horiek, batzue-tan, Foru Aldundiek berek sustatu dituzte, zeren ikusten baitzuten lehen mailako arretaren garapen murrizta nabarmenki igoarazten ari zela -edo igoarazi zitekeen- bigarren mailako arretaren eskaria.

Beste konstante bat izan da “gizarte ongizate” sailek beren gain har- tzea beste sail batzuekin (hezkuntza, osasuna...) zerikusia duten ekimen edo proiektuak; horrelakoetan, ez da behar den bezala ezarri biztanleria osoaren inklusio sozialarekin duten erantzukizuna.

4- Administrazioarekin izandako desadostasunak, dela zerbitzu eta zen- troei dagokienez dela esku hartzeko politika eta ereduei dagokienez; desadostasun horiek, batzuetan, lehia sortu dute administrazioarekin honelako gaien inguruan:

¹⁶ Hala, erakundeek aurkitu dituzte “zailtasunak administrazioa elkartzearen garrantziaz eta baliabideen gabeziak konbentzitzeko”, “administrazioaren mesfidantza edo kon- zientziatorik eza kolektibo jakin batzuk atxanditzeko behararen aurrean” (baztertu- tako gazteak edo zailtasunak dituzten gazteak), edo “legitimitaterik ez jasotzea insti- tuzioen aldetik, eta, horren ondorioz, aukerarik ez izatea presoak bisitatze-ko, haiekin egoteko eta informatzeko”.

- a) Administrazioak ezarritako betekizunak betetzen ez zituzten pertsonak zerbitzu eta zentroetara iritsi ahal izatea.
- b) Arreta sare (babes sare) bereborean aritzen ziren ekimen publiko eta sozialeko zentroen parekotasuna, gutxienez baliabideei dagokienez.
- c) Prebentzioa, konponbidea edo gizarteratzea lehenesten duen sistema penal bat aukeratzea, zigor-neurrien ordeaz, delinkuentziaren kontrolerako (*“justizia administrazioaren eredia”*).

5- Muga ekonomiko eta materialak: lokalen eta baliabideen falta (lokaletan dagokienez, agian kongregazio erlijiosoak ziren salbuespen bakarra), baliabide ekonomiko propioen urritasuna, eta kanpoko finantziakortasun lortzeko zaitasunak -zerbitzu eta proiektuentzat-, erakundeen iraunkortasun ekonomikorik eza, eta abar. Eta, baliabiderik ezaren eraginez, lan baldintzen prekaritatea eta erakundea garatzeko zailtasunak.

6- Pertsonalaren segurtasunik eza eta ezegonkortasuna, eta lan baldintzen prekaritatea.

Hasierako etapan, erakundeek zailtasun handiak izaten dituzte lan baldintzak modu egokian formalizatzeko. Horren eraginez, bertan lan egiten duten pertsonen lan baldintzak prekarioak eta ondo definitu gabekoak izaten dira, eta horrek segurtasunik eza eta ezegonkortasuna sortzen ditu: ahal dena eta ahal denean kobratzen da; borondatezkoa lana eta soldatara lana ez dira beti ondo bereizten; ez dago esparru argirik laneko egutegi edo ordutegiarekin -adibidez- zerikusia duten oinarritzko alderdien inguruan. Trantsizioaren hasieran sortutako erakunde asko ezin izan ziren profesionalizatu 10 urte igaro arte. Denbora luzea itxaron behar izan zen kontratazioarako eta lanaren aitortzarako -lan profesional bezala- beharrezkoak ziren baldintzak sortzeko.

7- Finantziakortasunaren prekaritatea eta ezegonkortasuna, garai hartako tesuinguruan: erantzukizun publikoa finkatu gabe zegoen artean ere, eta aldaketa batzuk gertatu ziren finantziakortasun sistemetan.

Geroago erantzukizun publikoko zerbitzu bezala finkatu diren zerbitzu batzuen finantziakortasunak diru-laguntzak arbitrariotasunez ematen ziren, administrazioaren nahiaren arabera, eta horrek ere balaztatzen zuen esku-hartzearen “profesionalizazioa”.

“Erakundeek ez zekiten zenbat jasoko zuten eta noiz jasoko zuten, eta horrek segurtasunik eza sortzen zuen. Diru-laguntzen politika prekario bat zen, atzerapenekin, irizpiderik gabekoa, eta horrek zailtasunak sortzen zituen aurrekontuak prestatzeko, jendea kontratatzeko, eta abar”.

Beste alde batetik, 70eko hamarkadan, eta batez ere 80ko hamarkadan, erakunde batzuek utzi zitoten finantziakortasun sistema jakin batzuk erabiltzea; adibidez: diru-eskeak, ongintzako ekitaldien antolaketa (kontzertua...), eta abar.

Eta beste sistema batzuetara orientatzen dira, alegia, ekarpena egiten duenari konpromiso pertsonal handiagoa eta erakundearekiko lotura es-tuagoa eskatzen dizkieten sistemetara: “hileko soldataren egun bat langa-beentzat”, “bazkidetu zaitez edo ekarpen egonkorrak egin, eta horren tru-ke informatuta izango zaitugu erakundeaz eta beraren jardunaz, inplikatu ahal izan zaitezen”, eta abar.

“Aldaketa kontzeptual bat gertatu zen. Kalera diru eske atera beharrean, gizarteari laguntza eskatzera pasatu ginen. Hori ez zen ongintzatik irte-tea soilik, baizik eta gizartea inplikatzearen eta parte hartzera bultza-zearen aldeko apustu bat ere bai. Gizartea konprometitzeko modu bat, bere betebeharra betearazteko modu bat”.

8- Erakundea garatzeko zailtasunak: laguntza tekniko edo kudeaketa tal-de bat izateko zailtasuna (koordinazioa...), programak hobetzea, pres-takuntza edo hedapenerako ekintzak gauzatzea, eta abar. Erakundeak ekintzara soilik orientatzen ziren, edo ia ekintzara soilik, eta ia ez zegoen “zeharkako arretarako” pertsonalik. Sarritan, koordinazioa, kudeaketa eta gisa bereko eginkizunak zuzeneko arretan ziharduen pertsonalak betetzen zituen, ahal zuenean.

9- Sostengurik ez izatea gizartearen aldetik, orokorrean: erakundeekin modu sakonean inplikatzin ziren pertsonak alde batera utzita, gizarteak beste alde batera begiratzen zuen, gero eta neurri handiagoan, eta ho-rrek isolamendua sortzen zuen; gizarte zibilaren kontzientziaziorik eza; eta boluntarioak eta baliabideak lortzeko zailtasunak.

10-Une historiko eta sozialarekin lotutako zailtasunak: parte-hartze soziala-ren defizita, diktadurak ezarritako debekuak, modu esplizituan edo beren existentzia eta jardunagatik beragatik indarrean zegoen “kulturatik” urrun-tzen ziren erakundeek pairatzen zituzten zailtasunak (adibidez, “*emaku-meentzat lan egiten zuen emakume talde bat izatea, emakumeek espazio publikoan aritzea begi txarrez ikusten zen garai hartan*”).

11-Erakunde batzuek beren jarduera garatzeko zituzten zailtasunak, lotu-rarik ez izateagatik baliabide propioak zituzten (sindikatuak, eliza...) ins-titutzio edo erakundeekin, hots, erakundeei eta beren jardunari sosten-gua (baliabide ekonomikoak, instalazioak, legitimitate soziala...) eman ziezaieketen instituzio edo erakundeekin.

12-Erakundeen arteko lankidetzazko testuinguru orokorrean, erakunde ba-tzuek nolabaiteko “**endogamia**” edo **urruntasuna zuten beren ingurune-tik**, eta hori, besteak beste, beste erakunde batzuekin ez kolaboratzean isla-tzen zen. Egoera horiek badute lotura “pertsonalismo” eta lidergo karismati-koekin ere, batez ere erakundeen hasierako etapetan; horrelakoek, gainera, beste inolako sustrairik ez zuten zatiketa prozesuak ekarri zituzten.

13-Aktibismoa, ezaugarri hauekin: inprobisazioa eta hausnarketa eta azterketa sakonaren falta.

14-Erreferentzia eta jardunbide egokien falta, neurri batean inprobisazioaren eragilea ere badena; edo ikasketa esanguratsua ahalbidetzen duten nahi-taezko esperimentazioa eta esplorazioa, eta esperientzia handiagoko erakundeekin kontrastatzeko beharra.

15-Distantzia geografikoa, zeren horrek oztopoak sortzen baitzituen bilerak egiteko, lankidetzan jarduteko, esperientzia trukatzeko.... Hori zailtasun berezia zen eredu berberari erantzun nahi zitzaionean -antolaketa, arreta...-, edo ekimenak lankidetzan bideratzeko, IKTak artean ere existitzen ez baitziren.

2.2.2. Alderdi positiboak

“Guztia zen posible; orduan, zer zailtasun dago? (...) Ez duzu zailtasunaren ikuspuntutik bizitzen, zeren guztia aukera baita. Bidean lortzen duzun guztia, horra hor hobekuntza”.
(GAZTELEKU)

Beste alde batetik, erakundeek *iniziatiba, sormena, ilusioa, autonomia eta konpromisoa* ikusten dituzte une historiko horretan; hala, zailtasunak ugari izan arren, oztopo “txikitzat” hartzen ziren, edo ez ziren ezta oztopotzat hartzen.

Gainera, diote, “erakundea ez zen helburutzat hartzen”; aitzitik, ikuspegia egin-kizunera zuzentzen zen argi eta garbi.

Eta erakundeak, normalean, “*erakunde irekiak*” izaten ziren: oso prest egoten ziren pertsona berriak hartzeko, beste erakunde guztiekin alor guztietan kolaboratzeko (esperientzia trukatzeko, zuzenean esku hartzeko proiektuak, eragina izatera zuzendutako ekintzak...) eta erakundea osatzen zuten kolektiboen parte-hartze aktiboa eta haien arteko lankidetzak sustatzeko (bazkideak, borondatezko laguntzaileak, soldatako pertsonak, ukitutako pertsonak,...).

Zalantzarik gabe, kasu honetan ere zaindu beharreko ezaugarriak -idealizazio-rik gabe eta oraingo unera egokituta- identifikatzen dira.

Hala, erakundeek identifikatzen dituzten alderdi positiboak hauexek dira:

1- *Erakundeekin zerikusia dutenak.*

- **Sen kritikoa, arazoentzako konponbideak bilatzeko inizatiba, eta sormena.**
- Hasierako unearen berezko **ilusioa**, gehiena eraiki gabe zegoelako eta eraiki zitekeela zirudielako; **eta geure desagerpena helburutzat izateko espiritu originala** (eginkizunera orientatzea, eraldaketarako bokazioa...).
- Eta, aldi berean, **helburuen errealismoa**, aukera eta baliabideei lotuta, behar eta arazo konkretuetan kontzentratuz, **eta lorpenei lotutako poza:**

“ahal zen lekuraino iristea, une bakoitzean erakundean parte hartzen zuten pertsonekin”; “helburuak ez ziren oso handinahiak izaten, eta horri esker lorpenak erraz samarrak izaten ziren; “ezarritako helburuak ahalegin handiak eginda lortzen zirela ikusteak ematen zuen ilusioa”.

- Hasierako garai horretan **egindako ahaleginak, erakundearen identitatea definitzeko** (eginkizuna, balioak, esku-hartze eredua...), identitate horrekin fidelak izateko eta orientazio bat ezartzeko.
- Ikaskuntza eta esperimentazio une hartan gauzatutako ekintza, **zerbitzu eta proiektuen kalitatea eta sakontasuna**.
- **Irekitasuna, arreta pertsona guztiengana orientatzea, eta zerbitzua emateko borondatea:**

“zerbait handia egin nahi genuen, egoera berean zeuden pertsona guztientzat, ez gure seme-alabentzat soilik, hori zen gure gogoa”; “erakundearen irekitasuna, bertara joaten ziren pertsona guztiak atenditzen saiatzen baitzen”.

- Hasierako etapa horretan berezkoa zen **barneko parte-hartzea**: pertsonak erakundearen bizitzan inplikatzeko ziren, erabakiak modu parte-hartzailean hartzen ziren, eta erakunde batzuek batzarren bidez funtzionatzen zuten.
- **Erakundea osatzen zuten “kolektiboen” inplikazio pertsonala, konpromisoa, disponibilitatea eta elkartasuna**: bazkideak, borondatezko kolaboratzaileak, sodatako pertsonak eta ukitutako pertsonak eta haien senideak (horiek ere, aldi berean, bazkideak, zuzendaritzako kideak eta borondatezko kolaboratzaileak ziren).

Ukitutako pertsonen eta haien familien erakundeetan: elkarrenganako laguntza, elkarri laguntzeko biltzea, eta desgaitasunak, autismoa eta horrelakoak modu positiboan bistartzearen alde borrokatzea.

- **Erakundea osatzen duten pertsona eta kolektiboen arteko harreman hurbila, konfiantza, askatasuna, enpatia eta erantzunkidetasuna**, norberaren ekarpena baloratzu eta beren autonomiaren espazioa errespetatuz (“proiektuan inplikaturako profesionalei familiek hasieratik beretik emandako balorapena eta askatasuna”).
- **Erakundeari lotutako pertsonen satisfazioa**: ekarpena egiten egotearen sentsazioa, horren itzulketa positiboa eta egindako lanaren aitortza.

2- Ingurunearekin lotutakoak.

- **Gizartea eraldatzeko egiten ari zen lana, askatasunik gabeko garai hartan.**

“Erakundearen barruan, sena gordetzen duen jende asko dugu oraindik ere. Borrokatzeko senarekin, aldatzeko senarekin eta jende militantea”. (GAZTELEKU)

“Zeu laguntzarako tresna bat zara, eta, oro har, horrela ikusten zintuzten (...) Zeu norbait zinen mutiko edo neskato horientzat -mutilak izaten ziren, batez ere-. Hogei urte pasatxo zenituen, eta hori aski zen zuretzat. Arnasten zenuen airea eta mutikoa batek “Eskerrik asko” esatea aski izaten zen zuretzat”. (AGINTZARI)

- **Hainbat alorretan egindako ekarpena:** arauen garapena, eskubideen aitortza, erantzukizun publikoko eta irisgarritasun unibertsaleko arreta-sistemen garapena (hezkuntzaren eta osasunaren alorrera eta beste alor batzuetara iristeko bidea irekitzea bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran zeuden pertsonen), eta, bereziki, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapena.**
- **Helburuen konbergentzia eta adostasuna eremu bereko erakundeen artean,** neurri batean konpartitutako koiunturak eraginda.
- **Ingurune bereko beste erakunde eta talde batzuekin kolaboratzea.**
- Erakundeek **gizartean** zuten **irudi positiboa** eta **administrazio publikoek** normalean ematen zieten konfiantza.
- **Lehenengo hitzarmenak sinatu izana administrazio publikoekin.**
- **Beste instituzio batzuek-adibidez:** Elizak edo kongregazioek- elizaren eremuko ekimen batzuei ematen zieten sostengua.

3. Bizkaiko GEHSaren erakundeen bilakaera

3.1. ERAKUNDEETAN IRAUN DUTEN, ERALDATU DIREN ETA ERALDATU BEHARKO LIRATEKEEN ALDERDIAK

3.1.1. Iraun duten alderdiak

Erakundeen esanetan, iraun duten alderdiak hauexek dira:

1- Hasierako sena eta ilusioa.

2- Erakundeen eginkizuna.

- Erakundeak sortzeko **arrazoiak**.
- Haien **helmugak eta helburuak**, beharrian berrietara egokituta.
- Haien **azkeneko hartzaileak**, nahiz eta profilek eboluzionatu duten eta haien beharrak eraldatu diren.

3- Erakundeen filosofia, printzipioak eta balioak. Eta, zehazki:

- **Esku-hartzearen funtsezko gako batzuk**, hala nola: pertsonaren aldeko apustua; harremanaren garrantzia, esku-hartzearen tresna nagusi bezala; bazterketaren jatorri sozialaren inguruko kontzientzia; orientazio eraldatzailea; eta pertsonen eskubideen aitortzara zuzendutako lana.
- **Bizkaiko GEHSaren erakundeen berezko kultura**, ereduak eta antolaketa-formak (orokorrean, nahiko parte-hartzaile eta horizontalak izaten dira), eta antolaketa-forma partikularrak; izan ere, beharrezkoak diren egokitzapenak eginda, boluntarioak dituzten erakundeak izaten dira, edo boluntarioen erakundeak, edo ukitutako pertsonen eta haien familien erakundeak.

4- Salaketarako bokazioa eta gizarte eraldaketaren aldeko konpromisoa; eskubideen aitortza eta eskubide horien erabilera erreala bilatzeko orientazioa; politika sozialen sustapena; eta erantzukizun publikoaren bermea, honelako eremuetan: hezkuntza, osasuna, enpleguaren sustapena edo gizarte zerbitzuak, besteak beste.

5- Berrikuntza.

6- Independentzia edo autonomia. Autogestioaren/autogobernuaren oinarriko printzipioak (gobernu organo independenteak) eta baliabideen bilaketa dibertsifikatu eta independentea.

7- Sarean lan egitea.

8- Toki mailako lana.

9 - Pertsona hartzaileek, soldatako pertsonak eta boluntarioek erakundearekin duten lotura.

“Egokitu egin ginen, eta ez dugu esentzia galdu; tradizioa hor dago, eta gakoek bere horretan diraute”.
(Stella Maris)

10- Erakunde-giro ona. Giro egokia mantentzea lortu da, hau da, pertsonak ondo sentitzen dira bertan, gustura eta lotura onekin.

Erakundeen ustez, iraun duten eta beren garrantziagatik etorkizunean ere iraun beharko luketen alderdi batzuk -testuinguruaren eta erakundeen aldaketetara egokitua- hauexek dira:

Erakundeek uste dute funtsezkoa dela elementu hauek mantentzea: beren identitatea (misioa, balioak, esku-hartzearen eta kudeaketaren eredua); gizartea eraldatzeko orientazioa; beren autonomia eta funtzioen oreka; toki mailako eta sareko lana; erakundearen giro egokia; eta pertsonak erakundeekin lotzen dituzten arrazoiak.

- Erakundeen *identitate*arekin zerikusia duten alderdiak, hala nola, beren misioa eta balioak, edo beren esku-hartze ereduaren eta beren antolaketa-kulturaren alderdi nagusiak.
- *Eraldaketa sozialerako* orientazioa, *berrikuntza* (behar sozial berrien detekzioa eta arreta), *autonomia* eta *funtzioen oreka*, zerbitzuen prestazioak izan duen hazkundea gorabehera.¹⁷
- *Toki mailako lana*, kontuan hartuta esku-hartze soziala estu lotuta dagoela lurraldeari eta “hurbiltasun” ekintza bat dela. Eta *sareko lana*: urteztar, zerbitzuak dibertsifikatu ez ezik, erakundeek benetako “baliabide sareak” garatu ere egin dituzte eta koordinazioak biderkatu dira, nahiz eta oraindik ere beharrezkoa den lankidetzak sakontzea.
- Erakundearen barneko *giro ona*: topagune bat eta elkarrenganako laguntzarako leku bat izatea pertsonentzat eta familientzat, eta *pertsonek erakundeekin duten lotura*, eta baita lotura horri eusten dioten arrazoi nagusiak ere. Esan dugun bezala, arrazoi horiek iraun egin dute, haien adierazpen konkretuak eta parte hartzeko formak edo haien intentsitatea eraldatu badira ere, zenbait faktore aldatu izanaren eraginez, hala nola, soldatako pertsonalaren eta kudeaketa taldeen pisua, edo pertsonen adina.¹⁸

17 Horri dagokionez, kontuan hartu behar da GEHSaren erakundeek oso aurrerapen markulak izan dituztela, azken urteotan, beren barneko egituraketa eta administrazio publikoetara eta beste eragile sozial batzuetara zuzendutako interlokuzioan. Eta, horren ondorioz, nabarmenki hazi dira politika sozialetan eta arautze-prozesuetan duten eragina. Nahiz eta oraingo krisiak eragina izan dezakeen dinamika horretan, oraingo errealitateak ez du ia zerikusirik hasierako etapekin, nahiz eta eragina izatera zuzendutako ekintzen pisu erlatiboa -azkeneko hartzaileei emandako “zuzeneko” arretari dagokionez- handiagoa izan zitekeen garai hartan, nonbait, erakunde batzuen kasuan.

Kontuan hartu behar da, halaber, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen 2010eko Urtekariaren arabera, finantziario pribatuak % 47 jarraitzen duela izaten GEHSaren erakundeetan (% 55,8 Hirugarren Sektore orokorrean), zerbitzuen prestazioak erakundearen finantziario egitura duen pisua gorabehera (% 14,7 da GEHSan, eta % 7,6 Hirugarren Sektore orokorrean) eta kuoten garrantzi txikiagoa gorabehera (% 19,9 GEHSan eta % 25 Hirugarren Sektore orokorrean).

18 Horri dagokionez, kontuan hartu behar da ezen, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen 2010eko Urtekariaren datuen arabera, Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorearen erakundeek Hirugarren Sektoreko beste erakunde batzuek baino oinarri sozial handiagoa dutela. Erakundeak % 51,8k 100 bazkide baino gehiago dituzte, eta % 53,6k bazkideen bolumena handitu dute azken 3 urteetan. Erakundeak ia erdiak “boluntarioen erakundeak” dira, eta kasuen % 80,7an boluntarioen kopurua soldatako pertsonena baino handiagoa da. Erakundeak boluntario kopurua 25 da, batez beste, eta boluntarioen kopuruak gora egin du azken 3 urteetan.

3.1.2. Eraldatu diren alderdiak

Dena dela, erakundeek beste alderdi batzuk ere identifikatzen dituzte, **hots**, beren ustez **eraldatu diren alderdiak**.

Alderdi horiek zerikusia dute hartzailleekin, esku-hartzearekin, erakundeekin berekin eta beren barneko bizitzarekin, eta ingurunearekin, beste erakunde batzuekin, administrazio publikoekin eta beste eragile sozial batzuekin duten harremanarekin ere.

Hala, hasteko, aldaketa sozialen ondorioez pertsona hartzaileren profiletan gertatutako dibertsifikazioa azpimarratzen da.

Bigarrenik, esku-hartzeen eta beren ikuspegiaren bilakaerari dagokionez, erakundeen helburuen eta jardueraren dibertsifikazioa azpimarratzen da, arretaren integritasun eta jarraikortasunari begira. Eta eskaintzen den arretaren hobekuntza, batez ere arretaren pertsonalizazioaren hazkundea.

Hirugarrenik, erakundeek berek eta beren barneko bizitzak izandako bilakaerari dagokionez, gai hauekin zerikusia duten alderdiak azpimarratzen dira:

- alde batetik, erakundeen “profesionalizazioa” eta haien tamaina eta gaitasunaren hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboa;
- eta, bestetik, oinarri sozialaren eta barneko bizitzaren bilakaera (komunikazioa, parte-hartzea, erakundea osatzen duten kolektiboen arteko harremana...), edo figura juridikoen bilakaera.

Erakundeen hazkundeak esplikatzeko, neurri batean, beren barneko bizitzaren eta beren oinarri sozialaren bilakaera, eta bi faktore horiek esplikatzeko dituzte, nolabait, figura juridikoaren aldaketak edo erakundearen antolaketa-ereduaren bilakaera.

Bukatzeko, erakundeek beren ingurunearekin duten loturari dagokionez, azpimarratu behar den elementu nagusia, erakundearen hazkunde kuantitatiboa neurri handi batean esplikatzeko duen elementua, administrazio publikoekin dagoen loturaren aldaketa da; horren eragilea da erantzukizun publikoa gero eta gehiago hedatu dela erakundeak aurretik betetzen ari ziren zerbitzuetan, batez ere gizarte zerbitzuen eremuan.

Aldaketa horrek, erakundeek kudeatzen dituzten baliabideetatik harago, nabarmenki aldatu ditu -zerbitzuen hornikuntzari dagokionez- erakundearen eta zerbitzuen gaineko erantzukizuna duten administrazio publikoen arteko harremanak.

Beste alde batetik, erakundearen hazkundearen eraginez, erakundearen barneko egituratze prozesuaren aurrerapenaren eraginez eta erakundeek sarean barnean duten lankidetzaren ondorioz, GEHSaren erakundeek protagonismo sozial handiagoa hartu dute eta haien ekintzek iraganean baino inpaktu handiagoa dute; dena

Erakundearen hazkunde kuantitatiboa (tamaina, kudeaketaren bolumena...) eta administrazio publikoekiko harremanen aldaketa bi funtsezko faktore dira GEHSaren erakunde gehienak ukitzen dituzten eraldaketak ulertzeko.

Beste aldaketa batzuek, hala nola pertsona hartzaileren profilen dibertsifikazioak, gizartearen testuinguruan gertatutako aldaketa esanguratsuekin dute zerikusia: bizi-itxaropenaren hazkundea, familia ereduaren dibertsifikazioa, urrakortasun eremuaren zabalkuntza, immigrazioa, eta abar. Eta, azkenik, arreta ereduaren bilakaerarekin.

dela, oraindik ere aurrera egin behar da egituraketan, beste eragile batzuekiko interlokuzioan (elkarrizketa zibilaren instituzionalizazioa eta elkarrizketa sozialean parte hartzea), Hirugarren Sektorearen aitortzan -eragile soziala dena aldetik- eta beraren eragimenean.

Erakundeen ustez eraldatu egin diren alderdiei dagokienez, hots, pertsona hartzaileak ukitzen dituzten aldaketa sozialengatik eta erakundeen eta administrazio publikoen arteko harremanaren aldaketengatik aldatu diren alderdiei dagokienez, hauek aipatu dira:

A. Hartzaileei dagokienez

1- Pertsona erabiltzaile eta hartzaileen profila dibertsifikatu da, batez ere urrakortasun sozialaren eremua zabaldu egin delako, zenbait faktoreren eraginez: adina, sexua, etnia, jatorria edo autonomia maila.

Faktore horietako baten edo batzuen ondorioz pertsona hartzaileen profilean gertatutako dibertsifikazioa atenditako pertsonengan antzematen den errealitate bat da, eremu guztietan (bazterketa, babesgabetasuna, mendetasuna) eta ia kolektibo guztiengan (desgaitasunak dituzten pertsonak, etxerik gabeko pertsonak...).

Ildo beretik, **familia hartzaile eta erabiltzaileen profila ere dibertsifikatu da**, zenbait faktoreren eraginez, hala nola, familia eta bizikidetzaren ereduaren dibertsifikazioa eta mota askotako pertsona eta familiengan eragina izan dezaketenen urrakortasun edo arrisku egoeren hazkundea -bazterketa, babesgabetasuna eta mendetasuna-.

B. Esku-hartzeari eta beraren ikuspegiari dagokienez

2- Helburuen bilakaera, erakundeek heldutasuna hartzen duten heinean, arreta osoa bermatzeari begira (integraltasuna) eta, ildotik, **jardueraren dibertsifikazioa**. Dibertsifikazio horrek barne hartzen ditu bai erakundeak eskaintako zerbitzuak eta bai hartzaileak; hala, adibidez, adingabeak soilik atenditzaileak haien familiak ere atenditzera pasatzen da, edo biek lan egiten duten pertsonak ere atenditzera.

Erakundeen jardunaren dibertsifikazioak beren eginkizunen bilakaera ere ekarri du berekin batzuetan, eta baita erakundearen ereduaren aldaketa ere (erakunde asistentziala izatetik inplikazio sozial handiagoko erakunde kritikoagoa izatera pasatzea).

3- Arretaren bilakaera, pertsonalizazio handiagoaren bidetik.

Esku-hartzearen kalitatea eta berotasuna, sistemak ezartzetik eta ziurtagiriak lortzetik harago, **arretaren pertsonalizazioan** adierazten da gehienbat. Hori pertsona hartzaileekin hartutako konpromisoaren emaitza da, eta baita haien errealitatekin hurbil egotearen emaitza ere, baina beraren garapenak baliabideak ere eskatzen ditu.

Arretaren pertsonalizazioa areagotu egin da urteak aurrera joan ahala, pertsona hartzaileen profilen dibertsifikazioari eta haien beharren bilakaerari erantzun nahirik.

GEHSaren erakundeentzat, arretaren pertsonalizazioak eskatzen du pertsona eta familia bakoitzarekin egotea, ikuspegi global batetik (integritasuna) eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan (etenik gabeko arreta, bizitzan zehar), berotasunez, haien parte-hartzearekin, haien errealitatera hurbilduz...

Arretaren pertsonalizazioak urte hauetan izan duen hazkundea atal honetan aipatutako alderdi batzuen emaitza da, hala nola:

- giza baliabideen hazkundea, eta horren ondorioz ratioetan gertatutako hobekuntza;
- zerbitzuen dibertsifikazioa, zeren horrek ahalbidetzen baitu arreta integralagoa eta jarraituagoa izatea;
- diagnosira, orientaziora eta esku-hartzeen jarraipenera zuzendutako tresna eta baliabideen hobekuntza;
- detekzio goiztiarrerako gaitasunaren hazkundea;
- prestakuntzarako inbertsioa eta erakundeetan lan egiten duten pertsonen etengabeko egokitzapena (boluntarioak, soldatako pertsonak...);
- hainbat alderdiren bilakaera: esparru kontzeptualena (adibidez: desgaitasunei eta haien inguruko ikusmoldeari dagokienez), esku-hartze ereduena (ikuspuntu asistentzialetik bizi-kalitatea eta osoko integrazioa bilatzen dituzten ikuspuntuetara) eta pertsona hartzaileei buruzko ikusmoldearena eta haienganako loturaren ingurukoa (esku-hartzearen objektua izatetik eskubideen subjektu eta beren prozesuaren protagonista izatera pasatuz).

“Aldaketa nagusia ekintzaren helburuan dago, hau da, pertsonak eskubide eta aukeren xede bihurtzea, baina gizartearen barnean, ez hortik kanpo” . (FEKOOR)

Beste alde batetik, ikuspegi horren aurrean, erakundeek beste zerbait aipatzen dute, alegia, arreta burokratizatzeko eta segmentatzeko arriskua, nolabait, baliabideen sarearen berezko garapenaren ondorioz; izan ere, paradoxikoa bada ere, horrek arriskuan jarriko luke arretaren pertsonalizazioa, beraren integritasuna eta beraren jarraitutasuna.

Hala, azken urteotan, erakunde batzuek nabaritu dute aldaketak gertatu direla atenditutako pertsonen ibilbideetan, baliabideen espezializazioaren eraginez; izan ere, baliabideak arian-arian espezializatu dira eratuz joan diren erantzukizun publikoko sare zabalagoen baitan (lehen, ibilbideak *“luzeagoak izaten ziren eta akonpainamendu handiagoa izaten zuten nerabegarora iritsi arte; orain, berriz, egonaldia laburragoa izaten da eta arreta gai konkretuetan espezializatzen da gehiago”*).

- 4- Ikuspegiari dagokionez, **azpimarratzekoa da pertsona hartzaileari buruzko ikusmoldean gertatutako bilakaera**: orain, eskubideen subjektua eta bere prozesuaren protagonista da, ez esku-hartzearen “objektua”. Horrek aldaketa bat ekarri du pertsona hartzailearekin dagoen loturan, eta funtsezko norabide aldaketa da esku-hartzearen ereduarentzat, urtez urte sakondu diren alderdi ugarietan islatzen den bezala.

Alderdi horien artean, aipatzekoak dira pertsonak eta familiek esku-hartzearen orientazio eta ebaluazioan duten parte-hartzea; helburuen definizio eta ebaluazioa, eskubideetatik abiatuta; pertsona hartzaileen gaitasunak aktibatzen dituzten eta, nolabaiteko sostenguz, pertsona horiek protagonizatzen dituzten ekimenen bultzada (autogestoreen programak, laneratze enpresak...); familiek erakunde batzuen gobernu organoetan parte hartzea, eta abar.

C. Erakundeei eta beren barneko bizitzari dagokienez.

5- Erakundeen hazkunde kuantitatiboa edo erakundearen tamainaren hazkundea; hori islatzen da, batez ere, plantillaren hazkundean -dena dela, azken urteotan boluntarioen kopurua ere igo da- eta kudeatutako baliabide ekonomikoen hazkundean.¹⁹

6- Zerbitzuen eta plantillen egonkortasuna eta soldatako pertsonalaren profilaren aldaketak.

Lan baldintzek hobera egin dute, batez ere erantzukizun publikoko zerbitzuak izatera pasatu diren zerbitzuen hornikuntzan parte hartzearen bidez, zerbitzuei egonkortasuna eman dieten hitzarmenak sinatzearen bitartez, eta, gainera, erakundeen interes orokorreko beste jarduera batzuk garatzera zuzendutako diru-laguntzen igoeraren bidez. Hala eta guztiz ere, erakundeak jakitun dira oraingo krisiak eragina izan dezakeela orain arte -ituraz- zegoen egonkortasunean.

Gainera, profil profesionalak dibertsifikatu dira, eta horrek ere -zerbitzuen dibertsifikazioarekin batera- arreta pertsonalizatuagoa eta integralagoa ahalbidetzen du.

Eta plantillen profilak ere eboluzionatu du: orain, belaunaldi desberdineko pertsonak integratzen dituzte, bizi-etapa desberdinetan eta egoera pertsonal desberdinetan dauden pertsonak, hain zuzen ere. Zalantzarik gabe, erakundea osatzen duten pertsonen profilaren dibertsifikazioa erronka eta aberastasuna dira erakundeentzat, baina kudeatu beharreko konplexutasun handigoa ere ekartzen du (aniztasunaren kudeaketa).

Kasu partikular bat kongregazio erlijiosoena da; erakunde horiek gero eta gehiago ireki dira, pertsona laikoak beren esku-hartze eta kudeaketa taldeetan hartzeko (baina ez hainbeste gobernu taldeetan), eta bide horretatik jarraitu beharko dute beren misioari eutsi nahi badiote, bokazio erlijiosoen jaitsiera kontuan hartuta.

7- Erakundeen hazkunde kuantitatiboak eta haien arduren **hazkundeak barneko antolaketa eta egituraketa handiagoa eta hobe eskatu dituzte**; eskatu ere gobernu eta kudeaketa gaitasunen garapena eskatu dute, eta egonkortasunak eta baliabideen igoerak berak garapen hori ahalbidetu dute.

¹⁹ Hala eta guztiz ere, erakunde gehienek ondarea oso txikia da eta, oro har, ez da igo azken urteetan.

Hala, aurrerapenak gertatu dira zenbait alderditan, hala nola:

- Zuzendaritzako postuen gaikuntza eta teknifikazioa, eta boluntarioen eta soldatako pertsonen prestakuntza.
- Kudeaketa taldeen garapena eta profesionalizazioa, proportzio hobe batzuz zuzeneko arretaren pertsonalaren (ardatz operatiboa) eta administrazio eta kudeaketa postuen artean (ardatz funtzionala).
- Administrazio eta kudeaketa postuen hazkundera, eta baita koordinazio postuena, sostengu teknikoarena, eta abar. Horrek guztiak eragina izan du antolaketaren eta esku-hartzearen hobekuntzan.
- Kudeaketa sistema eta tresnen garapena: plangintza estrategiko eta operatiboa (kudeaketa planak, aginte koadroak,...), beharren diagnosis eta prestakuntza planak lantzea, proiektuak prestatzea eta ebaluatzea, kalitate sistemak ezartzea (prozesuen mapak, prozesuen arabera kudeaketa), eta abar.

- 8-** Halaber, hazkunde kuantitatiboak **konplexutasun handiagoa ekarri du komunikazioen behar eta dinamiken aldetik ere, erakundeen barruan;** horren eraginez, ahaleginak bideratu eta sistema berriak sortu behar izan dira zenbait alderdi iraunarazteko, egin beharreko egokitzapenekin; adibidez: erakundea osatzen duten pertsonen erakundeaz duten ezagutza, eta nahi-taezko barne gardentasuna; edo erakundea osatzen duten kolektiboek eta taldeek erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea.

Hala, gero eta zailagoa izan da alderdi batzuk bermatzea, hala nola, erakundea osatzen duten kolektiboek erakundeaz duten ikuspegi orokorra (beraren errealitatea, egoera, jardura...); eta gobernu organoak egokitu behar izan dira erakundearen eta beren ingurunearen konplexutasun handiagora eta kudeaketa taldeen pisuaren hazkundera.

- 9-** Beste eraldaketa esanguratsu bat, hazkunde kuantitatiboak neurri batean soilik esplikatzen duena, **erakundeak osatzen dituzten kolektiboaren arteko harremanen aldaketak dira** (familiak, boluntarioak, soldatako pertsona...).

Zalantzarik gabe, kontratatutako pertsonen kopuruaren igoerak eta kudeaketa taldeen garapenak barneko indar-korrelazioa aldatu dute eta, neurri handi batean, erakundeetako kolektiboaren rola aldatu dituzte.

Hori lagungarria izan da boluntarioen rola argitzeko -zailtasunak eta tentsioak ere izan dituen prozesu batean-, soldatako pertsonalaren roletik bereiziz, edo gobernu organoen rola eta kudeaketa taldeena bereizteko.

Beste alde batetik, badira kolektiboaren arteko harremanen aldaketan eragina izan duten beste faktore batzuk -erakundearen, plantillaren eta kudeaketa taldeen hazkunde kuantitatiboaz gain-.

Faktore batzuk aurretik aipatu ditugu, senideen adinari buruz hitz egin dugunean; beste batzuek, berriz, zerikusia dute parte-hartze sozialaren formarekin, batez ere boluntarioei dagokienez; izan ere, haien kopuruak gora egin badu ere, badirudi beren dedikazioaren intentsitatea jaitsi dela (ordu kopuru aldetik), eta baita erakundearekin duten lotura-aldiaren iraupena ere. Eta gauza bera gertatzen da erakundearen inplikatzeko prest egotearekin, parte hartzen duten jarduera konkretutik harago.

Hala, testuinguru horretan, **eraldaketak gertatu dira** erakundeak osatzen dituzten kolektiboen parte-hartze, **inplikazio eta konpromisoaren forma eta intentsitatean**.

Eta zenbait alderdi moteldu egin dira; adibidez: boluntarioek barneko bizitzan duten parte-hartzea jaitsi da; erakundearen parte hartzen duten senideen eta soldatako pertsonalaren arteko lotura ez da iraganean bezain estua, presentziala eta egunerokoa, nahiz eta hurbiltasuna, konfiantza eta -batzuetan- taldekako lana mantendu egin diren (batzorde mistoak...).

Bazkideen eta boluntarioen parte-hartzearen jaitsieran eragina izan duen beste faktore bat zerbitzuen garapena bera izan da; gainera, hasierako etapetan ez bezala, orain ez da beharrezkoa ia guztia eraikitzea, eta horrek ere izan du eragina.

Testuinguru horretan, batzuetan, bazkideak zerbitzuen erabiltzaile bezala lotzen dira gehiago erakundeekin, bazkide bezala baino, eta hori erakundearen berezko identitatearen kontrakoa da.

Ukitutako pertsonen eta beren familien erakundeetan, familien eragina jaitsi egin da kudeaketaren profesionalizazioagatik eta beste faktore batzuegatik, hala nola, haien adin eta egoeragatik. Nolanahi ere, jarraitzen dute gobernu organoen kide izaten eta elkarteen barneko bizitzan parte hartzen.

Soldatako pertsonalaren kasuan, belaunaldi berri bat sartu da erakundeetan; gainera, lan baldintzen hobekuntzagatik, bizi-zikloen aldaketagatik (seme-alabak zaintzea, gazteenen kasuan, eta gurasoak zaintzea, lehengo belaunaldikoen kasuan):

- nolabaiteko berrikuspena gertatu da konpromiso profesionala ulertzeko forman;
- dedikazioak behera egin du, aurreko etapen aldean;
- eta, agian, nolabaiteko aldaketa gertatu da soldatako pertsonalaren eskubide eta betebeharrei buruzko pertzepzioan.

Gainera, belaunaldi berriak erakundeetan sartzeak baditu beste ondorio batzuk, hots, badirela kultura eta balio desberdinak gai batzuen inguruan; adibidez: pertsona hartzaileekiko harremanen inguruan eta erakundearen barneko bizitzaren inguruan.

10- Figura juridikoaren eta antolaketa-ereduen aldaketak.

Erakundeek izandako hazkundeak eta haien barneko bizitzan gertatutako aldaketek eraldaketak eragin dituzte antolaketa-ereduetan eta, kasu batean, figura juridikoan.

Hala, adibidez, lan honetan parte hartu duen erakunde bat elkartea izatetik gizarte ekimeneko kooperatiba izatera pasatu da; irabazi-asmorik gabeko izaera gordeta, era horretan hobeto adierazten du, agian, erakundea gaur egun osatzen duten pertsonen loturaren izaera: haurren eta gazteen egoera hobetzea, lan jardueraren bitartez.

Beste adibide bat kongregazio erlijiosoena izango litzateke; izan ere, zenbait antolaketa-eredu probatzen ari dira beren misioari eusteko eta laikoan parte-hartzea beren ekimen eta proiektuetan bideratzeko.

Kasu horretan eta beste batzuetan, gertatu dena da erakundearen oinarri soziala eraldatu egin dela, eta horrek, gutxienez, antolaketa-ereduaren berrikuspena ekarri du berekin.

Hala, erakundeen antolaketa-ereduen eta figura juridikoen inguruko ezta-baida irekita dago zenbait motatako erakundetan.

D. Ingurunearekiko loturari dagokionez

11- Erakundeek ingurunearekin duten loturari dagokionez, azken bi hamarkadetak alderdi esanguratsuen da, zalantzarik gabe, **administrazio publikoekiko harremanetan gertatutako aldaketa**; horren eragilea da, gizarte zerbitzuen eremuan, administrazio publikoek beren gain hartu dutela erakundeak betetzen ari ziren zerbitzu gehienen azkeneko erantzukizuna.

Aldaketa horrek baditu ondorioak baliabide ekonomiko eta materialen esku-ragarritasun eta egonkortasunean, baina baita beste alderdi batzuetan ere, hala nola, zerbitzuen definizioan eta bertara iristeko betekizunetan, edo administrazio publikoek -haien erantzukizuna duten aldetik- haien kudeaketaz egiten dituzten ebaluazio eta kontrolean.

Hala, erakundeek ikusten dute administrazioarekin duten lotura egiturago eta formalizatuago dagoela, erantzukizun publikoko zerbitzuak betetzeari dagokionez; hori ez da hitzarmen, itun edo kontratuak sinatzearen bidez soilik egiten (diru-laguntzen sasoia gainditu eta gero), baizik eta baita protokoloak, estandarrak eta esku-hartzerako tresnak formalizatzearen bidez ere, lan batzordeen bidez, eta abar ("*normatibizazioa*" edo "*normalizazioa*"). Gainera, prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko betekizun eta prozedurak formalizatu eta egituratu dira, bereziki.

Beste alde batetik, nahiz eta -orokorrean- bi alderdien aldetik malgutasun nahikoa mantentzen den egoera partikularrei erantzuteko, zurruntasunaren arriskua hor dago, eta gerta liteke eskaria bera sortzen diren zerbitzuen edo baliabide sareen arabera egituratzea, eta ez hainbeste malgutasunetik eta pertsonen beharretatik hurbil egotetik, hasierako garaian gertatzen zen bezala, hau da, baliabide gutxiago zeudenean eta pertsonak bertara zuzenean iristen zirenean, administrazioetik pasatu gabe.

Azpimarratzen den beste eraldaketa bat esku-hartzea ²⁰ eraldatzen duten estandar, protokolo eta prozeduren hazkundearekin du zerikusia (plangintza, erregistro eta ebaluazioaren alorrean,...), eta baita zerbitzuak eta haien kalitatea ebaluatzeko eredu edo irizpideekin ere (metro karratuak, ratioak, pertsona hartzaileen gogobetetasuna,...)..

Beste alde batetik, “normalizazioak” eredu jakin batzuk ezartzen ditu, baina eredu horiek beste batzuk ere izan litezke, zerbitzua bestelako ikuspegi batek baloratzen bada: pertsona hartzaileek eta beren familiek esku-hartzearen definizioan parte hartzea; haien beharretara malgutasunez egokitzea; harrera eta akonpainamendua ikuspegi integral batez; beren beharren eboluzioari aurrea hartzea, eta abar.

Horri dagokionez, bai erakundeek eta bai administrazio publikoek oreka ego-kia bilatu behar dute zerbitzuetan, zerbitzu bakoitzaren esku-hartzeek nahi-taez behar dituzten formalizazioa, estandarizazioa eta segmentazioa arretaren kalitatearekin uztartzeko. (integritasuna, jarraitutasuna, pertsonalizazioa...). Eta oreka gorde behar dute normalizazioaren eta autonomiaren artean, hurbil-tasunetik erantzuteko gaitasuna eta esku-hartzearen erantzukizuna bere gain hartuz eta esperientzia egiaztatua duenaren trebetasuna zainduz.

Erantzukizun publikoa hartzeko eta zerbitzuak “normalizatzeko” prozesu horri datxekion beste arrisku bat da GEHSaren erakundeak zerbitzuak betetzen di-tuzten erakunde hutsak kontsidera daitezkeela, eta administrazio publikoekin duten lotura “bezero-hornitzaile” lotura huts kontsidera daitekeela.

Hala eta guztiz ere, arrisku hori ez da oraingoz errealtate bihurtu. Izan ere, era-kundeek zerbitzuen hornikuntzan parte hartzen dute (definizioa, orientazioa, ebaluazioa, kontrola...), eta administrazioarekin duten lotura lankidetzaren eta erantzunkidetasunaren ikuspuntutik planteatzen da, pertsonentzako arretari eta haien bizi-kalitatearen hobekuntzari begira, horiek bi alderdien helburuak baitira, zerbitzu konkretuak betetzetik harago joanez.

Aipatzen den beste arrisku bat da erantzukizun publikoko sistemen garape-nak, eskubideak bermatzeaz gain -eta hori positiboa da-, beste erantzun ba-tzuk desaktibatzerantz eraman dezakeela edo erantzun horiek absorbitu ditza-

20 «Gure esku-hartzea burokratizatzen denean, jardueraren esparruak “papeleoaren” zati horrekin uztartu behar dira. Horrek esku-hartzea eraldatzen du, eguneroko jarduna eraldatzen du; horren eraginez, protokoloak hartu behar dira kontuan erabakiak har-tzerakoan, eta pertsona profesionalen prestakuntza ere eraldatzen du”.

keela -pertsona, familia, komunitate edo gizarte mugimenduen erantzunak, besteak beste-.

- 12-** Erakundeen bolumen ekonomikoaren hazkundeak, eta batez ere bertan lan egiten duen soldatako pertsonalaren hazkundeak, beste zenbait faktoreekin batera -adibidez: kudeatzen dituzten zerbitzuen gaineko erantzukizun publikoaren hazkundera-, **presentzia sindikala** areagotu dute GEHSaren erakundeetan.

Presentzia hori positiboa da, eta lagungarria da lan baldintzak hobetzeko; dena dela, dirua irabazteko edo merkataritzako eremuan eta eremu publikoan ez bezala -hor egindako ibilbidea eta bertako esparruak garbiagoak baitira-, beharrezkoa dirudi:

- GEHSaren erakundeek eta erakunde sindikalek aurrera egin behar dutela elkarren ezagutza eta aitortzan, elkarrekin kolaboratu dezaketen eragile bezala, sektorearen lan baldintzak hobetzeko ez ezik, presentzia eta eraldaketa sozialaren ikuspuntutik ere.
- GEHSaren langileek rol aktiboa hartzea mundu sindikalean eta negozioazio kolektiboan, sektorearen kultura eta gakoetatik;
- erakunde sindikalek hobetzea GEHSaren erakundeez duten ezagutza eta sektorean presentzia izateko eta lan egiteko estrategia espezifiko bat garatzea, erakundeek ezaugarri, kultura, misio eta ekarpen sozialera egokituta.

- 13-** Beste alderdi garrantzitsu bat **krisiaren inpaktua** da, nahiz eta orain dela gutxi sortutako alderdi bat den, bertan hartu dugun ikuspegi historikotik begiratuta. Krisi horrek ondorioak izan ditu eta izango ditu, epe labur, ertain eta luzera, bai pertsonengan eta bai sektore publikoan eta erakundeetan, eta aitzakia bezala erabiltzen ari da eskubide sozialen murrizketarako, zeren irtenbide hori eskura dagoen aukera bat besterik ez baita, eta ez alternatiba bideragarri bakarra.

Oraingoz, gizarte zerbitzuen eremuan soilik:

- erantzukizun publikoko prestazio eta zerbitzu batzuetara iristeko betekizun orokorrak berraztertzea eraman du, kolektibo jakin batzuk kanporatzeko xedez;
- modu nabarian konprometitu ditu administrazio publikoen sustapen ekintzei asignatutako baliabideak (diru-laguntza); horrek eragina izan du erakundearen interes orokorreko jardueretan, hots, erantzukizun publikoko zerbitzuen prestaziotik kanpo dauden jardueretan eta, azken batean, eragina izan du jarduera horien onuradunengan;
- hitzarmen, kontratu edo itunen zenbatekoak izoztu edo murriztu ditu, eta horrek zerbitzuen desagertzea eta langabezia sortu ditu, eta/edo kalte egiten die lan harremanei eta, ondorioz, arretaren kalitateari.

Testuinguru horretan, erakunde batzuek beren bideragarritasuna bera ere dute kolokan -maniobratzeko gaitasun txikiarekin, baliabide propiorik edo kanpoko sostengu nahikorik ez izateagatik-. Eta, horren ondorioz, elkarteen sarea suntsitu egin daiteke, batez ere neurri txiki edo ertaineko erakundeen sareak, nahiz eta ekarpen esanguratsua egiten duten toki mailan edo kolektibo konkretuentzat.

Bukatzeko, ikusteko dago zer inpaktu izango duen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoen aplikazioan, alderdi hauei dagokienez: beraren unibertsalizatorako epea, katalogoaren prestazio eta zerbitzu bakoitzaren definizioa, edo erabiltzailea izateko betekizunak.

- 14-** Beste funtsezko elementu bat **GEHSaren egituraketa-prozesua** da, zeren **lankidetza handiagoa** sortzen ari baita **erakundeen artean**, herritarrek sensibilizatzaera zuzendutako ekintzetan, batez ere salaketara eta eskubideen sustapenera zuzendutakoetan; eragina izaten ari da, halaber, politika publikoak alor sozialean eraikitzeke lanean.

Lankidetzan sakontzeko, sareek talde propioak izateaz gain, garrantzitsua da zuzeneko esku-hartzearen alorreko erakundeek (lehen mailako erakundeak) modu aktiboan parte hartzea sareek bultzatzen dituzten eragin-ekin-tzen orientazio, gauzape eta ebaluazioan.

Eta, beste alde batetik, egituraketa-prozesu hau lagungarria izan beharko litzateke lankidetza horizontalak (zuzenekoak) aktibatzeke edo biziberritzeke, zuzeneko esku-hartzearen alorreko erakundeen artean, pertsona hartzaileenganako arretarekin lotuta.

Hala, asmoa izango litzateke sektorea **atomizatzeko eta zatikatzeke prozesuari** aurre egiten laguntzea -prozesu horrek ere presentzia baitu-, esku-hartzearen eremuko erakundeen praxiarekin deskonektatutako ordezkaritza -gainegitura bat sortzeko arriskua saihesteaz batera; izan ere, batzuetan, erakunde horiek zenbait motatako zailtasunak aurkitzen dituzte beste erakunde batzuekin kolaboratzeko eta sareetan modu aktiboan parte hartzeko; horri begira, beharrezkoa da zailtasun horietaz hausnartzea eta haien gainean eragina izatea.

- 15-Enpresak gizarte zerbitzuen eremu jakin batzuetan sartu dira, batez ere adineko pertsonenganako arretaren eremuan, eta horrek eremu horren eta beste batzuen merkantilizazioa ekar dezake,** hirugarren sektoreko erakundeek egindako ekarpen historikoaren balioa eta erantzukizun publikoko zerbitzuen prestazioari erantsitako balioa gutxietsiz.

Adineko pertsonenganako arretaren eremua kasu partikular bat da, eta agian aurrekari bat ere bai, zeren enpresak berak beste eremu batzuetara hedatzen ari baitira beren jarduerak; adibidez: babesgabetasun egoeran dauden adingabeenganako arretaren eremura.

“Sektoreko lan baldintzak duintzen hasi zirenez geroztik, etekin ekonomikoa ateratzeko aukerak ere hasi ziren sortzen, eta horrek ekimen merkantila ere erakarri zuen”. Sektore merkantilak negozio-nitxoak aurkitu zituen gizarte zerbitzuen eremuan, baina beraren etorrerak, behar errealak betetzen baditu ere, hirugarren sektorearen ingurunea desitxuratzen du”.

Merkantilizazioa ekimen pribatuak zerbitzuen prestazioan -dirua irabazteko asmoz- parte hartzetik harago doa, zeren eragina baitu beste alderdi batzuetan ere; izan ere, aldatzen dira eragileek beren funtzionamendurako erabiltzen dituzten irizpideak (enpresa-irizpideak) eta administrazio publikoek jarduna baimentzeko erabiltzen dituztenak. Irizpide horien artean, berebiziko garrantzia hartzen dute enpresen etekin ekonomikoaren maximizazioak eta administrazioak lor dezakeen “aurrezpen” ekonomikoak.

Hala, adibidez, enpresek beren gain hartzen dituzte egin beharreko inbertsioak -hirugarren sektoreko erakunde askok ezin dute hori egin-, zerbitzuak oso epe luzera eskuratzearen truke, kontzesioen bidez; gainera, kontzesio horiek “lankidetzat publiko-pribatuko forma” berrien esparruan garatzen dira, hau da, azpiegitura handiak eraikitzeko eta ustiatzeko diseinatuta egon arren gizarte zerbitzuen alorrera eramaten diren “lankidetzat publiko-pribatuko formak” erabiliz.

Horrelako lankidetzak, izatez, enpresentzat erreserbatutako eremu bat dira, eta, izatez, haien presentzia txikia da adineko pertsonenganako arretaren eremutik kanpo; hala eta guztiz ere, garrantzitsua da ekimen pribatuak gizarte zerbitzuen hornikuntza orokorrean parte hartzearen inguruko hausnarketa planteatzea, termino ekonomiko hutsetatik harago joanez.

Eta berarentzat berreskuratzea hirugarren sektoreko erakundeen esku-hartze eta kudeaketa ereduarekin eta beraren oinarritzko balioekin zerikusia duten beste dimentsio batzuk: pertsona hartzaileekin hartutako konpromisoa, haien parte-hartzea, arretaren integritasuna eta jarraitutasuna, kudeaketaren eta helburu sozialaren arteko koherentzia, langileen zaintza, eta abar.

Dimentsio horiek defendatuz, eztabaida beste eremu batean planteatzen ari gara, hau da, kudeaketaren eremuan, arretaren kalitatearen eremuan, eta erakundeek erantzukizun publikoko zerbitzuen prestazioari erantsten dioten balioaren eremuan. Administrazioei dagokienez, berriz, haien ardurara da ebaluatzea ea erakundeekiko lankidetzat -edozein motatako erakundeekin- lagungarria ote den alderdi horiek bermatzeko.

Beste alde batetik, merkantilizazioak badu beste ondorio bat, alegia, administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanen eraldaketa; izan ere, zerbitzuen hornikuntzan kolaboratzetik “kontratista-hornitzaile” formaz definitutako lotura batera pasatzen da. Batzuetan, nahiago izaten da lankidetzat eredu hori nolabaiteko jarrera kritikoa berekin ekar dezakeen eredu bat baino.

Merkantilizazioa ez dago lotuta dirua irabazteko asmoa aukeratzearekin soilik.

Horrez gain, beste alderdi batzuen artean, administrazio publikoen eta gizarte ekimenaren arteko lankidetzat hitzarmena aldatzea da, bezero-hornitzaile lotura bihurtuz.

Bukatzeko, bai zeharkako kudeaketa sustatzen bada, enpresen bidez, eta bai zuzeneko kudeaketa sustatzen bada, beste arrisku bat ager liteke, hau da, sektore publikoa hirugarren sektoreari eskerrak ematera mugatzea, bertako zerbitzuengatik: *“Primeran egin duzue, eskerrik asko zuen lanagatik, baina eredu birplanteatu behar dugu”*.

Gainera, aipatu dugun bezala, erakundeak zerbitzuen prestazio hutsera berrorientatzen badira, horrek galera nabaria ekarriko luke identitatearentzat eta erakundeen ekarpen sozialarentzat.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektore osoak ikuspegi eta estrategia konpartituak garatu ditzala. Horren bidez, sektoreak oraingo arreta eredu eta sistemen eraikuntzan duen balio historikoa nabarmentzeaz gain, bere oraingo ekarpenaren garrantzia erakutsi eta azpimarratuko luke.

Eta ekarpen horri eustea, bai orokorrean eta bai konkretuki, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa arian-arian konfiguratu diren zerbitzuen hornikuntzari dagokionez; horri lotuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren konfigurazioari dagokionez, erantzukizun publikoko eta kudeaketa mistoko sistema izatea defendatu behar da, ekimen pribatu sozialaren parte-hartze mardularekin.

- 16-** Bukatzeko, aipatu den bezala, erakundeen hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboak **inpaktu handiagoa** ekarri die **beren ekintza eta zerbitzuei, eta areagotu du erakundeen eta beren jardunaren ospea edo agerikotasuna.**

3.1.3. Eraldatu beharko liratekeen alderdiak

Atal hau bukatzeko, erakundeen iritziz **etorkizunean eraldatu beharko liratekeen edo aurrera egiten jarraitzea eskatuko duten alderdiak** aurkeztuko ditugu. Honako hauek dira:

- 1- Erakundea osatzen duten pertsonak beraren barneko bizitzan dituzten parte-hartze eta inplikazioa,** alderdi hauek azpimarratuz:
 - Erakundea osatzen duten kolektiboen rolen bilakaera, ezein kolektiboaren ekarpena galdu gabe.
 - Familien presentzia eta inplikazioa, bai elkartearen bizitza orokorrean eta bai, konkretuki, zentro eta zerbitzuen konfigurazioan.
 - Soldatako pertsonalak eta boluntarioek erakundearen parte-hartzea.
 - Gobernu organoen eta kudeaketa taldeen arteko oreka, eta bakoitzaren espazio propioaren errespetua.
- 2- Erakundeen eta haien finantziazio-iturrien egonkortasuna;** eta, bereziki, erantzukizun publikoko zerbitzuen finantziazioaren egonkortasuna.

Beharrezkoa da nolabaiteko egonkortasuna izatea, gauzatzen diren esku-hartzeen eta xedetzat hartzen diren pertsonen izaera kontuan hartuta, baliabideak modu egokian planifikatu eta antolatu ahal izateko, soldatako pertsonalaren errotazioak saihesteko, eta abar.

Ezegonkortasunak badu eragina arretaren kalitatean; gainera, baliabideak eraginkortasunik gabe erabiltzen direla adierazten du, eta kostu ekonomikoa ekartzen die administrazio publikoei eta erakundeei.

Eremu batzuetan, beharrezkoa da urte anitzeko hitzarmenak sustatzea edo atzerako pausuak saihestea; izan ere, zenbait kasutan, lau urteko lehiaketak planteatzetik urtebeteko gehi luzapena planteatzera pasatu da.

- 3- **Zerbitzuen eta arretaren hobekuntza etengabea**, irizpide hauek oinarritzat hartuta: malgutasuna, integritasuna, jarraitutasuna eta arretaren pertsonalizazioa.

- 4- **Testuinguruaren bilakaerara egokitze behararen, beharrian berrien... eta erakundearen identitatearen (misioa, balioak...) arteko oreka.**

Eraldaketa eta berrikuspen etengabea beharrezkoak dira beharrianetara egokitze eta, aldi berean, erakundearen filosofiarekin koherentea izateko.

- 5- **Berriztatze eta beharrianen eta haien bilakaerari arin erantzuteko gaitasuna**, ikuspegi global eta sistemikoak hartuz, eta baita jokabide proaktiboak ere, errealitate hurbiltzeko eta errealitateari aurrea hartzeko.

- 6- Biztanleria orokorraren **sentsibilizazioa**, estereotipoak, pertzepzioak, jokabideak eta -azken batean- bizitzeko estiloak eraldatzera zuzendua, erakundearen esku-hartzearen funtsezko dimentsiotzat hartuta.

- 7- **Erakundearen ikuspegi erlazionala** bultzatzea. Gizartearekin eta erakundearen hartzaileren kolektiboarekin konektatzea, “multistakeholder” ikuspegitik (hau da, erakundearen interes-taldeak kontuan hartuta, bakoitza bere ezaugarriekin), haien beharrak etengabe ezagutzeko eta atenditzeko eta haien itxaropenak kudeatzeko; eta, horrekin batera, marketina eta kanpo komunikazioa, erakundearen ekarpen soziala, jarduerak eta kudeaketa ezagutzera emateko.

- 8- Erakundearen eta haien ekarpen sozial eta diferentzialaren **aitortza**, bai administrazioen aldetik eta bai gizartearen aldetik. Eta Hirugarren Sektorearen aitortza, eragile soziala den aldetik, gutxienez esku-hartze sozialaren eremuan diharduten erakundeei dagokienez (gizarte ekintza, garapenerako nazioarteko lankidetzak...).

9- Gobernu organoak berriztatzea eta errealtatetik hurbil jartzea, erakundearen eguneroko zereginera eta hartzaileen ondoan egoten diren pertsonengana hurbiltzea, eremu jakin batzuetan diharduten erakundeetan; adibidez: adineko pertsonenganako arretaren eremuan diharduten erakundeetan.

Izatez edo beren estatutuen aginduz berriztatzen ez diren eta beste garai historiko batean ezarritako osaketa duten patronatu-batzorde batzuek gero eta zailtasun handiagoak dituzte erakundea orientatzeko eta laguntzeko; horrelakoetan, langileak eta boluntarioak dira erakundearen bizitzan eta funtzionamenduan benetan inplikatzeko direnak.

Izatez, *“gobernu organoa eraldatu denean, hori egin orduko erakundea berpizten da ia automatikoki, zeren hartzen diren erabakiak errealtatearekin eta erakundearen bizitzarekin konektatzen baitira berriz ere”*.

Gainera, ingurunea eta barneko errealtatearen berezko bilakaera aldaketa-prozesuak abiatzera bultzatzen ari dira erakunde horiek; *“horrelakoetan, garrantzitsua da inplikatzeko erakundea osatzen duten kolektiboak, hala nola, gobernu organoa, proiektuari orain arte eutsi dioten mojen komunitatea, soldatako pertsonala, boluntarioak eta egoitzan dauden pertsonak berak”*.

10- Informazio eta Komunikazioaren Teknologien erabilera, eta berrikuntza teknologikoa.

Horien gabezia nahiko hedatuta egon da azken hamarkadotan erakundeen, bai esku-hartzearen ikuspuntutik eta bai erakundeen kudeaketan eta barneko bizitzan ere.

Nahiz eta IKTek kudeaketa prozesu batzuk aldatu dituzten (informazioaren kudeaketa, barneko eta kanpoko komunikazioa...), eta “bretxa digital” deritzana gainditzeko edo erabiltzaileentzako arreta “on line” garatzeko ekintza batzuk gauzatu diren arren, sektoreak ez ditu oraindik ere erabat bereganatu IKTen potentzial osoa eta beraren dimentsioak.

Desgaitasunen alorrean edo adineko pertsonenganako arretaren alorrean -besteak beste-, oinarri teknologikoko berrikuntza sozialak garatzen ari dira; horien protagonistak inbertitzeko ahalmena duten enpresak izaten dira, batzuetan Hirugarren Sektoreko erakundeen lankidetzarekin.

3.2. BIZKAIKO GEHS-AREN HISTORIAKO MUGARRIAK ETA ETAPAK

Jarraian, erakundeentzat mugarri izan diren funtsezko elementu batzuk aurkeztuko ditugu; testuinguruaren elementu garrantzitsu horiek erakundeen bilakarearen oinarrian daude, eta baita Bizkaiko Gizarteko Ekintzako Hirugarren Sektorearen etapen oinarrian ere.

3.2.1. Mugarriak (testuinguruaren funtsezko elementuak)

Identifikatutako mugarriek alderdi hauekin dute zerikusia:

- trantsizio demokratikoa, garapen autonomikoa eta Ongizate Estatuaren eraikuntza;
- arauen garapena eta planen lanketa;
- esku-hartzearen filosofian gertatutako aldaketak;
- 80ko hamarkadako krisi industrial, 1993ko eta 2008ko krisiak...;
- pertsona hartzaileen kopuruaren hazkundera eta haien profilaren dibertsifikazioa;
- eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen finkapena, antolaketa eta egituraketa.

Zenbait kasutan, aurretik aipatuta zeuden eta hemen garatu ez ditugun alderdiak dira. Laburbildurik, hauexek dira:

TRANSIZIO DEMOKRATIKOA, GARAPEN AUTONOMIKOA ETA ONGIZATE ESTATUAREN ERAIKUNTZA

1- Trantsizio demokratikoa, garapen autonomikoa eta Ongizate Estatuaren eraikuntza.

- Demokraziaren etorreraren eraginez, administrazio publikoak konpromiso handiagoa hartu zuen alor sozialean, eta Estatu autonomikoaren konfigurazioa lagungarria izan zen hori bultzatzeko.

Trantsizioa garai emankorra izan zen, eskubideen aitortzari eta politika sozialen definizioari dagokienez; izan ere, alor sozialean garrantzitsuak ziren hainbat ekarpen alor politikora eraman ahal izan ziren, eta gauza bera gertatu zen eragile sozialen proposamenekin -orokorrean- eta gizarte ekimenaren proposamenekin -konkretuki-.

Batez ere hasierako etapetan, harreman samur eta arina zegoen administrazioaren, alderdi politikoen eta gizarte eragileen artean... eta gizarte ekimenak modu aktibo eta zuzenekoan parte hartzen zuen politiken definizioan. Gainera, trantsizioan zehar, herritarren parte-hartzea eztabaida sozialaren osagaia izaten zen eta politiken zeharkako helburutzat hartzen zen, batez ere gizarte ekintzaren eremuan.

EAEko konfigurazio instituzionala, eskumenen eskualdaketarekin (oraindik ere bukatu gabe)²¹ eta transferentzien betearazpenarekin, herritarren bizi-kalitatean inpaktu handia izan zuen prozesu bat da, eta berari esker eraiki eta garatu ahal izan da Ongizate Estatua.

Demokraziaren etorrerak, Estatu autonomikoaren konfigurazioak eta gizarte ekimenarekiko lankidetzak ahalbidetu dute Ongizate Estatuaren eraikuntzan aurrera egitea.

²¹ Izatez, gizarte eta enpleguaren alorreko eskumen garrantzitsu batzuen eskualdaketa EAEko azken legegintzaldian gauzatu da.

Ongizate Estatua gizarte ekimenaren parte-hartze aktiboarekin eraiki da, batez ere hezkuntzaren²² eta gizarte zerbitzuen eremuan, baina baita beste eremu batzuetan ere, hala nola, diru-sarreraren bermean eta enpleguaren eta okupazioaren sustapenean, laneratze eredu propioak garatuz, edo osasunaren alorrean, batez ere gaixotasun kronikoak eta urrakortasun eta bazterketa egoerak pairatzen dituzten pertsonen arretari dagokionez, eta baita zeharkako politiketan ere; adibidez: gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko politikan.

- Hala eta guztiz ere, ekimen publikoak eta gizarte ekimenak gizarte zerbitzuen hornikuntzan izandako lankidetzaren estuko etapa horren ostean, gizarte ekimena bigarren planoan edo erantzukizun publikoaren eremutik kanpo jartzen duen instituzionalizazio eredu baterako joera antzematen da, alde batetik, eta merkantilizatorako joera, gutxienez eremu jakin batzuetan, bestetik.

Dena dela, gizarteak ezin onar dezake eragile honen ekarpena galtzea. Eta ukitutako pertsona, familia eta kolektiboek berek beren burua antolatzeko eskubidea izan beharko lukete, beren beharrei erantzuteko, eta hor sartzen da beren parte-hartzea politika publikoen diseinu, gauzapean, jarraipen eta ebaluazioan eta zerbitzuen hornikuntzan.

Gizarte ekimenak Ongizate Estatuaren eraikuntzan duen parte-hartzea EBko Itunean, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuaren formalizatu beharko litzateke.

Gizarte ekimenak Ongizate Estatuaren eraikuntza eta hedapenean duen parte-hartzea formalizatuta egon beharko litzateke EBko Itunean, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuaren, eta esparru horretatik gainerako araudietara eraman beharko litzateke.

Ahalegin horrek abiapuntutzat hartu beharko litzateke eragile bakoitzak (ekimen publikoa, pribatua eta pribatu soziala) jokatu behar duen rolari buruz Europar dauden eredu edo ikusmoldeak, gizarte zerbitzuen hornikuntzari dagokionez: gizarte ekimenarekiko subsidiarotasunetik zuzeneko kudeaketa publikora.

Eta, halaber, kontuan hartuta hainbat eremutan dauden esperientziak (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak...) eta kolektiboak (desgaitasunak dituzten pertsonak, adineko pertsonak...), eremu geografiko edo funtzional bakoitzaren espezifikotasunak errespetatuz baina printzipio edo irizpide komun batzuk ezarri.

Beste alde batetik, gizarte zerbitzuen eremuaren modukoetan, ezinbestekoa da toki mailako esku-hartzea argitzea eta bultzatzea.

Hori da gai nagusia, eta gaur egun ere, 30 urte igaro eta gero, konpondu gabe dago: eskumenak zehaztasunez bereiztea udal eta aldundien artean, udal finantziarioa, foru eta udal erantzukizuneko zerbitzuak lurraldean hedatzea, eta lehen eta bigarren mailako arretaren zerbitzuen arteko koordinazioa/lankidetzaren, arretaren integritasuna, jarraitutasuna eta pertsonalizazioa bermatzeko.

²² Alor horretako mugarri garrantzitsu bat Hezkuntza Hitzarmenaren figuraren garapena da.

ARAU-GARAPENA ETA GIZARTE EKINTZAREN EREMUKO POLITIKEN GARAPENA, ETA HIRUGARREN SEKTOREAK HOR DUEN PARTE-HARTZEA

2- Arau-garapena (legeak, dekretuak...) eta planen lanketa.

Legediaren garapena Ongizate Estatuaren eraikuntzarekin batera gauzatzen da, eta batzuetan geroago finkatzen du Estatu hori, batez ere gizarte zerbitzuen sistemaren garapenari dagokionez.

Lehen esan dugunez, gizarte zerbitzuen euskal legeek (1982, 1996, 2008) aurreko etapan lortutakoa finkatu dute eta bidea ireki diote hurrengo etapari.

Autonomia pertsonalaren sustapenari eta mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arretari buruzko 2006ko Legea, berriz, lagungarria izan zen gizarte zerbitzuen euskal legea -2008koa- lantzeko prozesua aktibatzeko; izan ere, mendetasunarentzako arreta eta autonomiaren sustapena gizarte zerbitzuen sisteman integratu zen eta sistema hori finkatu zuen Ongizate Estatuaren laugarren zutabe bezala.

Gizarte zerbitzuen legeekin, “Mendetasunaren legearekin”, diru-sarreraren bermea 2008tik aurrera espezifikoki arautu duen legearekin edo Euskadiko elkartei buruzko 2007ko Legearekin batera, bereziki esanguratsutzat hartzen dira egoera edo kolektibo partikular batzuk ukitzen dituzten beste lege batzuk; lege horiek, kasu batzuetan, gizarte zerbitzuen eremua gainditzen duten zeharkako jarduerak ere planteatzen dituzte.

Horrelakoak dira honako lege hauek: minusbaliatuen gizarte integratziorako legea (LISMI), 1982koa, desgaitasunak dituzten pertsonen aukera berdintasunerako, diskriminaziorik ezerako eta irisgarritasun unibertsalerako legea (LIONDAU), 2003koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko euskal legea, 2005ekoa, irisgarritasuna sustatzeko euskal legea, 1997koa, edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko euskal legea, 2005ekoa.

Arau-lanketaz gain, komenigarria da EAEko edo foru eremuko plan batzuk ere kontuan hartzea, zeren haiei esker nabarmenki bultzatu baitira gizarte zerbitzuak eta gizartearen autonomiaz integratzeko sostengua behar duten pertsonentzako arreta integrala.

Zehazki, oso esanguratsuak izan dira, etapa batzuetan, bazterketaren aurka borrokatzeko planak, droga-mendetasunen aurka borrokatzeko planak, edo haur, familia eta boluntarioei buruzko planak, besteak beste.

Erakundeek arauak prestatzeko eta politikak eraikitzeko lanean duten parte-hartzearekin zerikusia duen gai bat da kontsulta eta elkarriketarako organo edo espazioen konfigurazioa, administrazio publikoekin aritzeko. Espazio horiei dagokienez, azpimarratzekoa izango litzateke Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilua (orain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua), GEHSaren presentziarekin. Eta, geroago, elkarriketa zibilaren mahaien era-

Benetako zailtasuna da arauen garapenak pertsonen, familien eta gizarte zibil antolatuen autonomia errespetatzea, funtzionatzen ari diren ekimenak ez indargabetzea, eta eskubideak benetan erabiltzeko aukeretan aurrera egiten ahalbidetzea, modu koherentean, biztanleria osoari.

Ezinezkoa da eskubideak sortzea gaitasunak eta baliabideak aktibatu gabe, erantzukizun publikoko esparru batean. Halaber, ezinezkoa da eredu komunitarioan aurrera egitea deszentralizazio, parte-hartze eta subsidiariorik gabeko printzipioak kudeaketaren eremuan benetan aplikatu gabe, iniziatibarik “huribileari” dagokionez, eta hori eragile bakoitzaren erantzukizun eremuaren baitan ere egin gabe.

keta, administrazio publikoen (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia) eta GEHSaren erakunde eta sareen parte-hartzearekin.

Parte-hartzea bideratzen duten beste organo edo espazio garrantzitsu batzuk hauexek dira: Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, Buru-osasunaren Aholkularitza Kontseilua, Haurren Zaintzarako Batzorde Iraunkorra edo Bizkaiko Adineko Pertsonen Kontseilua, beste askoren artean.

Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen egituraketa eta eragile sozial bezala izandako konfigurazioa/aitortza elkarri lotutako alderdiak dira, eta ezinbestekoa da bide horretatik aurrera egiten jarraitzea, elkarriketa sozialean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eta gero eta eragin handiagoa izateko gizarte eta garapen ereduan.

- 3- **Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen egituraketa**, proposamen bate-ratuak lantzeko eta arau-prozesuetan eta politikak diseinatzeko eta ebalua-tzeko prozesuetan parte hartzeko gaitasunarekin, **mugarri bat da interloku-zio ahalmenaz jabetutako gizarte eragile bezala izandako konfigurazioan.**

Horri dagokionez, oraingoz, sareak eremuen arabera egituratu dira, batez ere bazterketaren / babesgabetasunaren eremua, alde batetik, eta desgai-tasunen eremua, bestetik; dena dela, gero eta hausnarketa eta proposamen bateratu gehiago egituratzen ari dira GEHS bezala.

Azken urteotan bultzatutako arautze-prozesuak eta administrazio publi-koekin garatutako interlokuzio espazioak, hala nola elkarriketa zibilerako mahaia, non GEHSa osatzen duten alorrak ordezkaturik dauden, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen egituraketa bera azkartu duten faktoree-tako bat izan dira, seguruenik.

ESKU-HARTZEAREN FILOSOFIAN GERTATUTAKO ALDAKETAK

- 4- **“Ongintzatik eskubide sozialen erabilera sustatzera” pasatzeak berekin daka-rren aldaketa kontzeptual eta filosofikoa**, asistentzialismoa gainditzea, ikuspegi prebentibo eta sustatzailearen garapena, eta pertsona hartzaileei eta pertsona horiek esku-hartzean izan behar duten rolari buruzko ikusmoldearen aldaketa.

Alderdi konkretuago bat, baina bere garrantziagatik aipatu beharrekoa, gizar-te hezitzailearen lanbidea oinarritzko gizarte zerbitzuetan eta bigarren mailako arreta zentroetan sartu izana da, alor akademikoan formalizatu ondoren. Eta, oro har, profil profesionalen dibertsifikazioa, horrek diziplina anitzeko esku-har-tzea (integritasuna) ahalbidetzen baitu gero eta neurri handiagoan.

- 5- **Desinstituzionalizazioa eta neurri txikiagoko bizikidetzatza-alternatibetara pasatzea, eremu komunitarioan**

Desinstituzionalizazioa eta neurri txikiagoko bizikidetzatza-alternatibetara pa-satzea, eremu komunitarioan, estu lotuta daude eta arreta ereduaren alda-ketaren funtsezko alderdiak dira.

Hori arreta ereduaren beste funtsezko alderdi bat da, baliabideen hazkun-deak eta ratioen hobekuntzak ahalbidetua; zerikusia izan du, halaber, lehen mailako arretarako sareen garapenak berak, zeren testuinguru komunita-rioan esku hartzea ahalbidetzen baitu: adineko pertsona autonomoekin edo mendetasun egoeran daudenekin, desgaitasunak dituzten pertsonekin, ba-

Ikuspegi komunitarioaren benetako hedapenak eta komunitatean parte-hartzearen eta bizi-kalitatearen moduko ereduak erronka mardula izaten jarraitzen dute.

Desinstituzionalizazioa bizileku alternatiboak testuinguru komunitarioan kokatzetik harago doa, askoz ere harago.

besgabetasun egoeran dauden pertsona adingabeekin, buru-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonekin, eta abar.

Hala eta guztiz ere, hainbat urtez, osoko instituzioetan sartutako pertsonak egon dira (degaitasunak dituzten pertsonentzako egoitzak, ospitale psikiatrikoak...), baita autonomia erkidego batzuetan ere, eta gaur egun ere hori egin beharreko bide bat da; gainera, badira bide hori oztopatzen duten faktore batzuk, hala nola, komunitatearen eta proiektu sozialen arteko deskonexioa, edo NIMBY fenomenoak (“Not in my backyard” / “Nire atzeko patioan ez”).

Zentro bat testuinguru komunitarioan kokatzeak ez du automatikoki erama-ten pertsonak komunitatean integratzera eta bertan parte hartzera.

8oKO HAMARKADAKO KRISIA, 1993KOA, 2008KOA...

- 6- **Krisi ekonomikoek, hala nola 8oko hamarkadakoak, 1993koak eta orain-
goak**, eragin nabaria izaten dute erakundeetan eta, azken batean, erakun-
deen zerbitzuen hartzailleengan, zeren administrazio publikoen diru-sarre-
ren jaitsiera gastu sozialean islatzen baita.

Eta badute lotura gizarte eta garapen eredu bidegabe eta eutsiezin honekin.

Bata bestearen
atzean gertatutako
krisiak gizarte eta
garapen eredu
eutsiezin eta
bidegabe baten
adierazpideak dira.

PERTSONA HARTZAILEEN KOPURUAREN HAZKUNDEA ETA HAIEN PROFILAREN DIBERTSIFIKAZIOA

- 7- Hori faktore batzuen eraginez gertatzen da, hala nola, **urrakortasun eremu-
aren zabalkuntza**; fenomeno hori 1993ko krisiaz geroztik agertzen da, batez
ere, baina hazkunde ekonomikoaren eta osoko enplegu teknikoko etapan ere
mantendu da, eta biderkatu egin da oraingo krisiaren testuinguruan.
- 8- **Bizi-itxaropenaren hazkundea eta bizitza osasuntsuaren itxaropenaren
hazkundea**, zeren horrek arretaren hazkunde izugarria ekarri baitu eta ekar-
tzen jarraituko du; horri lotuta, gainera, aldaketak gertatzen dira arretarako
sistema eta ikuspegietan, hainbat kolektiboren kasuan: adineko pertsonak,
degaitasunak dituzten pertsonak...

- 9- **Immigrazioaren fenomenoaren gorakada.**

GIZARTE EKINTZAKO HIRUGARREN SEKTOREAREN FINKAPENA, ANTOLAKETA ETA EGITURAKETA

- 10- **GEHSaren finkapena, antolaketa eta egituraketa**

Hasierako etapan, erakundeak ugaltu egin ziren -garai horretan, pisu handia-
goa izan zuen lankidetzaren horizontalak, alde batetik, eta zatiketek bestetik;-
horren ostean, berriz, erakundeak finkatzeko prozesua gertatu zen, eta ho-
rrek ahalbidetu zien sektore moduan antolatzen hastea. Azkenik, bigarren,
hirugarren edo laugarren mailako sare eta erakundeak eratu ziren, autonomia
erkidego, estatu eta Europa mailan.

Hala, autonomia erkidegoaren eremuan, sare hauek eratu ziren:

FEVAS, Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa.

EHLABE, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea.

ELKARTEAN, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun fisikoa duten Pertsonen Konfederazio koordinatzailea.

EUSKALGORRAK, Pertsona gorren elkarteen euskal federazioa.

FEVAPAS, Euskal Herriko gorren lagunen eta gurasoen elkarteen euskal federakundea.

FEVASPACE, Garun-paralisiaren euskal federazioa.

FEATECE, Hartutako kalte zerebraleko elkarteen Euskadiko federazioa.

FEDEAFES, Euskadiko eri psikiko eta senide elkarteen federakuntza.

ALCER EUSKADI, Giltzurruneko gaixotasunen aurka borrokatzeko elkarteen federazioa.

EUSKADIKO ALZHEIMER FEDERAZIOA.

LARES-Euskadi (adinekoen arretarako egoitza eta zerbitzuen euskal elkartea - sektore solidarioa).

FEDERPEN, Euskadiko jubilatuen federazioa.

NAGUSILAN. Nagusien gizarte boluntariotza. Hiru lurralde historikoetan, beste eskualde batzuetan eta tokiko batzordeetan errotutako elkarteen elkartea bat da.

REAS, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren Sareen Sarea.

EAPN EUSKADI, Euskadiko pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borrokatzeko Europar Sarea.

HARRESIAK APURTUZ, immigrantei laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundea.

GIZATEA, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko enpresen elkartea.

Edo, geroago, EKAIN (Euskadiko gizarteratzearen aldeko sareak), edo EDEKA (degaitasunak dituzten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundea), bigarren eta hirugarren mailako erakunde edo sare gisa, lehen aipatutako baten bat bezala (ELKARTEAN).

Eta bukatzeko, gaur egun, horiek guztiak Red de Redes - Sareen Sarean bilatzeko prozesu bat.

Europar programak eta haien laguntzarekin proiektu bateratuak egitea ere sektorea egituratzeko elementuak izan dira, neurri batean.

Gizardatz-en eta geroago Hirekin eraketak eta gizarte esku-hartzearen lehenengo hitzarmenaren sinadurak ahalbidetu dute lan baldintzen hobekuntza aurrera egitea, hori gehien behar zuten eremuetan.

Beharrezkoa da alderdi horretan aurrera egiten jarraitzea, krisiaren testuingurua gorabehera.

- 11- Gizardatz-en²³ eraketa, Bizkaian, eta geroago Hirekin-ena, Euskadin, eta esku-hartze sozialaren lehenengo hitzarmena sinatu izana**, 2007an, GEHSan lan egiten duten pertsonen lan egoera arautzea ahalbidetu baitu, eta, gainera, funtsezko elementu bat da Hirugarren Sektorearen eremu horren egituratze-prozesua espikatzeko.

²³ Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarrekin irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak bildu eta hartzen ditu. Erakunde horiek bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako arreta zerbitzuak betetzen dituzte, modu profesionalean, eta horretarako interes orokorreko baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, titulartasun pribatukoak zein publikokoak, Esku Hartze Sozialaren eremuan, beti ere dirua irabazteko asmorik izan gabe, Bizkaian. http://www.gizardatz.net/quienes_somos.html

3.2.2. Erakundeen bilakaeraren funtsezko elementuak

Erakundeen bilakaeran funtsezkotzat jotzen diren elementuek badute lotura, neurri handi batean, urteetan zehar erakundeetan eraldatu diren alderdiekin; alderdi horiek jadanik aipatu ditugu, nahiz eta erakundeek horietako batzuk soilik sartu dituzten hemen, hots, eurentzat garrantzitsuenak direnak, besteren bat gehituta.

Garrantzitsua da ikustea nola, kasu guztietan, garrantzi handiko eta ibilbide luzeko prozesuak diren. Horrenbestez, nolabait, horiek guztiak irekita daude oraindik ere, eraldatzen ari badira ere. Eta, beste alde batetik, erakundeen funtsezko alderdiak jokoan jartzen dituzten prozesuak dira, hots, erakundeen identitatearekin lotutako alderdiak.

Gainera, alderdi horiek badute zerikusia erakundea osatzen duten eragileen arteko barne orekarekin, alde batetik, eta erakundeak bere ingurunearekin dituen harremanekin -bere jatorrian dagoen komunitate edo kolektiboarekin-, bestetik, eta administrazioarekin duen loturarekin, bestetik. Eta batzuk zein besteak estu lotuta daude elkarren artean.

Hauexek dira.

1- Erakundeen “profesionalizazioa” eta eragileen dibertsifikazioa.

Erakundeen “profesionalizazioa” askotariko ibilbideak izan dituen prozesu bat da; esan daiteke, dena dela, normalean lehenengo kontratazioekin hasi zela, batez ere erakundeekin aurretik kolaboratzen ari ziren pertsonak kontratatuz, lanaldi partzialean eta denbora-horizonte oso mugatuarekin, harik eta profesional talde egonkorra finkatu ziren arte; horretarako, neurri handi batean, oso lagungarria izan zen finantziazioen egonkortasuna, administrazio publikoekin sinatutako hitzarmenetatik ondorioztatua.

Prozesu horrek, salbuespenak salbu, erakundeetako eragileen dibertsifikazioa ere ekarri du berekin (soldatako pertsona, boluntarioak...), eta gero eta gehiago bereizi eta argitu ditu eragile bakoitzak betetzen dituen rolak; hori ez da tentsiorik gabe egin, baina aberasgarria izan da erakundeentzat eta haien esku-hartzearentzat.

Boluntarioak dituzten erakunde guztiek, bertan lan egiten zuten pertsona kontratatuen kopurua igo denean, erakunde bezala berrasmatzeko erronkari heldu behar izan diote -eta oraindik ere heltzen diote-, beren identitatearekin bat etorriz, eta antolaketa-eredu berri bat eraiki behar izan dute, mota desberdineko eragileak uztartuz baina guztien ekarpena zaindiz -bazkideak, ukitutako pertsonak, boluntarioak..., eta, soldatako pertsonaren esku-hartzearekin batera, boluntarioen lana eta -hala dagokionean- elkarrenganako laguntza mantenduz.

Erakundeen “profesionalizazioa”, hau da, kontratatutako pertsona kopuru esanguratsu bat erakundean sartzea eta gainerako eragileen pisua eta rola aldaraztea, inpaktu handikoa izan da GEHSaren erakundeetan; inpaktu horren neurria

Erakundeen “profesionalizazioak” erakundeetan izan duen eragina erantzukizun publikoa finkatzetik ondorioztatu denaren adinakoa da.

Prozesu hori bizi izan duten eta zenbait kolektiboz (bazkideak, boluntarioak, soldatako pertsonak,...) osatuta dauden erakundeek “boluntarioen erakunde” bezala berrasmatzeko erronka dute aurrez aurre.

parekatu daiteke erantzukizun publikoa erakundeek betetzen zituzten zerbitzuen gainean finkatzeak ekarritako inpaktuaren neurriarekin, gutxienez, erantzukizun hori zerbitzu gehienetara edo guztietara hedatzen denean.

Erakundeen profesionalizazioa eta garapena administrazioaren parte-hartze eta presentzia handiagoaren eta arau-garapenaren kausa eta ondorioa da.

2- Erakundearen antolaketan gertatutako aurrerapenak (esku-hartzearen eta kudeaketaren formalizazioa, eta barneko egituraketa).

Azken hamarkadotan, erakundeek kudeaketarako prozedura, tresna eta sistemak txertatu dituzte, eta horri esker hobetu ahal izan dituzte bai esku-hartzearen kalitatea eta emaitzak eta bai haien kudeaketa eta barneko antolaketa: misioa, ikuspegia eta balioak formulatzea; plangintza estrategiko eta operatiboko prozedurak eta tresnak txertatzea; proiektuak lantzea eta ebaluatzea; pertsonak kudeatzea (aukeraketa, prestakuntza, jardunaren ebaluazioa); auditoria soziala; kalitate sistemak; eta abar.

Tresna horien garapenak emaitza hauek izan ditu, normalean:

- erakundeen esperientzia, esku-hartzea eta kudeaketa formalizatzea eta jardunbide egokiak trukitzea, bai gizarte ekintzako hirugarren sektorearen baitan eta bai garapenerako lankidetzaren sektorean;
- eta, horrekin batera, gehienbat enpresaren eremutik hartutako eredu eta tresna konkretuak txertatzea; orokorrean, txertaketa hori hirugarren sektore sozialaren beharren arabera egokitzea egin da, ez modu mimetikoan.

Beste alde batetik, kudeaketaren alorreko prozedura, tresna eta sistemez gain, beste elementu hauek ere garatu dira, erakundearen tamainaren arabera:

- kudeaketa sailak (funtzionalak) edo esku-hartze sailak (operatiboak);
- eta, edozein kasutan, kudeaketaren figurak (zuzendariak, gerenteak, administrariak, giza baliabideen arduradunak ...) eta “maila ertaineko buruak” (esku-hartze taldeak koordinatzeko figurak, normalean sostengu teknikoaren eta kudeaketaren alorreko eginkizunak konbinatzen dituztenak).

Garapen hori mardula izan den erakundeetan, aldaketak gertatu dira haien barneko bizitzaren alderdi batzuetan, hala nola:

- nolabaiteko hierarkizazioa, modu egokian kudeatu behar dena barneko bizitzaren funtsezko balioak mantentzeko -adibidez: parte-hartzea-;
- oreka berri bat gobernu organoen eta kudeaketa taldeen artean; alor horretan ere beharrezkoa da lan egitea, erakundearen gobernu ona bermatzeko.

Beren garapen prozesua gauzatzean zenbait erakundek aurrez aurre izan duten beste erronka partikular bat bereizkuntza geografikoarena izan da, egoitza edo zentro bat baino gehiago irekitzen zituzten neurrian, pertsona berriak erakundean sartzeaz batera.

Horrelakoetan, beharrezkoa izan da -eta bada- hainbat alderdi zaintzea eta azpimarratzea, hala nola, erakunde nagusiaren eta beraren lantokien arteko lotura; esku-hartzea eta kudeaketa eredu komunaren arabera garatzea; partaidetza sentimendua eta pertsonak erakundeari lotuta egotea; eta abar.

Bukatzeko, erakundearen garapen prozesu horren beste ondorio bat da erakundeak erakunde bezala hasi direla hausnartzen, hau da, beren buruaz erakunde bezala pentsatzen hasi direla, garatu diren neurrian eta aberatsa-go eta konplexuago bilakatu diren neurrian.

Eta, normalean, garai batez modu erreaktiboan hazi ondoren, erakunde bezala nola eta zer izan behar duten hasi dira planteatzen (barne mailan), beren antolaketa/diseinua esplizitatuz eta/edo beren identitatearen eta praxian aurkitu dituzten zailtasunen argitan.

“Garatu diren heinean, erakundeak hasi dira beren buruaz erakunde bezala pentsatzen; gainera, garai batez modu erreaktiboan hazi ondoren, nola izan nahi duten eta nola izan behar duten planteatu dute”.

3- Administrazio publikoekin dituzten harremanen aldaketak.

Administrazio publikoekin dituzten harremanen aldaketek eragina izan dute -eta eragin esanguratsua izan dezakete- erakundeetan, bai haien misioan (jarduerak, hartzai-leak...) eta bai haien barneko bizitzan (prozedurak, egituraketa...), eta, gainera, eragina izan dezakete beren autonomian eta bideragarritasunean ere -erakunde bezala-.

Erakundearen independentziak edo autonomiak zuzeneko lotura du beren identitatearekin.

Erakundearen identitatea eta beren hartzaiarekin duten lotura mantentzea eskatzen du, une bakoitzean eskura dauden baliabideak zeinahi direlarik ere, eta balizko etekin ekonomikoa alde batera utzita.

Eta badu dimentsio organiko bat ere bai, erakundearen gobernu organoek beren independentzia beste eragile batzuen aldean (administrazio publikoak, sindikatuak, enpresak...) gordetzen duten neurrian, edo pertsona hartzaiaren parte-hartzea ere gordetzen duten neurrian, ukitutako pertsonen eta senideen erakundeetan gertatzen den bezala.

Beste alde batetik, jadanik aipatu ditugun beste kontu batzuekin batera, gakoa da erakundearen funtzioen oreka mantentzea, zerbitzuen prestazioa eginkizun bakartzat hartzea daraman eboluzioa saihestuz, edo erantzukizun publikoko zerbitzuen prestazio hutsera daraman eboluzioa ere saihestuz.

Bilakaera hori posible da baina ez desiragarria; izan ere, erakundearen identitatea galtzera eramango luke eta, hori gertatzen den heinean, haien zeregina administrazio publikoen zerbitzuen “externalizazio” huts bilakatuko litzateke.

Erakundeen zeregin
bakarra zerbitzuak
betetzea bada,
administrazioak
haiekin duen lotura
externalizazio hutsa
izatera pasatzen da.

Funtzioen oreka mantentzea eta zerbitzuen hornikuntzan kolaboratzea -presazio hutsetik harago- sine qua non baldintza bat da erakundeen izaera bera mantentzeko, hirugarren sektoreko erakundeak diren aldetik, eta baita haien ekarpen soziala eta erantzukizun publikoko zerbitzuei eranstean dieten balioa ere mantentzeko.

Bestela, esan ahal izango litzateke erakundeak zerbitzuen hornitzaile hutsak direla, eta zerbitzuen ardura duen administrazio publikoak haiekin duen lotura “externalizazio” hutsa dela.

Erakundeek administrazio publikoekin duten harremanaren bilakaera alderdi hauetan geratu da islatuta, besteak beste:

- Harremanaren instituzionalizazio gero eta handiagoa eta beraren formalizazioa, *zerbitzuen hornikuntzarako lankidetzaz hitzarmenen bidez, gizarte zerbitzuen eremuan, edo hezkuntza-itunaren bidez*, hezkuntzaren eremuan.

Tresna horiek, erakundeek aurretik egindako lana aitortzeaz gain, modu nahiko egokian adierazten dute erakunde askoren eta administrazio publikoen arteko harremanen izaera, bai formalizatzen hasi zenean eta bai gaur egun; izan ere, erakundeek ekarpen diferentzial bat egiten dute, beren identitateari lotuta, eta era guztietako baliabideak lotzen dituzte esku-hartzearekin, balioa erantsiz.

- Erakundeen parte-hartzea plan eta programak diseinatzeko, gauzatzeko, haien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko lanetan (haurrei buruzko plana, bazterketaren aurka borrokatzeko plana...), eta, halaber, lan batzorde mistoetan eta administrazioen aholkularitza-kontseiluetan.

4- Ukitutako pertsonen eta familien bilakaera, eta komunitate edo auzo bati lotutako ekimenen bilakaera.

Ukitutako pertsona eta familien elkarrekin zenbait etapa bizi izan dituzte beren sorreratik, eta, oro har, aurrera egin ahal izan dute beren helburuen bidean, hots, lortu dute ordezkatzeko dituzten kolektiboen bistaratze soziala handitzea eta haien eskubideen aitortza hobetzea.

Elkarte horiek guztiak profesionalizatu egin dira eta beren barneko antolaketa hobetu dute, oso gradu desberdinetan izan bada ere. Bestalde, erakunde gehienek bigarren mailako sare edo erakundeak eratu dituzte, batez ere autonomia erkidegoaren eremuan, eta horien garapen gradua ere aldatu egiten da batetik bestera.

Dena dela, badira erakunde gehienetan eragina izaten ari diren prozesu batzuk, hala nola, ukitutako pertsonen eta haien senideen zahartzea eta faktore horrek eta “profesionalizazioak” -besteak beste- elkarrekin bizitzara ekarri dituzten aldaketak. Eta gehienei planteatzen zaie erronka berbera, alegia, erakundeak osatzen duten eragileen arteko oreka egokia bilatzea, eta baita soldatako lanaren, boluntariatzaaren eta elkarrenganako laguntzaaren arteko oreka egokia ere.

Ukitutako pertsonen eta familien erakundeak “entitate bereziak” dira GEHSaren barnean. Eta zaindu beharreko ondasun bat dira, zeren eta, jatorriz, ukitutako pertsonak berek eta haien familiek abiatutako ekimenak baitira, gizartearen parte hartzeko, elkarri laguntzeko eta egoera berean dauden pertsona eta familia guztien bizi-kalitatea hobetzeko.

“Ukitutako pertsonen eta familien erakundeak eta komunitate edo auzo bati lotzen zaizkion erakundeak GEHSaren erakunde bereziak dira, eta zaindu beharreko ondasun bat ere bai”.

“Entitate berezi” horietan eta beste batzuetan (GEHSaren erakundeek berez duten berezitasunaren baitan), zerbitzuen hornikuntza dinamika zabalago batean sartzen da beti, zeren beste zeregin batzuekin uztartzen baita, alegia: sentsibilizazioa, behar berriak detektatzea eta behar horiei erantzutea, eskubideak sustatzea eta defendatzea, elkarrenganako laguntza, boluntariotza..., eta akonpainamendu pertsonalizatu eta integrala ukitutako pertsonen eta haien familiei, bizitza osoan zehar -behar izanez gero-.

Ezaugarri berdinak dituzte, halaber, auzo edo komunitate bati lotuta sortu ziren erakundeek; izan ere, horien jatorrizko helburua bertan bizi direnen bizi-kalitatea hobetzea da, batez ere zailtasun gehienak pairatzen dituztenena, eta hori beren parte-hartzearekin egitea.

Lurralde batekin eta horko komunitatearekin zuten loturatik sortutako erakunde horiek ikusi dute nola, denboraren joanarekin, komunitatearekin eta pertsona hartzaileekin dituzten loturak eraldatu diren, eta kasu batzuetan gatazkak ere sortu dira erakundearen eta haien sorrerari eragin zion komunitatearen artean; adibidez; zentro jakin batzuk auzoan kokatzeagatik.

Aipatu dugun bezala, erakunde horientzat erronka bat da loturak berreraikitzea gizartearekin eta haien “komunitate” konkretuarekin, gertatutako eraldaketei egokitzen zaizkien harreman formak hartuz, hau da, parte-hartze sozialean, bazterketa egoeran dauden pertsonen buruzko pertzepzio sozialean, pertsonen lurraldearekin duten loturan, auzokide sentimenduan eta gisa berekoetan gertatutako eraldaketei egokitzen zaizkien harreman formak hartuz.

5- Esku-hartze ereduaren gertatutako aldaketek eta ikuspegi berriek -prebentzioa, promozioa eta bizi-kalitatea lehenetsiz, eskubideak azpimarratuz,...- oso aldaketa esanguratsuak ekarri dituzte esku-hartzen duten pertsonen (soldatakoak, boluntarioak...) eta esku-hartzearen hartzaileen arteko loturan. Eta beharrezkoa da aldaketa horiek aurrera eramaten jarraitzea.

Esku-hartze ereduaren aldaketekin zerikusia duen beste prozesu garrantzitsu bat da zentroen tamaina murriztea eta zentro horiek komunitatearen dinamikan txertatzea edo desinstituzionalizatzea.

Prozesu hori ere prozesu ireki bat da, baldin eta zentroak -eta, azken batean, erabiltzaileak- komunitatearen dinamikan integratzeko prozesu bezala ulertzen bada, kokapen fisiko hutsa izan beharrean.

6- Aipatzen diren baina garrantzi txikiagoa duten **beste aldaketa batzuk** erakunde kanpo proiektzioan gertatutako aldaketak dira, eta badute zerikusia beren jardueraren sozializazioa eta hedapena areagotzearekin, batzar eta jardunaldietan parte hartzearen bidez, ziurtagiriak eskuratzearen bidez edo sareetan presentzia izatearen bidez.

7- Erakunde espezifikoekin zerikusia duten alderdiak

Elementu orokor horiez gain, erakundeek alderdi espezifikoagoak identifikatzen dituzte beren baitan, hau da, erakunde bakoitzaren alderdi espezifikoak, alderdi hauekin zerikusia dutenak:


- **Jardueran gertatutako aldaketak** (zerbitzu edo programa berrien sorrera, batzuetan sail edo alor berriak abiatzera eramanez; lehenengo laneratze enpresen sorrera);
- **Erakundearen figura juridikoak** edo izenean gertatutako **aldaketak**, batzuetan beste aldaketa batzuk islatzen dituztenak (oinarri sozialean, pertsona hartzaileei buruzko ikuspegian);
- **Erakunde bakoitzaren bilakaerak dituen mugarriak** (haien sorrera, eraketa edo formalizazioa, aurretik garai batez funtzionatu ondoren; lehenengo egitura egonkorren inaugurazioa; urtemuga konkretu bat; zatiketa bat).

3.2.3. Bizkaiko GEHSaren historiako etapak²⁴

GEHSA orokorrean hartuta, 70eko hamarkadatik aurrera lau etapa bereizi daitezke beraren historian, egindako ibilbideari buruz une honetan dugun ikuspegitik begiraturik.

Etapak bakoitzak, azkenak izan ezik -oraindik ere bukatu gabe baitago-, 15 urteko iraupena izan du, gutxi gorabehera; gainera, etapa bakoitza testuinguruaren funtseko mugarri batzuekin dago lotuta, hots, erakundearen bilakaera ere nolabait esplikatzen duten mugarriekin lotuta.

²⁴ Bizkaiko GEHS orokorraren bilakaeraren etapez hitz egiten ari bagara ere, edozein erakunde zeharkatzen ditu eraketa, heldutasun eta garapen fase bezala karakterizatu daitezkeen etapak.



Trantsizio demokratikoa, arretari buruzko paradigmaren aldaketa, gizarte eskubideen esparruaren konfigurazioa -geldoa-, baliabide sarearen eraketa eta soldatako pertsonen osatutako kolektibo gero eta handiago baten sorrera benetako mugarririk dira; izan ere, lagungarriak dira ibilbide luzeko erakundeen eraldaketarako eta, halaber, gainerako erakundeen konfiguraziorako.

Trantsizio demokratikoa; arretaren paradigmaren aldaketa, ongintzatik gizarte ekintzara pasatzearen ondorioz gertatua; eta gizarte eskubideen esparru bat, baliabide sare bat eta soldatako pertsonen kolektibo gero eta handiago bat konfiguratzea; horiek guztiak mugarririk garrantzitsuak dira eta ibilbide luzeko erakundeen eraldaketaren eragileak izan dira, eta, halaber, trantsizioan sortutako gainerako erakundeen konfigurazioaren eragileak ere.

Etapak identifikatzea errealitatea sinplifikatzea izaten da beti, nolabait; aldi berean, baina, lagungarria zaigu egindako ibilbidea ulertzeko eta komunikatzeko, eta baita etorkizunerako gako batzuk ezartzeko ere.

Edonola ere, kontuan hartu behar da:

- a) Ezinezkoa da etapak modu itxian determinatzea, denboraren ikuspuntutik, batzuk noiz bukatzen diren eta beste batzuk noiz hasten diren modu garbian zehaztuz, baina bai da posible zehaztea zein diren etapa bakoitza bereziki karakterizatu dituzten alderdiak, eta baita bakoitzaren gutxi gorabeherako iraupena ere.
- b) Erakunde batzuk 70eko hamarkada baino askoz ere lehenago zeuden eratu; dena dela, esan dugun bezala, erakunde horiek sarritan “berrasmatu” behar izan dute beren burua, beren ibilbide luzearen une batean edo batzuetan. Hala eta guztiz ere, ibilbide luzeagoko erakundeen eraldaketa eta “berrasmaketa” prozesu hori une desberdinetan gertatu da (ez beti 70eko hamarkadan), eremu bakoitzaren arabera.

Hala, adibidez, adineko pertsonen egoitzetan ematen zaien arretaren alorrean, eboluzio hori geroxeago gertatu da, baina 90eko hamarkadatik aurrera jauzi kualitatibo esanguratsua gertatu da bertan, eta azkar egin du aurrera heldutasun eta garapen etapetan: soldatako pertsonala erakundearen sartzeara, arreta ereduaren aldaketak, kalitate sistemak ezartzea, kudeaketa taldeak garatzea, eta abar.

- c) Dena dela, kontuan hartu behar da prozesuak direla, eta, hortaz, etapa bakoitza itxuratzen duten ezaugarriak aurreko etapan hasi direla agertzen, eta presentzia izaten jarrai dezaketela hurrengoetan.

Hala, adibidez, “profesionalizazioa” (hau da, soldatako pertsonala erakundearen sartzeara) astiro gertatu zen, 70eko hamarkadaz geroztik, baina prekaritate eta ezegonkortasun egoerak oso ohikoak -eta sarritan orokorrak- izan ziren 80eko hamarkadaren amaiera arte.

Edo beren antolaketa-eredua eraldatu duten erakunde batzuek belaunaldi aldaketa egin gabe dute, oraindik ere, beren gobernu organoetan.

Izatez, esan daiteke etapak continuum bat direla, nolabait, hau da, etapa jakin batean gertatzen diren aldaketak aurreko etaparen ondorioak dira, neurri batean.

Etapak continuum bat direla kontsidera daiteke, hau da, etapa batean gertatzen diren aldaketak aurreko etaparen ondorio dira, neurri batean.

Hala, adibidez, esku-hartzearen eta kudeaketaren formalizazioa eta erakundearen garapenaren etapan gertatzen den egituraketa (egituraren eta kudeaketa taldeen garapena) aurretik gertatutako egonkortze eta “profesionalizazio” prozesuaren emaitzak dira.

Eta sektorearen autokontzientzia eta egituraketa prozesua askoz ere lehenago hasi zen. Hori ez zen gertatu bigarren mailako lehenengo erakunde edo sareak eremu eremu eratu zirelako soilik, baizik eta, horrez gain, pertsonen eta erakundearen arteko elkarriketa eta lankidetzari esker ere (lankidetzaren horizontalak); izan ere, horrelako lankidetzak ohikoak izan ziren hasierako etapan, baina badute presentzia beste batzuetan ere.

- Beste alde batetik, erantzukizun publikoa gizarte zerbitzuen alorrean arian-arian finkatu izana da erakundeek egindako ibilbidea esplikatzen duten faktore nagusietako bat.

Eta hori elkarrenganako eragite-prozesu baten baitan gertatzen da, zeren GEHSAren erakundeak baitira, neurri handi batean -eta beste alderdi batzuen artean-, beharrak identifikatzen dituztenak, zerbitzuak diseinatu eta betetzen dituztenak, eta administrazio publikoei haien erantzukizuna hartzeko eskatzen dietenak.

Ilido beretik, erakunde askoren jarduna hasten den une berean, administrazio publikoekiko harremana ere hasten da; eta erakundearen profesionalizazioaren eta garapenaren bidean aurrera egiten den neurrian, alde batetik, eta erantzukizun publikoaren bidean aurrera egiten den neurrian, bestetik, harremana konplexuago bihurtzen da.²⁵

- Arauen garapenak prozesu horrekin batera egiten du aurrera, etapa bakoitzaren emaitzak jasoz eta hurrengo etapa ere -gehienetan zuhurtziaz- abiatuz.

Hala:

- 1982ko Legeak eraikuntzaren etapa finkatuko zuen eta erantzukizun publikoaren hazkunde prozesua abiatuko zuen, gizarte zerbitzuen alorrean.
- 1996ko Legeak baliabide sarearen garapena finkatu zuen, heldu-eta-eremuen baten ostean eta -agian- lehenengo garapen urteen ostean.
- Eta 2008ko Legeak, krisia hasi baino apur bat lehenago, eta gizarte zerbitzuen alorreko aurrekontu publikoek zenbait urtez nabarmenki hazi ondoren, garapena berretsi zuen eta jauzi kualitatibo bat ekarri zuen Gizarte Zerbitzuen Euskarriaren konfigurazioan, erantzukizun publikoa eta kudeaketa mistoa (publikoa-pribatua, gizarte ekimen pribatura arreta berezia zuzenduz) uztartuz, Ongizate Estatuaren laugarren zutabe bezala, bere katalogoan sartutako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa aitortuz.

²⁵ “Profesionalizazioa hazi ahal, konturatzen zara eman behar dituzun erantzunak gero eta konplexuagoak direla, eta, ondorioz, administrazioarekin duzun harremana ere konplexuago bihurtzen da”.

GEHSaren autokontzientziaren garapenak badu lotura sustapen lan batean kolaboratzeko beharrekin; lehenik eta behin, erakundeek defendatzen duten eredu soziala sustatzeko beharra dugu, eta, bigarrenik, erakundeek ekarpen soziala sustatzeko beharra.

- Beste alde batetik, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen autokontzientziaren garapenak -berria baina gero eta handiagoa- badu lotura erakundeek defendatzen duten gizarte ereduaren sustatzeko lanean kolaboratzeko beharrekin, aurrena, eta, bigarrenik, haien ekarpen soziala sustatzeko beharrekin.

Badu zerikusia, orobat, Hirugarren Sektorea bere ingurunearen aurrean defendatzeko beharrekin, zeren ingurune horri batzuetan kostatzen baitzaio ulertzea zer den Hirugarren Sektorea eta zein diren beraren lana eta ekarpena. Eta hori guztia jakinda hirugarren sektoreak galtzen badu gizarteak ere zerbait garrantzitsua galtzen duela, ekimen, berrikuntza... parte-hartze eta elkartasunaren ikuspuntutik.

“Beharrezkoa da azaltzea zer den sektorea, zer den beraren zeregina, beraren ekarpena, historia eta oraingo errealitatea, bai gizarte osoari eta bai gizarte eragileei (sindikatuak, alderdi politikoak...), komunikazio estrategia bat bultzatu eta erakundeok eta sareok alde horretatik dugun erantzukizuna hartuz”.

“Sektorea alor sozial, politiko eta administratiboan ezagutzera ematea. Jende guztiarekin hitz egin behar da, daudenekin eta ez daudenekin, gobernatzen dutenekin eta gobernatzen ez dutenekin, agintzen dutenekin eta agintzen ez dutenekin”.

- Oraingo unean, eta egindako bidearen argitan, ezinbestekoa da:

- erantzukizun publikoa eta eskubide eta politika sozialak mantentzen laguntzea, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema praxian finkatzea, hau da, ez arauen ikuspuntutik soilik, baizik eta ekimen publikoaren eta ekimen pribatu sozialaren arteko lankidetzaren bitartez;
- egonkortasuna, profesionalizazioa, esku-hartzearen eta kudeaketaren formalizazioa, eta erakundeek egituraketa ahalbidetzen dituzten baldintzak mantentzea, eta baita erakundeek zerbitzuen prestazioari erantzen dioten balioa ere, esku-hartzearen kalitatea jaitsi gabe;
- erakundeek autonomia, oinarri soziala eta funtzioen oreka indartzea, eragina izatera zuzendutako ekintzak bereziki zainduz (sentsibilizazioa, salaketa, interlokuzioa administrazio publikoekin eta beste gizarte eragile batzuekin...), esku-bideak sustatzeko eta defendatzeko xedez;
- Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea egituratzeko eta gizarte eragile bezala merezi duen aitortza lortzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzea, elkarriketa zibilean modu aktiboan parte hartuz eta elkarriketa sozialean behar duen parte-hartzea sustatuz.

Azken batean, helburua da **“subjektua mantentzea”** (Hirugarren Sektoreko erakundeak), eta baita beraren ekarpen soziala ere, hori historikoki planteatu den forman; hori egiterakoan, zenbait alderdi uztartu behar dira, hala nola:

- Erantzukizun publikoa indartzea, gizarte zibilaren parte-hartze antolatua eta solidarioarekin.

- Kalitatezko zerbitzuak berotasunez betetzea (integritasuna, akonpainamendua bizitza osoan, hartzaileen parte-hartzea, arretaren pertsonalizazioa...). Eta beste funtzio batzuk, hala nola, eragina izatea, behar berriei erantzutea, ikerkuntza, boluntarioen dinamizazioa, eta elkarrenganako laguntza.
- Esku-hartzearen eta kudeaketaren profesionalizazioa eta formalizazioa, edo erakundeen egituraketa -boluntarioekin-, malgutasuna (antolaketa aldetik), arintasuna (arin erantzutea), edo pertsonengandik eta haien beharretatik gertu egotea.

3.3. ERAKUNDEEN IBILBIDEA ITXURATU DUTEN ETA BEREN GARRANTZIAGATIK MANTENDU BEHAR DIREN HAMABI GAKO

Atal hau bukatzeko, erakundeek beren ibilbidean zehar identifikatu dituzten eta beren garrantziagatik -erakundeen ustez- mantendu behar diren gakoak azalduko ditugu.

Gako bakoitzari buruz hitz egitean, gakoak islatzen duten alderdi konkritu batzuk ere identifikatu ditugu. Honako hauek dira:

1- Beharrei berehala erantzuteko gaitasuna eta eraldaketa soziala uztartzea, eta haien arteko elkarrenergina.

- Alternatiba konkritu eta berehalakoak bilatzea pertsonen egoera eta premientzat, eta egoera eta behar horiei berehala eta malgutasunez erantzuteko gaitasuna.
- Gizartea eraldatzen laguntzea, pertsonak herritar moduan dituzten eskubideen aitortza abiapuntutzat hartuta, eskubide horien urraketa salatuz eta eskubideen erabilera errealerako aukerak sortuz.

Eta, zehazki, esku-hartzearen eta erakundeek betetzen dituzten zerbitzuen bitartez, aukerak sortuz, eta esku-hartze ereduak hobetzearen edo gaitzitzearen bidez, bertan jauzi kualitatibo bat gertatzen denean.

- Gizartea sentsibilizatzea, jarrera eta jokabideen aldaketak sustatuz, eta herritarrek erantzunen bilaketan inplikatzeko, parte-hartzea ahalbidetzen duten bide garrantzitsuak erabiliz, alegia, boluntariotza soziala, elkarrenganako laguntza edo lanbidean bokazioz aritzea.

2- Pertsonak, haien ongia eta haien osoko garapena lehenesten duen arreta.

- Pertsona hartzaileek erakundeetan eta esku-hartzean parte hartzea, maila desberdinetan, eta akonpainamendu pertsonalizatua, pertsonak lehenesten dituen arretaren adierazle operatibo nagusi bezala.

Ezinbestekoa da “subjektua mantentzea”, eta baita beraren ekarpen soziala ere bai, honako elementu hauek uztartuz: erantzukizun publikoaren indarra gizarte zibilaren parte-hartze antolatua eta solidarioarekin; zerbitzuen prestazioa, kalitatez eta berotasunez, beste funtzio batzuekin -eragina, berrikuntza...; eta esku-hartzearen eta kudeaketaren formalizazioa boluntarioekin, malgutasunarekin, arintasunarekin eta hurbiltasunarekin.

- Pertsonen ongira eta osoko garapenera orientatzea, dimentsio guztietan, pertsonen nahi, interes eta gaitasunetatik abiatuta.

Orientazio hori alderdi hauetan konkretatzen da, besteak beste: esku-hartze globala garatzea, jarraitutasunez eta pertsona hartzaileen parte-hartze aktiboarekin, beren baliabideak jokoan jarritz.

Pertsonak eta haien ongia eta osoko garapena lehenesteak exijitzen du bizi-kalitatearen hobekuntza gogoan izatea beti, erakundearen ekintzaren horizonte bezala.

Pertsonak eta haien ongia eta osoko garapena lehenesteak esan nahi du haien bizi-kalitatea hartu behar dela beti helburutzat, erakundearen jarduren horizonte bezala, zerbitzu jakin bat betetzetik harago eta eremu edo sistema jakin batean aritzetik harago (gizarte zerbitzuak, hezkuntza, osasuna...), eta erantzunak egituratzen eta uztartzen jarraitzea, irtenbide globalak emateko pertsona eta familien behar eta eskariei.

Alde horretatik, *“desgaitasunen eremuko erakunde batzuek -adibidez- erantzukizun publikoko sistema batzuetako baliabideak (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak...) biltzen dituen sare bat egituratu dute, desgaitasunak dituzten pertsonen eta haien familien beharrei erantzuteko, ikuspegi integral batetik, zeren zerbitzuak modu zatikatuen esleitzea arriskuan jarri bailezake integritasun hori”.*

- Harrera eskaintzeko gaitasuna eta pertsonen aldeko apustua, batez ere egoera zailagoak pairatzen dituztenei dagokienez, arazo sozialei gizatasun eta sentikortasunez erantzunez; eta hortik harago joateko gaitasuna (iruditik, sintomatik, betekizunetatik, eta abar) eta erakunde bezala inplikatzeko gaitasuna, arriskuak hartuz.
- Pertsona hartzaileengandik gertu egotea, haien errealitatea eta pairatzen dituzten zailtasunak ezagutzea, haien eguneroko bizitzan presentzia etengabea izanik, haiekin lotuta egonda, eta haien errealitatea aztertzea, horretara zuzendutako ekimen konkrituak bultzatuz (lan taldeak, kontsultak, ikerketa proiektuak...).

3- Hurbiltasuna, beharrak identifikatu ahal izateko; eta pertsona, familia eta komunitate hartzaileekiko lotura.

- Hurbiltasunak ahalbidetzen du pertsonen errealitatea ezagutzea eta ulertzea, haien beharrak identifikatzea eta erantzunak eta eskatutako zerbitzuak modu egokian orientatzea eta kudeatzea.
- Topaguneak eta elkarrenganako laguntzarako espazioak.
- *Familien erakunde* bat izatea, pertsonengandik gertu egoteaz gain “persona eta familia hartzaileak” lehenesten dituen; are gehiago, batzuetan haiek dira protagonistak eta zuzendariak.
- *Auzo edo komunitate bati lotutako erakunde bat izatea.* Ingurune hurbilean (auzoa) parte hartzea, bertan inplikatzeko eta berarekiko elkarrengana. Lan

komunitarioaren eredua: garapen komunitarioa helburu bezala eta komunitatea esku-hartzearen eragile edo protagonista bezala, pertsona eta familia hartzaileen testuinguruarekin egiten den lanaren garrantzirik harago joanez.

4- Erakundeaosatzen duten pertsonen ekarpen, parte-hartze eta inplikazioaren garrantzia: soldatako pertsonala, boluntarioak, atenditutako pertsonak, familiak...

- Ukitutako familien eta/edo pertsonen erakunde bat izatea, eta/edo lurralde bati lotutako subjektu kolektibo batez osatuta egotea.
- Pertsona boluntarioen ekarpena, eta, batzuetan, boluntarioz soilik edo batez ere boluntarioz osatutako erakundeak izatea.
- Lanaren hartzaile diren pertsonen inplikazio eta ahalduntzea, eurentzat diren konponbideen bilaketan.
- Erakundeaosatzen duten pertsonak erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea, eta erakundean boluntario gisa edo soldataz lan egiten duten pertsonen proiektuaren eraikuntzan parte hartzea.

Eta, ildo beretik, soldatako pertsonalak erakundeetan parte hartzea, askotarik antolaketa ereduaren bitartez, kongregazio erlijiosoek gidatutako fundazio edo ekimenak ere barne sartuta.

“Erakundeaosatzen duten edo osatu duten pertsonentzat oso baliagarriak diren garapen pertsonaleko espazioak sortu dira”. (EDE).

5- Erakundeaosatzen duten pertsona eta eragileen arteko harremana.

- Erakundeaosatzen duten eragileek jokatzeko duten rola ulertzea.
- Inplikazio edo konpromisoa, partaidea izatearen sentimendua, eta barneko elkar-tasuna.
- Elkarbizitza eredua, erakundean elkartzen direnean boluntarioak eta soldatako pertsonak, ukitutako pertsonak eta haien senideak, eta haien bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten duten pertsonak, eta horien guztien arteko hurbiltasuna.

6- Arretaren kalitatea eta berotasuna, eta kudeaketaren gaitasuna eta estilo propioa.

- Esku-hartzearen kalitatea eta kudeaketarako gaitasuna, behar den bezala egiaztatutakoak, hau da, ez ziurtagiriaren edo satisfazioaren neurtzeko ebaluazioen bitartez soilik egiaztatutakoak, baizik eta emaitzen bitartez ere, alderdi hauek kontuan hartuta: inklusioa, erakundeakosatzen dituzten pertsonen erakundearekin duten lotura, jarduera eta zerbitzuei begira egindako ekarpenak, esku-hartzearen ereduak, eta abar.
- Azken hamarkadotako kudeaketaren eremuan gertatutako berrikuntza, erakunde askotan.
- Pertsonengan zentratutako eta balioetan orientatutako kudeaketa estiloa.

7- Administrazioarekiko harremana: lankidetzak kritikoak.

- Administrazio publikoekiko lankidetzak: horren bitartez, erantzukizun publiko zerbitzu bezala arian-arian konfiguratu diren zerbitzu ia guztiak sortu dira, eta, horrez gain, benetako arreta sareak ere sortu dira, batez ere babesgabetasunaren, bazterketaren eta desgaitasunen eremuetan.
- Arauak (legeak, dekretuak...) egiteko prozesuetan aktiboki parte hartzea eta, batzuetan, arau horiek egiteko edo aldatzeko prozesuak bultzatzea; eta, horrekin batera, politika, plan eta programak egitea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- Bazterketa eta babesgabetasun egoerak eta gisa berekoak salatzea, batez ere pertsonen eskubideen urraketa; eta egoera horiek aldatzera zuzendutako beste eragite edo presio ekintza batzuk egitea.

8- Askatasuna, gainerako eragileengandik autonomiaz edo independentziaz jokatzeko gaitasuntzat hartuta.

- Orokorrean, hirugarren sektoreko erakundeak -beren barneko osaketan-kolektibo heterogeneo baten ordezkariak dira; eta, beste alde batetik, ez dute lotura organikorik izaten hirugarren sektoretik kanpoko erakundeekin, eta hortaz, badute independentzia maila handia alor juridikoan.
- Erakundeen autonomiarekin zerikusia duen beste funtsezko elementu bat beren mendetasun ekonomikoaren gradua da, hau da, norainoko mendetasuna duten beste erakunde batzuekin.

Orokorrean, Bizkaiko GEHSaren erakundeek lortu dute beren autonomia mantentzea administrazio publikoekin, horiek beren finantziazio iturri nagusia baitira. Edonola ere, beharrezkoa da alderdi horretan lan egiten jarraitzea, eta arreta berezia zuzendu behar zaio.

- Beste alde batetik, funtzioen arteko oreka autonomiaren funtsezko adierazle bat da. Hala, erakunde gehienek aukeratu dute bide hori, eta mantentzen saiatzen dira.

Dena dela, erakunderen batek erabaki du eragina izatea administrazioek bultzatzen duten arreta ereduaren gainean, zerbitzuen kudeaketari uko egin. Hori independentziaz gertuago dagoen jarrera bat da.

Erakundeek zilegi eta bideragarritzat jotzen dituzte bi jarrera horiek. Dena dela, zalantzan jartzen da ea zerbitzuen kudeaketa soldatiko pertsonalaren bidez soilik egiten duten erakundeen eredu bat ote datorren Hirugarren Sektorearen filosofiarekin.

- Beste alde batetik, bada administrazio publikoen aldetik *instrumentalizatua* izatearen arrisku bat, eta baita haien mende geratzeko arriskua ere.

Alderdi horrek bi arriskurekin du lotura, administrazioari begira.

- erakundeak baliabideen kudeaketara orientatzeko tentazioa, jarraibide politiko garbiekin eta maniobratzeko gaitasun txikiarekin, beste funtzio batzuk gauzatzen orientatu beharrean.
- gerta liteke administrazioek erakundeez baliatu behar izatea, eskasia egoeretan eta desordena eta gatazka sozial ageriko egoerak biguntzeko, horren ostean “betetako zerbitzuak eskertzen mugatuz”.
- Halaber, bada nolabaiteko kezka esku-hartzearen normalizazio gero eta handiagoak (arauetara egokitzea) autonomia, berrikuntza edo malgutasunarentzat sor ditzakeen arriskuen aurrean. Normalizazio horren arrazoia, beste batzuen artean, zerbitzuen gaineko erantzukizun publikoaren aitorza da.

Horri dagokionez ere, beharrezkotzat jotzen da oreka posizio bat bilatzea, zerbitzuen hornikuntzarako esparru publiko-pribatu bat garatu ahal izateko eta esku-hartzearen ezaugarri nagusiak mantentzeko, hala nola, pertsonengandik eta haien beharretatik gertu egotea, haien parte-hartzea, arretaren pertsonalizazioa eta jarraitutasuna, erantzunen berehalakotasuna eta malgutasuna, erantzunetatik kanpo geratzen diren pertsonen inguruko kezka, eta abar.

Ulertzen da beti egon daitekeela autonomia espazio bat, inbaditu behar ez den espazio bat, eguneroko lanarekin eta arretaren kalitate eta berotasunarekin zerikusia duena, eta erakundearen balio eta misioaren adierazpidearekin zerikusia duena.

Lege, dekretu eta protokoloen bitartez, zerbitzuak arian-arian egituratzen dira, baina saihestu behar da esku-hartzeari muga zurrinak jartzea, beste arreta sistema batzuekin gertatu den bezala -adibidez: hezkuntza sisteman-.

Erakundeen diseinatutako, abiatutako eta kudeatutako zerbitzuen gaineko erantzukizun publikoa hartzeak nolabaiteko normalizazioa ekarri behar du (betekizunak ezartzea, zerbitzuak jaso ahal izateko, prestazioa estandar batzuetara egokitzea, eta abar), baina ez ditu inoiz ere erantzunak esklerotizatu behar, ezta erakundeen gaitasun propioak ere.

Erantzukizun publikoko gizarte zerbitzu baten konfigurazioak, berarentzat nahi diren behar eta ezaugarriei egokituta, (arretaren pertsonalizazioa, integritasuna eta jarraitutasuna, parte-hartzea...), zerbitzuen hornikuntza eta kudeaketa mistoa eskatzen ditu, sektore publikoaren eta ekimen pribatu sozialaren arteko lankidetzaren mekanismo malguen bitartez.

Alde horretatik, arauen ekoizpena gero eta handiagoa dela kontuan hartuta, erantzunak ekoizpen horri egokitzea bi ahoko ezpata izan daiteke. Alde batetik, aurrera egiten da zerbitzuen formalizazio eta egituraketan. Eta, bestetik, zurruntasuna ekar diezaike erantzunei.

- Bukatzeko, erakundeak pasa litezke beharrentzako erantzunak eskaintzetik -beste inork ere erantzuten ez zuenean- administrazio publikoak beren ondoan izatera, erantzunak ematerakoan, eta, azkenik, beren bilakaeraren “gailur” bezala, euren laguntzarekin sortu ziren zerbitzuen “hornitzaile” hutsen rola hartzera pasatu.

“Hornitzaile figurara daraman ibilbide hori ez da aseptikoa, Hirugarren Sektorearen definizioari dagokionez; izan ere, sektorearen independentzia eta erakundeek ekarpena estutzeaz gain, haien arima eta zentzua ezabatuko lituzke, beste funtzio batzuk mantendu arren -agian-”.

“Balio erantsia eta ekartzen ditugun elementuak zaindu beharrekoak dira, eta ezinbestekoak dira gizarte politika aurreratuen eta aitortutako gizarte eskubi-deen mundu berri honetan”.
(LARES)

Erakundeek ustez, zerbitzuak erakundetik beretik kudeatzeak balioa erantsen die, gutxienez kasu batzuetan.

“Pertsona bat gure erakundeetan sartzen denean, ez da zerbitzu batera sartzen, erakunde osoa baizik. Erakunde osoa konprometitzen da pertsona horrekin.

Ukitutako familia eta pertsonen elkarteok bestelako lan eredu bat aukeratu genezakeen, alegia, zerbitzuak hitzartzea baina erakundeak alde batera utziz, nolabait (hori sare pribaturekin ere egin zitekeen, zergatik ez?). Hori egin beharrean, baina, pentsatu genuen zerbitzuak erakundetik beretik kudeatzeak baduela zuzeneko eragin positiboa garatzen dugun esku-hartzean.

Zerbitzuen hornitzaile hutsak izatera behartzen bagaituzte, horrek ez ditu zerbitzuak soilik ukitzen, baizik eta erakunde osoaren arreta eredu ere bai”.

Azken batean, alderdi honek zuzeneko lotura du GEHS osoak eta beraren erakunde bakoitzak mantendu behar dituzten funtsezko balio eta funtzioekin.

Beste logika batzuk ezartzeak (merkataritzakoak, profesionalak, antolakuntzakoak...), ezartzen dituen nornahi delarik ere, zalantzan jar ditzake, batzuetan, garrantzi handiko balio batzuk, hala nola, pertsonaren zentraltasuna edo esku-hartzearen integritasuna, esku-hartzearen integritasuna, eta abar.

Logika jakin batzuk (merkataritzakoak, antolakuntzakoak, profesionalak...) zerbitzuen prestazioen txertatzeak, txertatzen dituen nor den alde batera utzita, zalantzan jar ditzake, batzuetan, garrantzi handiko balio batzuk, hala nola, pertsonaren zentraltasuna edo esku-hartzearen integritasuna.

9- Malgutasuna, egokitzapen eta berrikuntzarako gaitasuna.

- Ikaskuntza, berrikuntza, malgutasuna eta errealitate berrietara etengabe egokitzeko gaitasuna, bereziki:
 - Beharrei eta haien bilakaerari erantzuten dieten ideiak eta ekimenak sortzeko gaitasuna.
 - Erantzunetan aurrea hartzeko gaitasuna, administrazioen eta gainerako eragileek aurretik joatea.

- Barneko eraldaketa dinamikak: ibilbideak zama ez izatea lortzea, hau da, zama izan beharrean elementu dinamizatzailerak izatea lortzea.

Beharrezkoa da arazo eta behar sozialentzako erantzunetan berriztatzen jarraitzea, eta hori hirugarren sektoreko erakundeek berezko zeregin bat da.

“¿Nork egingo du, bestela, batez ere etekin ekonomikoa lortzeko aurreikuspenik ez dagoenean, epe labur edo ertainera? Merkatuko erakundeak?”.

Beharrezkoa da “freskotasun” hori ez galtzea eta erakunde osoa funtzio horretan inplikatzeko, kontuan hartuta kanpoko laguntzarekin edo kanpoko laguntzarik gabe gauzatu behar dela.

«Administrazioa geuk sortutako zerbitzuak hitzartzen ari da, eta, nolabait, geuk errealtatetik gertu egotea hartzen du kontuan oraindik ere, hau da, beste erakunde (enpresa) batzuek ezin eskain dezaketenean gertutasuna, eta konfiantza du, lehen bezala, zerbitzuak beharretara eta haien bilakaerara egokitze-ko egiten dugun lanean. Zenbait eremutan, hala nola autismoaren eremuan, agerikoa da garapen hori, zeren profil berrietara egokitzen ari baikara, errealtitate berrietara, aurkikuntza berrietara eta gaixotasunaren inguruan eginda-ko aurrerapenetara. Egokitzapen hori, malgutasun hori eta esperientziatik eta pertsonetik konpromisotik abiatutako ikaskuntza hori etorkizuneko gakoak izan behar dira, betiere, sortzen ditugun zerbitzuetan».

10- Erakundeek arteko lankidetzak eta sareetan parte hartzea.

- Lankidetzak, sareko lana eta erakundeek arteko itunen sustapena.
- Sareetan parte hartzea, zeren horrek ahalbidetzen baitu erakundearen mugetatik harago begiratzea.

11- Balioak eta identitatea lantzea.

- Orientazio eraldatzailea.
- Parte-hartzearen eta erantzunkidetasunaren balioak berrestea.
- Erakundeek proiektuak eta lan egiteko formak koherenteak izatea haien misio eta balioekin.
- Erakundeek erdigunean pertsonak kokatzea, haien eskubideen sustapena eta haien gaitasunen garapena, pertsonen buruzko ikuspegi positibo batekin, haien testuingurua eta ibilbidea oso konplexuak izan arren.

12- Ordezkaritza soziala, autogobernua, begirada altxatzeko eta pertsonak proiektuekin lotzeko gaitasuna.

Atal hau bukatzeko, desgaitasunak dituzten pertsonak eta haien familiak ordezkatzen dituzten erakundeetan zentratutako hausnarketa bat aurkeztuko dugu, erakunde guztietan hainbat modutan bultzatu behar diren lau alderdi horiei lotuta.

«Ordezkaritza sozialeko eta autogobernuko funtzio bat garatu dugu, aurrena, eta bere horretan jarraitzen dugu. Gaurkoa konpondu behar izan dugu eta biharkoaz hausnartu. Alor horretan, gero eta neurri handiagoan, gaurkoa konpontzera eta biharkoaz pentsatzera bultzatuko gaituzte. Eta bada zaindu beharko genukeen beste zerbait, alegia, daukagun formatu juridikotik harago joatea eta jakitea gure arrakasta badagoela lotuta pertsonak proiektu baten inguruan biltzeko izan dezakegun gaitasunarekin.

Ardatz horiek trakzionatzeko dugun gaitasuna (zure gizartearen ardatza, profesionalena, boluntarioena, familiena, pertsona hartzaileena) funtsezkoa izango da, eta, aldi berean, hornitzaile hutsa izatetik urruntzen gaitu. Zerbitzuak kudeatu behar ditugu horrek oinarria ematen digulako, funtzionatzea ahalbidetzen digun egonkortasuna. [...] Ondo kudeatzea, baina proiektu horretan oinarrituta, definitu berri ditugun hiru gako horietan oinarrituta. [...] Hausnartzen ez baduzu, eguneroko arazoan zurrumbiloan erre zaitezke, gauza asko instrumentalak soilik izan arren”.

4. Erakundeen ekarpen soziala

Lan hau bukatzeko, hasieratik aurreikusi genuen bezala, Bizkaiko Gizarte Ekintza-ko Hirugarren Sektorearen erakundeen ekarpen soziala, historikoa eta oraingoa “marraztea” -gutxienez- ahalbidetu digun hausnarketa bat egingo dugu:

- erakundeek azkeneko hartzailetzat hartzen dituzten pertsonak, familiak, taldeak eta komunitateak;
- Bizkaiko gizarteak, oro har;
- eta erakunde bakoitza osatzen duten pertsonak.

Identifikatutako alderdi gehienak erakundeen ekarpen iraunkorrak dira, baina ekarpen historiko batzuk edo une konkretuetan egindako zenbait ekarpen ere identifikatzen dira.

Garbi dago, jakina, beti ez direla ekarpen eskusiboak izaten, hots, beste eragile batzuek (administrazio publikoek, enpresek...) egin ez dituztenak edo ezin ditzaketanak; dena dela, egia da GEHSaren erakundeek oso ekarpen esanguratsuak egin dituztela aipatutako alderdi bakoitzaren inguruan.

Ildo beretik, ez dira izaten GEHSaren edozein erakundek egiten dituen ekarpenak, sektoreko erakundea izateagatik soilik, baina bai dira GEHSaren erakundeek egin ohi dituzten ekarpenak eta haien “*osoko balioaren*” zati direnak, zerbitzuen prestazioari erantzen dioten baliotik harago edo balio horrez gain.

4.1. PERTSONA HARTZAILEEI EGINDAKO EKARPENA

1- Pertsonen aldeko apustua: hurbiltasuna eta baldintzarik gabeko sostengua.

- Pertsona hartzaileen aldeko apustu irmoa egitea, haien zirkunstantziak eta egoera zeinahi direlarik ere.
- Haien sustapenaren aldeko apustua, eta bizitza autonomoa garatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta baliabideak garatzearen aldeko lana.
- Hurbiltasuna, baldintzarik gabeko sostengua, eta pertsonen aldeko apustu garbia, baita testuinguru instituzional aurkakoetan ere, hala nola espetxea (instituzioarekin eta beraren balizko abusuarekin dauden mugak modu garbian bereiziz).

2- Erreferentzia, topaketa, truke, elkarbizitza, esperientzia eta aukeren truke-rako espazioak.

- Erreferentziako espazioak eta pertsonak eskaintzea pertsona, familia, talde eta komunitate hartzaileei.
- Pertsonen arteko topaketa, trukea eta elkarbizitza erraztea.

GEHSaren erakundeek ekarpen garrantzitsua egiten diete pertsona hartzaileei, Bizkaiko gizarteari eta erakundeak osatzen dituzten pertsonari.

- Pertsonen bizipen berriak izateko eskaintzen zaien aukera.
- Gure ingurunean bizi eta bazterketa edo desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen alternatibak eskaintzea.

3- Protagonismo, parte-hartze eta ahalduzko prozesuak.

- Pertsona hartzaileak beren gizarteratze prozesuaren subjektu aktibotzat eta protagonistatzat hartzea, eta haien parte-hartzearen sustapena esku-hartzearen orientazio, garapen eta ebaluazioan.
- Pertsona hartzaileek erakundearen parte hartzea; hala, batzuetan beraren parte-hartzaileak izaten dira, eta beraren gobernu organoetan parte hartzea ere iritsi daitezke (adibidez: ukitutako pertsonen eta haien familien erakundeetan).
- Pertsona hartzaileen ahalduzkoaren, inklusio sozialaren, autonomiaren eta bizitza independentearen aldeko apustua.

4- Garapen pertsonal eta profesionalera zuzendutako heziketa-prozesuak.

- Heziketa- eta prestakuntza-prozesuak sortzea ingurune hurbileko pertsonentzat.
- Pertsona, familia, talde eta komunitateen gaitasun, jarrera eta balioen sustapen eta garapena.

5- Arreta pertsonalizatu eta integrala.

- Arretaren pertsonalizazioak ahalbidetzen du pertsonengandik gertu egotea, zenbait prestazio eta zerbitzu egituratzea, eta sostenguak konbinatzea (soldatuko pertsona, boluntarioak eta elkarrenganako laguntza), erakunde berberetik; era horretan, erakundea benetako erreferente bihurtzen da pertsonarentzat.
- Arretaren integraltasuna eta pertsonaren dimentsio guztiei erantzuteko borondatea, arazoei ikuspegi “holistikoz” heldzea ahalbidetuz (ez da zerbitzu eta prestazioen kontua soilik).

6- Arretarako baliabideak, hainbat motatakoak eta hainbat figura profesionalekin (hori Bizkaiko gizarteari egiten zaion ekarpen bat ere bada):

- Proiektu, programa eta sostengurako zerbitzu espezifikoak sortzea, kolektibo jakin baten beharrei egokituta, arreta haien behar globalerako eta behar horiek denboran zehar izango duten bilakaeran zentratuz, eta, batzuetan, pertsonen bizitza osoan zehar.
- Pertsona hartzaileen beharrak asetzeko tresnak sortzen laguntzea (sareak, zerbitzuak, programak, proiektuak...): sentsibilizatuz, behar berriei erantzutera zuzendutako proiektuak bultzatuz, zerbitzuak kudeatuz, arauak lantzeko

prozesuetan parte hartuz (legeak, dekretuak), arretarako sareak sortuz, eta abar. Eta figura profesional eta juridikoak bultzatuz, Hirugarren Sektorearen eremuan.

7- Inklusio soziala (emaitzen arabera neurtuta: enplegua eskuratzea, etxebizitza,...).

- Lanpostuak eta okupaziorako alternatibak sortzea bazterketa egoeran dauden edo desgaitasunak dituzten hainbat pertsonentzat (laneratzeko enpresak, enplegu zentro bereziak, okupazio zentroak, eta abar).
- Elkarbizitzarako alternatiba egonkorak eta etxebizitza eskuratzeko aukerak sortzea bazterketa edo desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonentzat.
- Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinuaren sustapena.

8- Pertsona hartzaileak bistaratzea eta haien egoeraren normalizazioa sustatzea.

- Pertsonak eta haien egoerak bistartzeko aukera (bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonak, desgaitasunak...), sentsibilizazio ekintzen bitartez, eta baliabideetara eta espazio komunitario normalizatuetera iristen lagunduz.

Horren adibide bat desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasua izango litzateke; izan ere, gero eta neurri handiagoan iristen dira komunitatearen espazioetara (espazio publikoak, aisialdikoak, kirolaren eremukoak, kulturak, komertzialak...), etxearen eremuan edo espazio segregatueta itxita egon beharrean.

- Pertsona horiek arretaren sistema eta baliabide normalizatuetera iristea (biztanleria osoarengana zuzendua), hainbat tresnaz baliatuz: sentsibilizazioa eta salaketa, programen garapena (lagundutako enplegua, eskola-integrazioa, aisialdia,...), arreta eredu jakin batzuen sustapena, eta abar.

9- Pertsonen eta haien behar espezifikoaren eskubideen aitortza sustatzea.

- Pertsonen behar espezifikoaren aitortzaren sustapena eta eskaintzen zaien arreta egokitzeko beharra, eskubide horiek eskuratzeko bidea bermatzea, dela baliabide espezifikoaren bidez, dela biztanleria osoarengana zuzendutako baliabideak egokituz, edo, sarritan, bi jardunbide horien bitartez.
- Hainbat arrazoiengatik (arin erantzuteko beharra; aldi baterako esku-hartzea, krisiak edo arazoaren berragerpena prebenitzeko, betekizunen bat ez betetzea, eta abar.) arreta sistema egituratuetatik -eta, batzuetan, zurruneetatik (betekizun estandarizatu edo bateratuekin)- kanpo geratzen diren pertsonak eta egoerak baliabide propioez atenditzea.

Sistemak ez dira iristen behar horiek behar den bezala atenditzera, zenbait arrazoiengatik: arazo konkretuen inguruan antolatuta daudelako (buru-osasuna, droga-mendetasunak, eta abar), pertsonen prozesuen arabera antolatuta egon beharrean; erakundeei botere gehiagorik ez emateko, pertsonak zerbitzuetan sartzeari eta zerbitzuetatik irteteari dagokienez; kostuak aurrezteko, eta abar. Hala eta guztiz ere, esku-hartze horiek funtsezkoak dira pertsona askorentzat, hau da, funtsezkoak dira pertsona horiek ez dezaten atzerako pausurik egin beren inklusio prozesuetan, eta bazterketa poltsa handiago eta larriagorik sortu ez dadin.

Ekarpen iraunkorrez gain, erakundeek oso ekarpen esanguratsuak egin dituzte historikoki, eta oraindik ere egiten dituzte.

Alde horretatik, Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeek **ekarpen esanguratsuenetako** batzuk hauexek izan dira eta badira:

- Benetako arreta sare bat sortzea eta finkatzea, administrazio publikoarekin batera, babesgabetasunaren, bazterketaren eta desgaitasunen alorretan.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoan jasotako zerbitzu eta zentro gehienen sorrera eta hornikuntza.
- Bazterketa larrian dauden eta buru-gaixotasunak dituzten pertsonen akonpainamendua, Bizkaian, babes sozial eta sanitarioa emanez.
- Desgaitasun intelektuala duten pertsonen arreta iraunkorra -luzetara eta zeharka- bermatzen dien sare baten eraikuntza eta garapena (hezkuntza, gizarte zerbitzuak, enplegua, etxebizitza...).
- Desinstituzionalizazioa eta elkarbizitzarako alternatiba egokiagoen sorrera (etxebizitza funtzionalak, egoitza txikiak...), babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako arretaren eremuan, eta arrisku egoeran dauden adingabeekin eta haien familiekin eremu komunitarioan esku hartzeko programak, alor sozialean, hezkuntzaren alorrean eta alor psikosozialean.
- Politiken eta esku hartzeko tresnen garapena (prebentzioa, errehabilitazioa, gizarteratzea), droga-mendetasunen eremuan.
- Laguntza eman da hezitzaile sozialaren figura profesionala sortzeko eta finantzatzeko, eta gizarte heziketaren elkargo profesionala eta diplomatura sortzeko ere bai. Eta psikologoaren figura esku-hartze sozialaren alor batzuetan integratzea.
- Laneratzeko enpresen aitortza eta garapena, desgaitasunak dituzten pertsonen okupazioa eta enplegua sustatzeko euskal eredia, eta figura juridiko berri baten sorrera hirugarren sektorearen eremuan: Eusko Jaurlaritzaren 61/2000 Dekretuaren bidez araututako gizarte ekimeneko kooperatiba.

4.2. BIZKAIKO GIZARTEARI EGINDAKO EKARPENA

1- Gizarte solidario, konprometitu eta kritikoa sustatzea.

- Demokrazia ulertzeko modu jakin batean sakontzea, pertsonen parte-hartze aktibo eta antolatutik, independentzia edo autonomia gordez administrazio publikoen eta gainerako eragileen aldean.
- Frankismoaren garaian, arriskuak eta konpromisoak hartzea, bai kolektibo eta kausa jakin batzuk defendatuz eta bai legezko esparrurik -gutxienez- ez zuten ekimenak garatuz, biltzeko espazioa eta babesa eskainiz.
- Erantzunak sustatzea, gizarteak eta administrazio publikoak galderak artean ere planteatu gabe zizutenean (gizarte kontzientzia eta erantzukizun publikoaren garapena eskasak zirenean).
- Gizartearen elkartasun antolatua sustatzea eta bideratzea.
- Eraldaketa sozialerako orientazioa eta beharrezkoak diren aldaketa sozialak gidatzeko, bultzatzeko eta bideratzen laguntzeko konpromisoa, kolektibo edo komunitate jakin batekiko loturatik, beraren egoera hobetzeko eta beraren bizi-kalitatea sustatzeko.
- Enpresa-sarearen sensibilizazioa eta erantzukizun sozial korporatiboaren jardunbideen sustapena.
Eta enpresa eredu jakin batzuk sortzen eta bultzatzen laguntzea, hala nola, gizarte ekimeneko kooperatibak (gizarte zerbitzuen eremuko hirugarren sektoreko erakundeek bultzatutako figura, lan elkartuko kooperatiben federaziotik, Eusko Jaurlaritzaren gizarte ekonomiako zuzendaritzarekin hitz eginda) edo laneratzeko enpresak.

2- Pertsona hartzaileen komunitatearen eta/edo ingurune hurbilaren sustapena eta garapena.

- Ingurune hurbilaren (auzoa) sustapen eta garapenari egindako ekarpena, askotariko alorretan: hirigintza, gai sozialak, pertsonen prestakuntza, eta abar.
- Atenditutako pertsonen ingurune hurbilean eragina izatea. Adibidez: adingabeengana zuzendutako proiektu eta zerbitzuak, familian, eskolan, baliabide komunitarioetan, pareen taldean, eta abar.

3- Lan egiteko eta eragileen artean harremanak izateko estilo berriak.

- Eragileen artean elkarriketatzeko estilo jakin baten ekarpena (adibidez: administrazio publikoekin): kritikoa, eraikitzailea, lankidetzazkoa, beste eragile batzuen ardura eta haien erantzunen garapena indartzeko, jakintza praktikoa eskainiz eta transmitituz, eta abar.

- Sektore publikoarekin eta beste eragile batzuekin kolaboratzea (enpresak, alderdi politikoak, sindikatuak), erantzun alternatiboak, esku-hartze eta antolaketa ereduak, politikak, zerbitzuak, proiektuak eta bestelakoak sortzeko.

4- Instituzioen eta beste eragile batzuen politikei eta ekintzari egindako ekarpena.

- Beste eragile batzuen hausnarketa, aitortza eta apustua bultzatzea, pertsona eta kolektibo hartzaileen inklusio sozialari begira.
- Erreferentea izatea hirugarrenentzat, kolektibo espezifikoen arretaren alorrean; eta erakundeen ibilbidean sortutako esperientzia eta jakintza praktikoa eskaintzea, administrazio publikoei eta beste eragile batzuei helaraziz.
- Parte-hartze aktiboa administrazio publikoen, gizarte ekintza sailen eta beste eragile batzuen politika eta estrategien diseinu eta orientazioan.
- Arauak lantzeko, erredaktatzeko eta garatzeko lanetan kolaboratzea (legeak, dekretuak...), eta baita planen diseinu, gauzapean eta ebaluazioan, erakundeen jardueraren eremuetan.

Alde horretatik, erakundeek parte-hartze esanguratsua izan dute, besteak beste, gizarte zerbitzuen legeak egiteko prozesuetan, diru-sarrerak bermatzeari buruzko lege eta arauetan, Boluntarioen legean, haurrak eta nerabeak zaintzeko legean, eta gizarte ekimeneko kooperatiben dekretuan.

Orobat, zenbait plan prestatu, gauzatu eta ebaluatzen lagundu dute, hala nola, pobrezia-aren kontra borrokatzeko planak, droga-mendetasunen planak, boluntariorikaren planak, haurrei buruzko planak...

5- Sentsibilizazioa, egoera bidegabeak salatzea, errebindikazioak bideratzea eta gizarte kohesioa sustatzea.

- Gizartearen eraldaketari laguntzea, hainbat ekimen eta kanpainaren bitartez: sentsibilizazioa, gertaera eta egoera konkretuen salaketa, errebindikazioak bideratzea, hitz egiteko aukera eskainiz horrelako aukerarik ez zuenari.

6- Berrikuntza soziala eta ikerkuntza.

- Berrikuntza sozialeko elementuak eskaintzea, zenbait proiektu eta zerbitzu zuzeneko edo zeharkako eran garatzearen eta kudeatzearen bitartez.
- Ikertzeko eta beharrak detektatzeko lana.

7- Ezagutza sortzea (hori ekarpen bat da pertsona hartzaileentzat, gizartearentzat eta erakundearentzat berarentzat).

- Jardunbide egokien protokoloak eta eskuliburuak lantzen laguntzea, gizarte zerbitzuen hornikuntzaren alorrean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta zerbitzu horien hornikuntzan erantzukizuna duten beste administrazio publiko batzuekin batera.
- Pertsona hartzaileen egoera eta beharrei buruzko ezagutza sortzea, sistematizatzea eta hedatzea, eta baita behar horiei erantzuteko dauden baliabideei buruzkoa ere, esku-hartze ereduari buruzkoa, eta abar.
- Sektoreak berak ezagutza sortzearen alde aritzea, dela zuzeneko esku-hartzearen erakundeetatik dela sare edo erakundeen ekimenetan parte-hartzearen bidez -prestakuntza, ikerketa, aholkularitza...-. Ekimen horiek, batzuetan, sektoreak berak sortzen ditu, zuzeneko esku-hartzearen eremuko erakundeen parte-hartzean oinarritutako ereduarekin.

8- Pertsonak.

- Pertsona kritiko eta parte-hartzaileen prestakuntzari egindako ekarpena; hala, pertsona horiek ekarpen sozial esanguratsua egin dute erakundee-tan, beren konpromiso profesional eta/edo borondatezkoaren bitartez, eta gero, batzuetan, beste erakunde, ekimen eta sektore batzuetan integratu dira: garapenerako lankidetzaren erakundeak, administrazio publikoak, gizarte erakunde eta mugimenduak, sindikatuak, alderdi politikoak, enpresak, eta abar.

9- Enplegua eta erretornu soziala.

- Lanpostuak eta lurraldean errotutako enplegua sortzea erakundeetan -"ezin deslokalizatu daitekeen enplegua"-.
- Zerga-erretornua.

10- Elkarte-ehunaren eta hirugarren sektorearen garapena (sustapen erakundeak eta sareak).

- Boluntarioen sustapenari egindako ekarpena, eta gizarte ekintzaren eremuko "elkartegintza": elkarte-sarearen sorreran eta EAEko gizarte-ehunaren garapenean parte hartzea, erakundea bera sortuz, beste erakunde batzuei lagunduz, ezagutza transferituz, haien gobernu organoetan parte hartuz, eta abar.
- Sareko lana bultzatzea eta erakundeen arteko lankidetzak, dela zuzenean dela bigarren mailako sare edo erakundeen bitartez, GEHSaren egituraketa eta kohesioa aldeztuz.

4.3. ERAKUNDEA OSATZEN DUTEN PERTSONEI EGINDAKO EKARPENA

1- Ikaskuntza eta hazkunde pertsonalerako espazioak.

- Erakundea osatzen duten edo osatu duten pertsonentzat (boluntarioak, soldatakoak...) baliagarriak diren garapen pertsonaleko espazioak sortzea: ikaskuntza eta hazkunde erraztea, baina ez bakarrik erakundearen esku-hartzearekin edo beraren zuzendaritza eta kudeaketarekin zuzenean zerikusia duten gaitasuna eta balioei dagokienez, baizik eta orokorrean ere, pertsona bezala.

Erakunde batzuek loturak mantentzen dituzte nolabait parte hartzen eta kolaboratzen duten pertsona batzuekin, bazkide izateari utzi badiote ere, erre-tiratu edo beste nonbait lan egiten badute ere, eta abar.

2- Balioak adierazten dituzten erakundeak.

- Erakundeek balioak adierazten dituzte beren esku-hartze eta kudeaketan, balioak bizitzeko eta ikasteko espazioak dira, eta saiatzen dira bertan parte hartzen duten pertsonen erakundearen balio eta printzipioak konpartitu di-tzatela.
- Aldi berean, pertsonak erakundeetan hautematen dituzten eta erakundee-kin konpartitzen dituzten balioengatik lotzen dira erakundeekin, hau da, lo-tura balio horietan oinarritzen da. Gainera, balio berriak txertatzen dituzte edo erakundeek aurretik zituztenak garatzen dituzte, batez ere esperien-tziaren bitartez.

Erakundeekin lotzen direnean, pertsonak ikusten dute bizitzeko modu bat adieraz dezaketela hor, ekarpenak egitea eta sortzea ahalbidetzen dien es-pazio bat ikusten dute hor.

Lehen aipatu dugunez, lanbidea bokazio bezala bizitzen da, boluntario gisa aurretik garatutako lanari lotuta.

3- Pertsonak lehenesten dituzten lan espazioak.

- Erakundeetan sortzen diren lan-giroa eta antolaketa-klimak pertsonen gus-tukoak izan ohi dira (horrek ez du esan nahi, dena dela, gatazka edo zailta-sunik ez dagoenik, ezta lan baldintza hobetzea beharrezkoa ez denik ere).

Espazio horietan, beste sektore batzuetako (publikoa eta irabazi-asmoa duen pribatua) espazioetan baino askatasun handiagoa edo zurruntasun txikiagoa egoten da.

Erakundeekin lotzen direnean, pertsonak pentsatzen dute hor adieraz dezaketela bizimodu jakin bat, ekarpenak egiteko eta zerbait sortzeko espazio bezala bizi dute.

- Erakundea osatzen duten pertsona guztiek duten partaidetza sentimendua -erakundearen kide sentitzea- eta erakundearekin duten inplikazioa (egoera zailetan...).
- Pertsonengandik eta haien egoeratik gertu egotea, kudeaketa taldeetatik.

4- Enplegu eta lan baldintza duinak.

- Lanpostuak sortzea eta finkatzea, gizarte ekintza edo esku-hartzearen eremuan.
- GEHSan lan egiten duten pertsonen lana duintzea eta lan baldintzak gero eta gehiago hobetzea, erakundeetan bertan eta Gizardatz eta Hirekin sortzearen bitartez, hobekuntzak errebindikatzuz eta bultzatuz, eta hitzarmen sektorial bat sortzen laguntzea bazterketa edo babesgabetasun sozialaren eremuetan, horko lan baldintzak beste eremu batzuetakoak baino txarra-goak edo desagokiagoak baitira.

5- Prestakuntza.

- Boluntarioen eta soldatako pertsonalaren prestakuntza, ikuspuntu profesionaletik eta giza ikuspegitik.

ERANSKINA. FUNTSEZKO INFORMATZAILEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA.

1- ELKARRIZKETA

1.1. ERAKUNDEA

Zergatik eta nola sortu zen erakundea?

Zergatik sortu zen? Zer behar eta hartzaileei erantzun nahi zitzaien, hasieran?

Norengandik sortu zen jarduera abiatzeko eta erakundea formalizatzeko asmoa (baliteke bi gauza horiek aldi berean ez gertatzea)?

Nolakoak izan ziren hasierako garai horiek?:

- Nork osatzen zuen erakundea hasieran (ukitutako pertsonak, boluntarioak...)?, Zergatik lotzen ziren erakundearekin?, zerk mantentzen zuen lotura hori (erreferentzia pertsonalak, balioak...)?
- Nolakoak zineten, nola funtzionatzen zenuten?
 - Zer jarduera gauzatzen ziren?, zer baliabide zenituzten, zer-nolako tresnak?
 - Norekin kolaboratzen zen?, harremanik al zegoen erakundeekin?, zer-nolakoak?, eta beste erakunde batzuekin?
- Zein izan ziren hasierako zailtasunak? Eta zein izan ziren alderdi positiboak?

Nola eboluzionatu du erakundeak hasierako une horretatik? Zer dago lehen bezala eta zer aldatu da? (helburuak, hartzaileak, jarduerak, baliabideak, tresnak, boluntarioen proportzioa, antolaketa forma, harremanak...).

Zer mugarri -gertaera garrantzitsu- identifikatuko zenituzke erakundearen historian? Zergatik?

Zer etapa identifikatuko zenituzke erakundearen historian? Eta, nola deskribatuko zenituzke, zein izango litzateke etapa bakoitzaren ezaugarria?

En su opinión, ¿cuáles son las claves que han conformado el recorrido de la entidad que es importante preservar para el futuro? Bestalde, zer alderdi eraldatu dira edo eraldatu beharko lirateke?

Zure ustez, zein izan da erakundearen ekarpen soziala?

Pertsona hartzaileei eta Bizkaiko gizarteari, ikuspuntu hauetatik:

- Zerbitzu edo baliabide konkretuak sortzea pertsona hartzaileentzat, elkar-tasun antolaturako bidea (bazkide eta boluntario kopuru esanguratsua in-tegratzea, urteetan zehar), elkarrenganako laguntza,...
- Eskubideen aitortza (legedia), politiken garapena, arreta ereduaren aldaketa, eran-tzukizun publikoaren zabalkuntza...
- Eta, halaber, enplegua sortzea, zerga-erretornua...

Zein izan da eta izaten jarraitzen du erakundeak bere partaideei egindako ekarpena (bazkideak, boluntarioak, laguntzaileak)?

- Enplegu aukerak / konpromisoa eta hazkunde pertsonala (erakundea osa-tzen duten pertsonengana zuzendutako jarduerak, prestakuntza, hausnar-keta...), desgaitasunak dituzten edo bazterketa egoeran dauden pertsonak integratzea,...

Pertsonen buruz hitz egin dezagun, apur bat ...

Zer pertsona izan dira esanguratsuak erakundearen historian? Zergatik?

Zure ustez, zein izan da haien ekarpen nagusia? Erakundeari lotuta jarrai-tzen al dute?

Pertsona horiek, gizarte ekintzaren eremuko beste ekimen batzuetan ere parte hartu al dute?

1.2. ERAKUNDEAREN ETA GIZARTE EKINTZAKO HIRUGARREN SEKTOREAREN INGURUNEA

Hirugarren sektoreari lotutako erakunde eta pertsonen artean, zein izan dira -zure ustez- esanguratsuak Bizkaiko gizarte ekintzaren eremuan? Zergatik? Zure ustez, zein izan da haien ekarpen nagusia?

Zer mugarri azpimarratuko zenituzke testuinguruan: Bizkaiko gizarte ekintza-arentzat eta hirugarren sektorearen ekarpenarentzat esanguratsuak izan diren ingurune gertaerak, aldaketak...? (adibidez: trantsizio demokratikoa, 90eko krisi ekonomikoa, desinstituzionalizazioa, eta elkarbizitzako alternatibetara bi-deratzea ingurune komunitarioan...).

Zergatik izan dira garrantzitsuak? Zer eragin izan dute erakundeetan eta/edo haien jardueran?

2- BIDEO GRABAZIOA

Grabaziorako galderak:

- 1- Zure ustez, zein izan da eta izaten jarraitzen du erakundearen ekarpen soziala?***
- 2- Zure ustez, zein dira erakundearen ibilbidea itxuratu duten eta beren garran-tziagatik etorkizunean ere mantendu behar diren gakoak?***